

ZIGORTUAK

ILUNPETIK ARGITARA

Frankismoaren biktimak Lezon
1936-1945

JOXE LUIX AGIRRETXE MITXELENA
AGUSTINA PONTSTA GARMENDIA
ANDER LEON NANCLARES





LIZENTZIA

AITORTZEA – EZ KOMERTZIALA – LAN ERATORRIRIK GABE

AITORTZA: Egileak

Lan hau kopiatzeko, banatzeko eta jendeaurrean banatzeko aske zara, beti ere, baldintza hauetan

Aitortza: Lanaren kredituak aitortu behar dituzu, egileak edo baimendunak zehaztutako eran (ez da aditzera eman behar haien babesak duzunik edo haiek obraren erabilera hau espreski babesten dutenik)

Ez komertziala: Ezin duzu lan hau merkataritza xedetarako erabili

Lan Eratorririk gabe: Ezin duzu lan hau aldatu, eraldatu edo lan eratorririk sortu hartatik abiatuta.

© Egilea:

© Diseinua eta maketazioa: Kolore

© Edizioa: Lezoko Unibertsitateko Udala 2008

Inprimaketa: Graficas Lankorpe, S.L.

ISBN: 978-84-935801-2-4

DEPOSITO LEGALA: SS-1086-2008

*Zuei,
liburu hau irakurtzera iristeko aukerarik izan ez duzuen guztioi,
maitasunez eta gorazarrez.*



*.... Eta illuntziko bakian
norbattek darrai kantari:
<<Dana emon biar yako
matte dan azkatasunari>>.*

*Esteban Urkiaga
"Lauaxeta"*

[AURKIBIDEA]

Hitzaurrea: Atzera begira, aurrera egiteko

[1]

Sarrera

[2]

Garaiko testuinguru politikoaren zertzeladak

[3]

Tragedia eta triskantza egunak herrian

[4]

Frankismoaren biktimak

[4.1] Herrian gertatutako erailtzeak

[4.2] Herritik kanpora eraildako lezoarrak

[4.3] Zigor gogorrek jasandako lezoarrak

[5]

Gudari eta miliziano izandako herritarrak

[6]

Lekukotza grafikoak

[7]

Biktimen eta haien ondokoen lekukotzak

[7.1] Miren Guezala

[7.2] Polentzi Guezala

[7.3] Fabián Iparraguirre

[7.4] Eustaquio Areitio

[7.5] Rosa García

[7.6] Pili Insausti

[7.7] Tomasa Cordero

[7.8] Pepita Legorburu

[7.9] Francisca Lecuona

[7.10] Pello Usabiaga

[7.11] José María García

[7.12] Regino García

[7.13] Miguel Sarasola

[8]

Azkena

ATZERA BEGIRA, AURRERA EGITEKO

Urte anitz pasa dira gerra amaitu zenetik. Urte ugari Franco hil zenetik ere. Jadanik hiru hamarkada egin ditugu diktadorea gabe. Denbora asko, ezin uka. Hala eta guztiz ere, oraindik, eta gazteek jakin beharko lukete, gerrak eta frankismoak sortutako amesgaiztoek nonahi harrapatzen gaituzte: oroimen batean, ohitura politikoetan, kaleetan gelditzen diren ikurretan edo gure mendietan aurki daitezkeen trintxeretan.

Lezoarrentzat, eta gipuzkoar askorentzat, gerra egun batzuetako kontua besterik ez zen izan. Baina amesgaizto hori luzatu egin zen. Hasiera batean, bolboraren kiratsa usaindu zuten lezoarrek. Matxinatuak, Lesakako eta Oiartzungo bidetik, Lezo atariraino iritsi ziren. Atzera egin behar izan zuten kilometro batzuk. Eta fronte bat balitz bezala -karlistaden garaietatik ez zen hitz potolo hori entzuten-, bi armadak alde batean eta bestean kokatu ziren. Bata, matxinatuena, militarrekin eta paramilitarrekin -erreketeak; karlistada berriz ere- osatua. Bestea, leialena, gazteekin -gizon eta emakume- egina. Amateurrak. Lehenengoek mauserrak -alemanek Lehen Mundu Gerran baliatutako arma- erabiltzen zituzten erasorako. Bigarrenek, ordea, ehizarako eskopetak. Lehenengoek granadak jaurtitzen zituzten. Bigarrenek molotov koktelak.

Bigarren saiakeran, matxinatuek helburua lortu zuten. Muga bereganatu ondoren, Irundik eta Jaizkibel menditik iritsi ziren. Baina alde zuzenetik euren indarra erakutsi nahi izan zuten. Beraien ideologia zabaltzeko beldurra beharrezkoa zen.

Eta uda horretako zero urdinetik, burdinazko mamuek bonbak bota zituzten Lezo gainetik. Eta beldurraren itzalak dena estali zuen. Haurren bizitza, baita helduen etorkizuna ere.

Gertatu zena jakina da. Desplazatuak, Donostiara hasiera batean, Zumaiara gero. Bizkairantz. Hurrengo urteko ofentsibaren ondorioz, matxinatuek euskaldunen lurralde osoa konkistatu zuten. Hala esaten zuen behintzat Bilboko alkate berriak: “Armen bidez konkistatua. Ez itunik, ez hil ondoko esker onik, horrelakorik ez. Gerra lege gogor, adoretzu, tinkoa. Garaileak eta azpiratuak egon dira, noski. Bat den eta librea den Espainiak irabazi du, hau da, Falange tradizionalistaren Espainiak”. Erbestera batzuk. Beste batzuek, ordea, espetxeak bete zituzten. Gehiengoa miseria gorrian.

Urte hauetan, azken hamarkadan bereziki, egiaren atzetik gabiltza. Historiaren atzetik. Ez naiz ari memoriari buruz, baizik eta historiari buruz. Ez dira gure gogoetak edo gure arbasoen gogoetak berreskuratzen -memoria litzatekeena-. Ez. Ez gara puntu horretara iritsi. Egiaren bila gabiltza oraindik. Gezurra dirudi hainbeste denboraren ostean horrela egotea. Baina, zoritxarrez, hori da egoera. Garaileek egia ezkutatu ziguten: basakeriak, torturak, hilketak. Eta galtzaileen buruzagi frankok, sistema politiko berria sortu zenean, iragana ahaztu zuen. Frankismoaren helburuekin bat eginez. Tristura handiko trantsizioa diktaduratik demokraziara egin zena. Ezin etorkizunaz hitz egin gure historiaren atzeko pasarteak ezagutu ezean. Nola eraiki, oinarriak ez badaude jarriak? Nori esker “gara”? Oraindik asko dago argitzeke.



SARRERA

1936ko gerrak aspaldiko kontua dirudi, baina gure herrian gerrako gertaera nagusiak izan zirenetik 70 urte bete diren buelta honetan, Euskal Herriko herri gehienguan, fusilatuak eta zigortuak izan zirenei eta euren senideei omenalditxoak egiten ari zaizkie era batera edo bestera. Ekimen bikainak oroimen historikoa berreskuratzeke eta gizon-emakume haiek ohoratzeke balio duten neurrian behintzat. Bere xaloan, lan honek horixe izan nahi du; zor eta injustizia historiko hori zuzentzen hasteko hondar-alea.

Euren larruan zigorra jasandakoen edo jasan zuten haien familiakoen ahotik bildutako zuzeneko lekukotzak, heriotza eta jaiotza-agiriak, Lezoko Udal Agiritegiko garai hartako udal akta eta agiriak, Sabino Arana Fundazioaren agiritegiko paperak eta oinarrizko bibliografia izan dira lan hau taxutzeko erabili ditugun iturriak. Bizi-bizi eta hunkigarriak batzuk, altxor baliotsuak besteak. Ez bedi beraz inor mindu lan honetan bere berri edo senitartekoren baten berri aurkitzen ez badu, ez da propio egindako hutsegitea izango-eta, guregana haren berririk, era batera edo bestera, iritsi ez delako baizik.

Inork galde lezake ordea; baina zer axola zaizkigu ordukoen lekukotza eta anekdota guztiak? Gure arbasoen lotsagarrikeriak aireratuz, ez ote dugu berriro ere herri-tarren artean sua eta herra piztuko? Edota ez ote dugu oinordekoengan errudun sentimendua sorraraziko? Guk ez dugu hori uste. Ezta hurrik eman ere!

Orain arte herriko adinekoen ahotan sentimenduz beteriko hitz hunkigarri zirenak paperean jarri besterik ez dugu egin, garai hari dagokion leialtasunaren izenean.

Beraz, lan hau mamitzeko orduan, gertaerak oroimenera ekarri eta haietaz ahalik eta zehatzen mintzatuz, euren lekukotza eman izana eskertzen diegu berriemaile izan ditugunei. Haiek esandakoen arabera, protagonistei, nori bere izen-deiturak eta filiazioak -batzuetan, zenbaitekiko iritzi eta sentimendu aski gordinak ere bai- jarri dizkiegu, haiekiko begirunez. Izan ere, iraganari dagokion izena jartzen diogunean soilik ausartuko gara egungo errealitateari ere izen bat ematen.

Derrigorrezkoa da, egiaz eta justiziaz hitz egitean, gertaerak gertatu bezala ezagutzea, eta, horretarako, lekukoen laguntza ezinbestekoa gertatzen da -guri ere hala gertatu zaigu-. Ezagutzarik gabe ez baitago justizia egiterik, eta justiziarik gabe nekez zuzen baitaitezke egindako injustiziak.

Herritarren lekukotzek adierazten dutenez, indar frankistek kartzelaratu, zigortu eta fusilatu zituzten batzuk alderdi politikoetako edo sindikatueta "militante" ziren, hau da, abertzaleak -nazionalista deiturikoak- edo ezkerreko errepublikazaleak -milizianoak-, baina beste asko eta asko, aldiz, ustekabean, orduantxe eta hantxe suertatutakoak, herri osoa gertatu baitzen kaltetua azken batean, era batera edo bestera.



[2]

GARAIKO TESTUINGURU POLITIKOAREN ZERTZELADAK

Lezoar batzuek pairatu zuten errepresioa ez zen gertaera isolatua izan, ez zen hutsetik ateratako bortizkeria, urtetako emaitza baizik. Hurbilpen historiko-politiko honetan Lezoko herriaren erradiografia egiten saiatuko gara, alde batetik II. Errepublikaren garaikoa, enfrentamendu egoerara nola ailegatu zen aztertzeko, eta bestetik, lehen frankismoaren garaikoa, errepresioa gertatu zen urteetakoa, sakoneko eta azaleko aldaketak ulertu ahal izateko. Has gaitezen hasieratik.

Ondo jakina da II. Errepublikaren aldarrikapena udal hauteskunde batzuen ostean egin zela. Prozesu hori 1931ko apirilaren 12an burutu zen. Espainia mailan monarkikoez lortu zuten boto eta zinegotzi kopurua errepublikanoek lortutakoa baino handiagoa bazen ere, hirietan eta zonalde industrializatuetan azken hauek izan ziren garaile. Egoera ikusita, Alfonso XIII.a erregeak erbesteratzea erabaki zuen, eta ihesaren ostean, 1931ko apirilaren 14an, II. Errepublika aldarrikatu zen. Prozesu honetan, Lezoko herria ez zen ikusle soila izan. Izan ere, arestian aipatutako hauteskunde horietan aukeratutako 6 zinegotzik “antimonarkiko” labela zuten, garaiko prentsaren arabera¹. Hauek izan ziren aukeratutakoak, bakoitzak 182 boto lortu zituen:

- José Guezala
- Vicente Ayerdi

¹ La Voz de Guipúzcoa. 1931ko apirila

- Patricio Lopetegui
- Aquilino Ibarguren
- José M.^a Bengoechea
- Ignacio Picabea

Hauetz gain, beste hiru zinegotzi aukeratu zituzten garaiko lezoarrek:

- Angel Ibarguren
- Venancio Salaverría
- Florencio Salaverría

Apirilaren 17an eginiko plenoan udalbatza berria osatu zen, baita alkate berria hautatu ere. Aldeko sei botorekin José Guezala izan zen aukeratua, eta beraz, II. Errepublikako lehen alkatea bera izan zen. Segituan hasi zen erregimen berria nabaritzen. Bigarren plenoan honako erabaki hau hartu zen. *“La Corporación acuerda por unanimidad comisionar al Sr. Alcalde-Presidente para que en nombre de la misma se persone ante el Gobernador Civil y le haga presente el acatamiento de este Ayuntamiento al nuevo régimen de la República que se ha implantado en la Nación”*². Aho batez onartua izateak duen garrantzia ezin da baztertu, monarkiaren aldeko zinegotzirik ez zegoela adierazi nahi baitu. Errepublikazaletasuna adierazten duen beste erabaki sinboliko bat Galán eta García Hernándezen senideei dolumin telegramak bidaltzearena izan zen³. Errepublikazalea ez ezik euskaltzalea ere izan zen lehenengo udaltalde errepublikano hau, laster hasi baitzen telegramak bidaltzen Madrilgo Hezkuntza Ministroari *“rogando atiende las aspiraciones del País Vasco con referencia al régimen de bilingüismo escolar”*⁴.

Bitartean, II. Errepublika bere ibilbidea markatzen hasi zen. Horretarako, Konstituzio berri bat aurreikusten zen eta proiektua erredaktatuko zuten Gorte konstituziogileak eratu beharra ere bai. Hori zela eta, 1931ko ekainaren 28an hauteskundeak burutu ziren Estatu osoan eta Gipuzkoa eta Lezo ez ziren salbuespen izan. Aipatutako prozesurako hautagaitzak bi motatakoak ziren. Alde batetik, “Nacionalista-Tradicionalista” deiturikoa, katolizismoa defendatzeko aitzakiarekin Espainiako eskuindarrak eta PNVko abertzaleak bildu zituena eta beste aldetik, “Repúblicano-Socialista” deiturikoa, ezkerreko alderdiak, hau da errepublikaren aldekoak bildu zituena. Eskuindarrekin batera joateko jeltzaleek jarritako arrazoia, katolizismoaz gain, euskal estatutu baten promesa izan zela aipatu beharra dago -hauteskunde hauetan 23 urtetik gorako gizonzkoek bakarrik harrezaketen parte. Aukeratutako Gorte hauek egingo zuten Konstituzioak egoera hau aldatuko zuen geroxeago-. Baldintza hauetan, Gipuzkoako eta Lezoko portzentaiak hauek izan ziren, %85,5eko parte-hartzearekin⁵.

² Lezoko Udaleko akta-liburua 1931/04/21 ³ Galán eta García Hernández militarrek Jacan altxatu ziren 1930ean, errepublikaren alde. Altxamenduak porrot egin zuen eta biak fusilatutak izan ziren, errepublikanoen artean “martir” gisa hartuak izan zirelarik.

⁴ Lezoko Udaleko akta-liburua 1931/04/28 ⁵ RODRIGUEZ, J.A: Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II. República. Kutxa. Donostia 1994

HAUTAGAITZA	JOERA	GIPUZKOA	LEZO	DIPUTATUAK
Candidatura Pro Estatuto Vasco	Eskuina	%57,7	%73	4
Bloque Republicano-Socialista	Ezkerra	%41	%26	2
Partido Comunista de España	Ezkerra	%2	--	0

Nabarmena da Lezo probintzia baino eskuindarragoa zela, hau da, zinegotzi guztiak Errepublikanoak izan arren, herriaren joera ez zen hori. Arrazoi batzuk aipa ditzakegu hori azaltzeko. Herri ttikiak kontserbadurismorako duten joera, herriko abertzaletasuna, herriko katolizismoa, Antonio Pildain herritarra Estatutuaren aldeko hautagaitzan joatea... Historian gertatu ohi den bezala, arrazoi guztien batuketa izan zen emaitza hau. Boto kopuruari begira hauek izan ziren 1931ko ekainaren 28an Lezon izandako emaitzak⁶:

LEZO 1931-06-28

HAUTAGAIA ⁷	ALDERDIA	BOTOAK
Picavea Leguía, Rafael	Candidatura Pro Estatuto Vasco	301
Pildain Zapiain, Antonio	Candidatura Pro Estatuto Vasco	301
Leizaola Sánchez, Jesús María	Candidatura Pro Estatuto Vasco	299
Urquijo e Ybarra, Julio de	Candidatura Pro Estatuto Vasco	299
Usabiaga Lasquíbar, Juan	Bloque Republicano-Socialista	113
Gárate Arriola, Justo	Bloque Republicano-Socialista	111
Francisco Jiménez, Enrique de	Bloque Republicano-Socialista	110
Amilibia Machimbarrena, José María	Bloque Republicano-Socialista	108
Urgoiti Achúcarro, Nicolás María	Unión Republicana ⁸	4
Castro Casals, Luis de	Unión Republicana ⁹	2
Boto Zuriak	-----	2

Estatu mailan ezkertiarrek irabazi zituzten hauteskunde hauek, eta gehiengo horrekin Konstituzio berria izango zena idazteari ekin zioten. Niceto Alcalá-Zamora izan zen Errepublikako presidentea eta Manuel Azaña gobernuarena, emaitzak hauek izan zirelarik¹⁰:

⁶Boletín Oficial de Guipúzcoa 1931/06/29 ⁷Letra lodiz agertzen direnak diputatu hautatuak izan ziren ⁸Hautagaitza erretiratu zuen ⁹Hautagaitza erretiratu zuen ¹⁰www.wikipedia.org

ALDERDIA	DIPUTATU KOPURUA
PSOE	114
Partido Republicano Radical	89
Partido Republicano Radical Socialista	55
Zentroko errepublikanoak	50
Esquerra Republicana de Catalunya	36
Acción Republicana	30
Agrarios ¹¹	24
PNV eta Lliga Regionalista de Catalunya	19
ORGA ¹²	19

Hauteskundeen ondotik Lezoko bizitzak aurrera jarraitu zuen. Plenoetan ohikoak dira eguneroko bizitzako gaiak, besteak beste, fakturen ordainketak, obratarako baimenak edota herritarrak inguruko ospitaletan sartzeari buruzkoak. Dena den, erregimen berriaren aztarnak antzematen hasiak ziren. II. Errepublikako gobernuen kezka nagusietako bat hezkuntza izan zen, eta hori ere Lezon nabarmendu zen, izan ere, Udaltzaren lehenengo erabakien artean *“acuerda por unanimidad construir una escuela rural en el punto denominado Chachamendi (...) con toda urgencia por encontrarse sin recibir instrucción alguna los niños y niñas de aquella parte de la población”*¹³ aurki daiteke.

Euskal ordezkariak bazuten beste kezka bat ordea. 1931ko abenduaren 9an Espainiako Gorteek Konstituzioa onartu zuten. Bertan, eta historian lehenengo aldiz, euskarak bazuen ofizial estatusa eta honez gain, Estatuko hainbat lurralderi autonomia estatutua lortzeko aukera onartzen zien. Hori izan zen ordezkari euskaldunen borroka. 1931ko uztailaren 28ko plenoan, Lezoko zinegotziek gai hau aztertzeko beharra ikusi zuten eta bi aukeren artean erabakitzeko beharra ere bai. Bertan Estatutu proiektuari egindako enmendakinen multzoen artean erabaki zen *“las enmiendas acordadas en la Asamblea de Ayuntamientos de Estella y el enmendado por las ponencias nombradas por las comisiones gestoras de las provincias de Vizcaya, Guipúzcoa, Álava y Navarra”*¹⁴. Bost zinegotzik herrialdeen gestoren aldeko botoa eman zuten. Gainontzeko lauek Lizarraren aldekoa. Dena den, ez bata eta ez bestea ez ziren gero aurrera atera. Urte bereko irailean Madrilgo Gorteek atzera bota zuten estatutuaren proiektua “gehiegizkoa eta Errepublikaren kontrakoa” zelako. Arrazoien artean ezin da aipatu gabe utzi ezkertiar diputatu talde batek emandakoa. Euren ustez, autonomia zabala lortuta, eta euskal herritarren izaera erlijiosoa ikusita, hemengo lurraldea “Euskal Vatikanoa” bihurtuko zen eta hori ezin zen onartu errepublika laiko batean.

¹¹ Errepublikaren kontrako eskuindarrak ¹² Galiziako erregionalistak ¹³ Lezoko Udaleko akta-liburua 1931/07/20 ¹⁴ Lezoko Udaleko akta-liburua 1931/07/28

Dena den, eta behin Konstituzioa onartuta, Espainiako Gobernuak dekretu bat egin zuen 1931ko abenduaren 9an. Bertan, autonomia lortzeko pausoak onartzen dira. Lehenik, Euskal Udalen Asanbladak onartu behar du, geroxeago herriak, erreferendum baten bitartez, eta azkeneko tramitea Espainiako Gorteek onartzea izango zen. Lezoko Udalak prozeduraren jakinaren gainean zegoela adierazi zuen¹⁵.

Estatutua lortzeko prozesuak aurrera jarraitzen zuen bitartean, herriko bizitzak bestelako arazo batzuei aurre egiten ziren, modu ez oso politikoki zuzenean. Adibide gisa honatx onartutako lege bat *“para la expulsión de gitanos, mendigos y gente maleante y perseguir la mendicidad y la vagancia”*¹⁶. Euskararen aldeko urratsak ere egin ziren. Lehiaketa konbokatuta zen emagin plaza betetzeko eta baldintzen artean *“se exige a las concursantes, además de las condiciones generales, la del conocimiento del vascuence”*¹⁷.

1933ko martxoaren 14an aztertzen ari garen aroko lehen alkatearen dimisioa gertatu zen. Hiru hilabete plenoetara agertu gabe egon eta gero, gutun bat aurkeztu zuen José Guezalak non dimisioa ematen zuen *“por necesidades de la vida y demás obligaciones que no puede eludir”*. Plenoak dimisioa onartu zuen¹⁸ eta herria alkate ofizialik gabe egon zen urte bereko maiatzaren 5a arte. Alkate falta zela eta herriko ezkertiarrek agerraldi publikoa egin zuten Udalbatzarrean. Lezoko Unión Republicana-ko presidenteak eta idazkariak gutun bat idatzi zioten Udalari. Eskaera plenoak arratsalde egitearena zen, eguerdiko 12etan egin beharrean, arratsaldeko 7etan egitea, herritarren parte hartzea ahalbidetzeko. Udalbatzaren erantzuna ezezkoa izan zen eta ordutegi berari eutsi zion¹⁹.

Aipatutako maiatzaren 5eko plenoak Patricio Lopetegui y Lizarazu aukeratu zuen eta handik aurrera bera izango zen herriko alkatea. Joera jeltzalea laster hasi zen nabaritzen. Lopeteguiaren zuzendaritzapeko lehenengo plenoan eskaera egin zion Gipuzkoako Foru Aldundiari *“para que con urgencia presente a la aprobación de los ayuntamientos el Estatuto de Autonomía en una fecha no más lejana del 30 de julio para poder llevar a cabo un referendum”*²⁰.

Estatuturanzko bide horrek aurrera egin zuen eta isla izan zuen Lezoko politikan, izan ere, plenoetan maiz aztertu ziren gisa honetako gaiak, Nafarroa Estatutuan sartu ala ez²¹, asanbladetara joateko ordezkarien hautaketa²² edo prozesuari buruzko aipamen solteak. Ailegatu zen Estatutuari buruzko erreferendumaren eguna. 1933ko azaroaren 5erako ezarri zuten eta emaitza borobilak izan ziren baieztokoaren aldekoentzat, bai Gipuzkoan, baita Lezon ere²³.

¹⁵ Lezoko Udaleko akta-liburua 1931/12/22 ¹⁶ Lezoko Udaleko akta-liburua 1932/08/16 ¹⁷ Lezoko Udaleko akta-liburua 1932/10/04 ¹⁸ Lezoko Udaleko akta-liburua 1933/03/14 ¹⁹ Lezoko Udaleko akta-liburua 1933/04/13 ²⁰ Lezoko Udaleko akta-liburua 1933/05/16 ²¹ Lezoko Udaleko akta-liburua 1933/06/22 ²² Lezoko Udaleko akta-liburua 1933/07/27

	ERROLDA	PARTE-HARTZEA	%	BAIEZKOAK	%	EZEZKOAK	%
Gipuzkoa	166.635	151.862	91,13	149.221	98,26	2.390	1,57
LEZO	1.051	792	75,35	791	99,87	1	0,13

Aipagarriena, Lezon izandako partehartzea Gipuzkoakoa baino askoz baxuagoa izan zela izan daiteke, eta are gehiago, Lezoren antzeko ezaugarriak zituzten herriekin alderatzen badugu, herri askotan %100era ailegatu zen. Azalpen politikoa ematea zail gertatzen zaigu, baina errealitatean oinarrituta, aurkituko genuke. Urriaren 23an izugarrizko uholdeak pairatu zituen zonaldeak eta Lezok bereziki. Kalteak izugarriak izan ziren eta hori argi eta garbi adierazten da Akta liburuan²⁴. Beraz, lezoar batzuek Estatutuaren erreferendumerara bozkatzera joatea baino eguneroko kezka premiazkoagoak zituzten. Hala ere, emaitzak ez du zalantzarako tarterik uzten, ezezko boto bakar horrek argi adierazten du Lezoko herriaren iritzia zein zen euskal estatutuaren inguruan.

Estatutuari emandako baiezko ikaragarriari erreparatzeko ia denborarik gabe, garaiko lezoarrak hauteskunde orokorretara deituak izan ziren handik 15 egunera, hilaren 19an, hain zuzen ere. Hauteskunde hauetan, 1931koekin alderatuta, berrikuntza ugari aurki ditzakegu. Garrantzitsuena, eztabaida ugari izanda gero, emakumeek bozkatzeko eskubidea izan zuten eta Gipuzkoan bi emakume aurkeztu ziren diputatu izateko; María Rosa Urraca eskuindarra eta Julia Álvarez sozialista.

Honez gain, ordurako apurtuta zegoen eskuindarren arteko akordioa eta abertzaleak (EAJ-PNV) eta espainiazaleak (Unión de Derechas) banatuta aurkeztu ziren. Beste alde batetik, nabarmena zen ezkertiarren arteko desadostasuna ere, lau aukerarekin; PSOE, Coalición Republicana, Alderdi Komunista (PCE) eta EAE-ANVren hautagaitza sinbolikoa. Horrela diputatuak sei arlotan banatu ziren eta hauek izan ziren emaitzak:

HAUTAGAITZA	JOERA	GIPUZKOA	LEZO	DIPUTATUAK
Partido Nacionalista Vasco	Eskuin-Abertzalea	%46,09	%70,57	5
Unión de Derechas	Eskuina	%24,92	%14,56	1
PSOE	Ezkerra	%15,92	%9,06	0
Coalición Republicana	Ezkerra	%10,80	%4,49	0
Partido Comunista de España	Ezkerra	%1,83	%1,30	0
ANV	Ezker-Abertzalea	%0,41	%0	0

EAJ-PNVk estatutuaren erreferendumeke emaitzei jarraipena emanez, bere historiako emaitzarik onenak lortu zituen, bost diputaturekin.

²³ Guk egindako koadroa ²⁴ Lezoko Udaleko akta-liburua 1933/11/19 ²⁵ PNV eta UDren artean bozken %85 lortu zuten

Lezori dagokionez, emaitzek herriaren eskuinzaletasuna eta katolizismoa adierazten zuten²⁵. Alderdi ezkertiarren emaitzak penagarriak izan ziren. Hala ere, aipagarria da, Gipuzkoa mailan Alderdi Komunistak 10 herritan baino ez zuen lortu %1a gainditzea, haietako bat Lezo izanik. Dena den, ez zen testimoniala izatetik pasatu. Hauek izan ziren hautagai bakoitzak lortutako bozka kopuruak. 1931koekin alderatzeko orduan, gogoan izan errolda bikoiztu egin zela emakumeen partehartzea zela eta.

LEZO 1933-11-19

HAUTAGAIA ²⁶	ALDERDIA	BOTOAK
Irujo Olo, Manuel	Partido Nacionalista Vasco	644
Leizaola Sanchez, Jesus M^a	Partido Nacionalista Vasco	614
Picavea Leguía, Rafael	Partido Nacionalista Vasco	595
Monzón Ortiz de Urruela, Telesforo	Partido Nacionalista Vasco	406
Irazusta Muñoa, Juan Antonio	Partido Nacionalista Vasco	396
Urraca Pastor, María Rosa	Unión de Derechas	137
Maeztu Whitney, Ramiro	Unión de Derechas	137
Paguaga Paguaga, Antonio	Unión de Derechas	137
Tellería Mendizabal, Agustín	Unión de Derechas	137
De Francisco Jiménez, Enrique	Partido Socialista Obrero Español	103
Echevarría Ibarbia, Toribio	Partido Socialista Obrero Español	101
Álvarez Resano, Julia	Partido Socialista Obrero Español	70
Angulo Vázquez, Federico	Partido Socialista Obrero Español	67
Bizcarrondo Gorosabel, Nicolás	Coalición Republicana	57
De la Torre Eguía, Manuel	Coalición Republicana	55
Usabiaga Lasquibar, Juan	Coalición Republicana	32
Gomendio, José Miguel	Coalición Republicana	25
Astigarribia Andonegui, Juan	Partido Comunista de España	13
Urondo Camiyo, Ricardo	Partido Comunista de España	12
Larrañaga Churruca, Jesús	Partido Comunista de España	12
Zapirain Aguinaga, Luis	Partido Comunista de España	12
Imaz Arrieta, José	Acción Nacionalista Vasca	0

²⁵ PNV eta UDren artean bozken %85 lortu zuten ²⁶ Letra lodiz agertzen direnak diputatu hautatuak izan ziren

Horrela, EAJ-PNVk bere ordura arteko historiako emaitzarik onenak lortu zituen. Arrazoiak bilatzen hasita, batzuk aurki ditzakegu. Nagusia, 15 egun lehenago Estatutuaren erreferendumean izandako emaitza. Baiezko borobil horrek animatu egin zituen antza hautesleak. Estatu mailan eskuinak irabazteak dei efektua eragin izana ere bazitekeen, Elizak pairatutako erasoek, ezkerra banatuta joan izanak eta historialari batzuen iritziz emakumeek emandako boto kontserbadore kopuru handiak eragina izan zuten emaitzetan. Gipuzkoaren eta Lezoren eskuinzaletasunaren gainean ez dago zalantzarik, Madrilera bidalitako 6 diputatuak joera horretakoak ziren eta - EAJ-PNVko 5 eta UDko 1-.

Estatu osoa kontuan hartuta, eskuinak irabazi zituen hauteskundeak eta horrek izu-garrizko eragina izan zuen gure herriko politikan, ikus ditzagun emaitzak²⁷:

ALDERDIA	DIPUTATU KOPURUA
CEDA	115
Partido Republicano Radical	104
PSOE	58
Agrarios	36
Lliga Regionalista de Catalunya	24
Tradicionalistas	21
Partido Republicano Conservador	18
Renovación Española	16
Eskuineko independenteak	16
PNV	12
Partido Liberal Demócrata	10
Acción Republicana	4
Bestelakoak	19

Eskuindarrek osatutako gobernu hau bi urte eta hiru hilabete egongo zen agintean, eta horrek eragin handia izango zuen bai Espainiako bizitza politikoan, baita Lezokoan ere. Lehenengo ondorio nabarmena Estatutuaren ukapena izan zen. Aurreko gobernuarekin ia aho batez onartutakoak ez zuen inolako baliorik eta urtetan egindako bidea bertan behera gelditu zen. Hala ere, EAJ-PNVko ordezkariak -Minoria Vasca- gutuna igorri zion Lezoko Udalarari bere zerbitzuak eskainiz eta honek eskertu egin zuen. Horrela hasi zen 1934. urtea.

²⁷ www.wikipedia.org

Urte horrek uda beroa biziko zuen Lezoko udal politikan. Ekainean 140 diputatu eskuindarrek proposamen bat aurkeztu zuten Madrilgo Gorteetan. Bertan ardoaren gaineko hainbat eskumen zalantzan jartzen zuten eta honek abertzaleen haserreka ekarri zuen. Proposamen hori “Estatuto del Vino” bezala ezagutu zen. Euskal udalek estatutu hau eraso gisa ikusi zuten bai kontzertu ekonomikoaren kontrakoa, bai udal autonomiaren kontrakoa ere. Hala, Lezoko Udalak bere alkatea izendatu zuen Bilbon uztailearen 5ean egitekoa zen “Asamblea de Municipios Vascos” delakoan²⁸ herria ordezkatzeko. Han, erabaki gogorak hartu ziren Estatutu horri aurre egiteko, besteak beste, udal hauteskundeak konbokatzea, alkateen eta zinegotzien dimisioak... Gipuzkoako Gobernadorea ez zen kikildu horratik eta udal guztiei telefonema bana igorri zien, bertan mehatxu doinu hainbat puntu gogorarazi zituen:

- *Recuerda a las Corporaciones municipales su misión administrativa ajena a toda injerencia de carácter político.*
- *Prohibir terminantemente se celebren elecciones para nombrar una comisión de ayuntamientos.*
- *Declarar ilegal cualquier reunión que se celebre*²⁹.

Apustua gogor hartuz, ehunka alkatek eta zinegotzik -abertzaleak eta ezkertiarrek- dimisioa eman zuten hurrengo egunetan. Lezoko Udalak udalbatza konbokatu zuen irailaren 9rako. Bertan, Fidel Otaegui idazkariak egin zuen lehenbiziko gauza batzar hura ilegala zela gogoraraztea izan zen. Oharrari kasu egin gabe, bertan zeuden zinegotzi guztiek, Angel Iburgurenak izan ezik, dimisioa eman zuten. Handik 10 egunera Gobernadore Zibilak zinegotzi berriak izendatu zituen³⁰, eta herriko alkate Vicente Ayerdi Olaizola jarri zuten. Honez gain, dimititutako guztiak zigortuak izan ziren isun eta inhabilitazioen bidez.

1934ko urrian eskuindarren gobernuaren kontrako iraultza saiakera gertatu zen Espainia mailan, batez ere Asturiasen eta Katalunian. Gipuzkoan eragina ez zen oso zabala izan, baina bai herri industrializatuetan. Autore batzuek Lezo aipatzen dute guner iraultzaile bezala, baina inolako zehaztasunik gabe. Litekeena da lezoar batzuk inguruko herrietako gertaera larrietan inplikatur egotea³¹. Hala ere, udal aktetan eta jasotako testigantzetan ez da herrian inolako enfrontamenduren berririk ematen.

Ayerdi 16 hilabetez izango zen herriko alkate, aparteko gorabeherarik gabe. Aktetan agertzen diren aztergaiak ohikoak dira, administratiboak eta beti ere “*ajenos a toda injerencia de carácter político*”. Udalaren joera berria xehetasun ttikietan ikusten da, adibidez emagin plazarako euskaraz jakitea ez zen baldintza bat izango³².

²⁸ Lezoko Udaleko akta-liburua 1934/07/03 ²⁹ Lezoko Udaleko akta-liburua 1934/08/09 ³⁰ Esteban Garmendia, Juan Madariaga eta Fernando Lobato ³¹ Pasaian 7 hildako izan ziren aipaturako egunetan ³² Lezoko Udaleko akta-liburua 1935/11/28

Luze gabe, 1936 urtea iritsi zen eta harekin batera otsaileko hauteskundeak. Espainian zegoen “frentismoa”k, hau da eskuinaren eta ezkerraren arteko enfrontamenduak hirugarren alde bat izango zuen gure lurraldean: EAJ-PNV. Baldintzatzaile gisa “Guerra del Vino” delako hartan zigortutako alkate eta zinegotziek ezin izan zuten parte hartu, inhabilitatuak zeuden eta. Aurreko hauteskundeetan hautagaitza ugari azaldu ziren, hauetan ordea, hiru besterik ez. Hauek izan ziren otsailaren 16ko emaitzak³³:

HAUTAGAITZA	JOERA	GIPUZKOA	LEZO
PNV	Eskuin-Abertzalea	%36,93	%61,02
Coalición Contrarrevolucionaria	Eskuina	%33,03	%21,30
Frente Popular	Ezkerra	%29,98	%17,67

Hauteskunde hauetan berriro antzematen da Lezoren abertzaletasuna eta bertan ezkerrek duen ezarpen eskasa. Banan banako bozkak hauek izan ziren³⁴:

LEZO 1936-02-19

HAUTAGAIA	ALDERDIA	BOTOAK
Irujo y Ollo, Manuel de	Partido Nacionalista Vasco	534
Irazusta Munoa, Juan Antonio de	Partido Nacionalista Vasco	403
Monzón Ortíz de Urruela, Telesforo	Partido Nacionalista Vasco	402
Lasarte Arana, José María	Partido Nacionalista Vasco	401
Picavea Leguía, Rafael	Partido Nacionalista Vasco	394
Lojendio Irure, Juan Pablo	Frente Contrarrevolucionario	187
Paguaga Paguaga, Antonio	Frente Contrarrevolucionario	187
Oreja Elósegui, Ricardo	Frente Contrarrevolucionario	186
Música Música, José	Frente Contrarrevolucionario	185
Ansó Zunzarren, Mariano	Frente Popular	158
Apraiz de Betolaza, Luis	Frente Popular	158
Amilibia Machimbarrena, Miguel	Frente Popular	156
Larrañaga Churruca, Jesús	Frente Popular	146

³³ Guk egindako koadroa ³⁴ Elhuyar entziklopedia

Gerra Zibilaren atarian burututako hauteskunde hauetan baldintza bat zegoen diputatuak aukeratzeko, eta hau alderdi nagusiak bozken %40 baino gehiago izatea zen. Hori lortu ezean, bigarren itzuli bat egin beharko zen. Espainiako zonalde gehienetan otsailaren 16an egindako hauteskundeetan lortu zen kopuru hori, baina bakar batzuetan³⁵, tartean Gipuzkoan, bigarren itzuli bat egin behar zen martxoaren 1ean. Hartan, Frente Contrarrevolucionariok hautagaitza erretiratzea erabaki zuen. Arrazoi nagusiak bi izan ziren. Otsailean Espainia mailan izandako emaitzekin Frente Popularraren garaipena ia erabatekoa izatea, eta bestetik, Elizak EAJ-PNVri emandako babesak bere aldeko argudio nagusia -Katolizismoaren ikurra izatea- bertan behera uzten zuen. Beste berrikuntza bat EAJ-PNVren estrategia aldaketa izan zen. Diputatuak ziurtatzeko asmotan, lau baino ez zituen aurkeztu eta Telesforo Monzon erretiratu zuen. Hala, bigarren itzuliko emaitzak erabaki hauen baldintzapean gauzatu ziren, lehia nagusia beti gogoan izanik; Espainiako Gorteen osaketa erabakita zegoen gainontzeko probintzietako diputatuekin, Frente Popularrari garaipena emanez. Bigarren itzuliko emaitzak hauek izan ziren:

HAUTAGAITZA	JOERA	GIPUZKOA	LEZO
PNV	Eskuin-Abertzalea	%59,89	%78,59
Coalición Contrarrevolucionaria	Eskuina	%0,83	%0
Frente Popular	Ezkerra	%39,28	%21,40

Eta ezkerren garaipena gertatu bazen ere, Gipuzkoak eta, batez ere, Lezok bere kontserbadurismoa erakutsi zuten, denbora luzean burutuko ziren azkeneko hauteskundeak hauek izango zirela jakin gabe. Lezoko emaitza zehatzak hauek izan ziren:

LEZO 1936-03-01

HAUTAGAIA ³⁶	ALDERDIA	BOTOAK
Picavea Leguía, Rafael	Partido Nacionalista Vasco	603
Irazusta Munoa, Juan Antonio de	Partido Nacionalista Vasco	603
Irujo y Ollo, Manuel de	Partido Nacionalista Vasco	603
Lasarte Arana, José María	Partido Nacionalista Vasco	600
Apraiz de Betolaza, Luis	Frente Popular	165
Amilibia Machimbarrena, Miguel	Frente Popular	164
Ansó Zunzarren, Mariano	Frente Popular	164
Larrañaga Churruca, Jesús	Frente Popular	163

³⁵ Castellon, Soria, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia ³⁶ Letra lodiz agertzen direnak diputatu hautatuak izan ziren

Argi eta garbi ikusten da herrian gertatutako EAJ-PNVren garaipena. Herrian zegoen katolizismoa eta ezkertiarren kontrako sentimendua argi azaldu zen Anaxtaxio izeneko nazionalista lezoar batek Eguna³⁶ egunkarian argitaratu zuen iritzian. Bere ustez bi diputatu ezkertiar hautatuak izatearen errudunak Espainiako eskuindarrak ziren:

Joan dan igande orretan katoliko “primeraklasekoak” etxean egonak ditugu. Ikusten danez oientzat, joan dan igandeko guda orrek berentzako etzuan garrantzirik, kalean sinesmenaren alde jokatu bear danean orietan sartu bear ez ba lukete beze-lako utsa eman bai ziguten.

Oraintxe bai erriak ederki esagutzen zaituztela, zoazte zoazte etxez etxe eta baserriz baserri katolikoek zuek zeratela esanaz agian sinistuko dizute zuen axaleko itz ori ta. Zuek etxean gorde ta egotearekin orain or dijoaz Madrid ‘ko lege etxe arta bi ezkerreko alduen, ata alere, zuek zerate guri matxinadan laguntzaleak gerala esaten duzutenak eta orain gertatu da zuek gure alde botoa ez ematearekin ezkertarrari lagundu diozutela. Gaur neregatik esaten dana, biar zuregatik esango da. “Il ziran”³⁷

Artikulu honetan Anaxtaxiok bi aipamen interesgarri egiten ditu. Lehenegoa, Lezoko abertzaleei ez zitzaieela batere gustatzen inolako ezkerreko joerarik. Bigarrena, eskuindarren ustez abertzaleak ezkertiar-iraultzaileen laguntzaileak zirela. Beraz, Espainia mailan bizi zen bi alderdien arteko norgehiagokak hirugarren partaide bat zuen gure lurraldean. Gauzak horrela, hiruki bati buruz ari gara eta nork bere estrategiak bideratzeko orduan, argi zegoen norekin ez zuten ezer adostu nahi: gainontzeko biek. PNVk Frente Popularrekoak ezkertiar-ateo-marxistatzat zituen eta Coalición Contrarrevolucionaria-koak espainiar faxistatzat. Frente Popularrarentzat guztiak ziren eskuindar-katoliko-oligarkak, batzuk espainiarrak eta besteak euskaldunak. Eta Espainiako eskuinaren ustez Ezkerra deabrua zen eta abertzaleak Espainia zatitu nahi zuten traidoreak. Hau izan zen 1936ko hauteskundeek utzi zuten panorama. Herrialdea hiru alderditan zatituta eta Madrilan ezkerreko gobernu bat atera zen honoko emaitzekin:

ALDERDIA	ESERLEKUAK
Frente Popular (<i>Ezkerra</i>)	256
Frente Nacional (<i>Eskuina</i>)	136
Zentroa	59
Bestelakoak	20

³⁷ El Día egunkaria. 1936ko Epaillak 5an

Hauteskundeetako bi itzulien artean Madrilen izandako gobernu aldaketaren ondorioak sumatzen hasi ziren Lezon. 1936ko otsailaren 27an egindako pleno batean Gobernadore Zibilaren telefonema bat irakurri zen; “*Se dio lectura al telefonema del Excelentísimo Gobernador Civil de la provincia ordenando la reposición de los concejales de elección popular amnistiados de la inhabilitación que sufrían*”³⁸. Hala, 1934an dimititutakoak udaletxera itzuli ziren eta Patricio Lopetegui hartu zuen alkateza. Udalbatza horrela gelditu zen: Alkatea: Patricio Lopetegui. Zinegotziak: Ignacio Picabea, Anastasio Salaverría, Venancio Salaverría, Florencio Salaverría, José María Bengoechea eta Vicente Ayerdi. Talde hau izango zen Gerra Zibila iritsi bitartean agintean egongo zena.

Aldaketa hau ez zen ezkertiarren gustukoa izan, eurek proposatutakoa izan arren. Lehen aipatu dugun enfrontamendua argi ikusten da plenoan izan zen ikusle batek “La Voz de Guipúzcoa” egunkarian argitaratutako plenoari buruzko iritzian:

*Los que han vuelto al Municipio se han precipitado en esta ocasión. Aunque vean cercana la fecha de unas elecciones municipales, debían haber tardado más en enseñar la oreja. La celeridad nunca es buena aliada. El pueblo de Lezo tiene motivos suficientes para repudiar a todos. Ninguno puede salvarse de la repulsa. Y puede darles su merecido en las próximas elecciones, no votándoles si tienen la osadía de presentarse a la lucha. Y en esto de la osadía son maestros algunos de los componentes del actual Municipio. Son unos vivales que se filtran por cualquier rendija. Y bien hará Lezo en cerrarles la más diminuta de estas rendijas, que son el paso de sus madrigueras hasta la Casa del Ayuntamiento. Y no alardeen de tanto afán de justicia quienes antes se burlaron de ella*³⁹

Bitartean, otsailetik ekainera burututako plenoetan nabari zen abertzaleen itzulera: Estatutuaren gaia plenoetara itzuli zen eta Lezok bere beharra aipatzen zuen behin eta berriz. Dirulaguntzetan ere nabarmena zen udalaren joera “*Conceder 60 pesetas a la entidad cultural Euzko Pizkundea para ayuda de los gastos que ocasionan las emisiones euskéricas que trata de realizar en cooperación con Unión Radio*”⁴⁰.

Baina ez zuten askorako denborarik. Ekainaren 9koa da artxibategian aurkitu dugun azken akta. Udaleko hortik aurrerako berririk ez dugu. Herriaren bizimoduari buruz bai, Patri Urkizuren “Zoazte hemendik!” liburuan. Gerra laster hasiko zen eta gauzak asko aldatuko ziren herrian. Kasu gehienetan okerrera.

Hiru taldeen arteko ezinikusia nabarmena zen. Horrek eragina izango du Gerra Zibilean bandoak eratzeko orduan. Iritzietan oinarrituta, herriko abertzaleak

³⁸ Lezoko Udaleko Akta-Liburua 1936/02/27 ³⁹ La Voz de Guipúzcoa, 1936ko martxoan ⁴⁰ Lezoko Udaleko akta-liburua 36/06/9

Espainiako eskuindarrendandik ezkertiarrendandik baino hurbilago zeudela dirudi. 1936ko azken hauteskundeetan izandako emaitzak eta gerrarako izena eman zuten gudari eta miliziano kopuruak alderatzen baditugu, ondorio horixe ater daiteke. Askok eta askok izan ziren etxean gelditu ziren EAJ-PNVko hautesleak. Aldiz, proportzioan, herriko ezkertiarrek erakutsi zuten konpromiso maila askoz handiagoa izan zen⁴¹. Arrazoiak asko izan dira, baina katolizismoarena ez da garrantzi gutxien daukana. Eliza erasotzen zuen gobernu baten eta “Cruzada” egiten zuen matxinatu talde baten artean aukeratzeko orduan, askok izan ziren bigarren aukeraren alde egin zuten abertzaleak, PNVko zuzendaritzatik, asko deliberatu eta gero, kontrakoa agindu arren. Laster konturatuko ziren, ordea, etsaia non zegoen eta errepresioaren ordua ailegatu zenean, EAJko abertzale askok sumatu zuten antifrankista izateko beharra. Diktadura 1936ko irailaren 13an ezarri zen Lezon.



Herriko Centro Republicanoko ordezkariak

⁴¹ EAJ-PNVk 603 bozka eta 22 gudari. Frente Popularrak 165 bozka eta 22 miliziano

Kazetaria:

¿Cuánto tiempo va a durar la masacre?

Franco:

No puede haber concesiones ni tregua. Yo continuaré preparando el avance sobre Madrid, avanzaré y tomaré la capital. Salvaré a España del marxismo al precio que sea

Kazetaria:

¿Eso significa que tendrá usted que fusilar a media España?

Franco:

Repito, cueste lo que cueste

Tetuanen Jay Allen kazetari estatubatuarrak Francori egindako elkarrizketa, 1936ko uztailaren 27an⁴²

⁴² Lezon erreketeeek Etxetxo baserriko Usabiaga-Oiarzabal familia sarraskitu zuten eguna

Lezok ez zuen gehiegi iraungo Gobernuaren eskuetan. Ez zen bi hilabetera ailegatu. Askotan aipatutako 1936ko irailaren 13an herrian sartu ziren erreketek nafarrak diktadurari hasiera emanaz. Biktimen kontaketa lehenago hasia zen zoritxarrez-Etxetxo baserriko familiaren sarraskia edo San Juan -Donibane- kaleko bonba-, baina egun horretatik aurrera errepresio antolatua ezagutuko zuten faxismoaren aurkakoek.

Matxinatuek izua zabaltzeko helburua zuten. Planifikatutako izua, hau da, ez zela soldaduek beren kabuz hartutako erabakia, baizik eta goitik bidalitako agindua. Mola jeneralak askotan aipatzen zuen errepresio bortitzaren beharra *“Quiero que el marxismo y la bandera roja del comunismo queden en la historia como una pesadilla. Mas como una pesadilla lavada con sangre de patriotas”*⁴³. Zigor bortitz hauek helburu batzuk zituzten, besteak beste, izuaren bidez obedientzia lortzea, zalantzatan zeudenak erakartzea eta gerrak iraun bitartean errepublikanoekiko laguntza oro oztopatzea. Honi, 1931tik aurrera bizi izandako enfrendamenduaren ondorioz zonalde askotan zegoen mendeku gosea gehi dakioko.

Lezoko Udaletxean laster hasi ziren aldaketak. Gauza jakina da erreketek herrian sartu zirenean Tiburcio Ascasibar non bizi zen galdezka hasi zirela eta berehala eman zioten alkate izateko agindua. Lehen plenoa urriaren 27an egin zuten eta bertan alkateak eta zinegotzi berriek kargua hartu zuten.

Alkatea:	Tiburcio Ascasibar
Zinegotziak:	Bonifacio Pagola
	Luis Aranjuelo
	Fermín Biurrarena
	Marcial Legorburu

Lehen puntua herriko ekonomiak zuen egoera *“tras abandonar los marxistas el pueblo”*. Aipatzen da 15 pezeta azaldu zirela eta horrekin aurrera egingo zutela. Honez gain, ejerzittoa laguntzeko beharra ilkusi zuten eta horregatik 300 pezeta emango zizkieten “Junta del Bando Carlista”ri eta beste horrenbeste “Junta de Defensa Nacional”ari⁴⁴. Gogorarazi behar da 1937ko apirilean “Decreto de Unificación” argitaratu arte bi alde nabarmen izan zirela matxinatuen alderdian eta hala ikusten da Lezoko Udalaren erabakian, guztiak kontent uzteko asmotan. Udal berriaren joera ideologikoa argi uzten duten erabaki esanguratsu batzuk hartu zituzten hurrengo plenoetan:

Plazari izena aldatzea. *“Se ponga el nombre de “Plaza de Santo Cristo”a la que hasta ahora se llamaba Plaza de la Constitución”*⁴⁵. Gaur egun oraindik indarrean dagoen aldaketa.

⁴³ Mola Generalaren diskutsioa 1938/07/31 ⁴⁴ Lezoko Udaleko akta-liburua 1936/10/27 ⁴⁵ Lezoko Udaleko akta-liburua 1936/11/17

Hilerriaren santifikazioa. “*Por haberse extinguido el régimen republicano que dictó la ley de secularización*”⁴⁶.

Hainbat suskripzioren irekiera: “Balears” itsasontzirako, “España” akorazatu berri-rako edota “Pro-aguinaldo del Combatiente”.

Garbiketarako behor bat erostea: “*pues la anterior fué muerta*”⁴⁷. Ez du aipatzen, ordea, behorraz gain, hiru pertsona hil zirela matxinatuek botatako bonba baten eraginez.

Herritarrei emandako laguntzek ere beste bide bat hartu zuten. Kasu guztietan frontean, matxinatuen aldean senarra zuten emakumeei zuzenduta daude eta soldadua etxera itzuli arte ematen ziren. Esate baterako, 36ko azaroan, Recalde-Zarreko Cristina Ledesmari egunero pezeta bat eman zioten “*por tener al marido en el ejército salvador y haber dado a luz*”. Lezon zerga gehien ordaintzen zuena nor zen ere jakin nahi izan zuten eta aktetan aipatzen denez, Hipólito Irazu zen, eta bera izendatu zuten ahaldu “Junta Municipal de Subsidio a familias de combatientes voluntarios” delakoan aritzeko.

1937tik aurrera hasi ziren borrokalariei omenaldiak egiten. Uztailaren 11n plazan egindakoa, adibidez. “Plaza Santo Cristo” izenarekin plaka bat jarri zuten eta bide batez “*los libertadores de las garras rojo separatistas*” omendu zituzten meza eta herri bazkariaren bitartez. Halaber, doluminak bidali zituzten Mola jeneralaren heriotzagatik “*insigne libertador del Norte de España*”. Pentsatzekoa da errepre-saliatuen familiek nola pasatuko zuten omenaldiko egun hura.

Errepresioaren atala ez da gehiegi aipatzen Udal Aktetan, lekukotza zuzenetara jo behar izan dugu horren berri jakiteko. Ikusten den arrasto bakarra profugo-en zerrendak dira, hau da gerrara joateko deitu eta aurkeztu ez ziren herri-tarrak. Aipatuena Fernando Inchaurrendieta izan zen. Askotan deitu eta gero, azkenean “*se le declara prófugo a todos los efectos, condenándole al pago de los gastos que ocasione su captura y conducción*”⁴⁸.

Udalbatza eta alkate aldaketa batzuk ere izan ziren aztertutako urteetan. 1938ko urrian, “Tercer Año Triunfal”, alkate eta zinegotzi berriak izendatu zituen Gobernadore Zibilak, Lezoko Udaltaldea horrela geratu zelarik:

Alkatea:	Regino Salaverría Azcorreta
Zinegotziak:	Florencio Veintemillas Hita
	Santos Urraca Álvarez

⁴⁶ Lezoko Udaleko akta-liburua 1937/01/09 ⁴⁷ Lezoko Udaleko akta-liburua 1936/11/10 ⁴⁸ Lezoko Udaleko akta-liburua 1938/05/05

Ramón Pagola Salaverría
Fermín Biurrarena Vergara
Marcial Legorburu Lizarazu
Angel Irastorza Aldezabal

Garai ilun honetan badira horren beltz ez diren uneak ere. Pleno batean zorianak eman zizkieten Espainiako Hezkuntza ministroari *“por declarar que en plazo breve organizará en los institutos españoles el estudio del idioma vasco y con tal motivo estimularle a que sea un hecho su pensamiento en ese sentido”*⁴⁹. Laster itzuliko zen iluntasuna ordea. Hurrengo plenoan, gaizki-ulertu guztiak azaltzen zituen ministroaren idazkariaren gutuna irakurri zuten, haren benetako asmoa *“dedicar una comisión científica al estudio de la investigación de la Filología”* zelarik, eta ez euskararen zabalpena.

Gerra bukatuta, beste modu batez hartu zen bizitza. Adibidez, soldaduskara joateko lehenengo “prorrogak” onartu zituzten *“por padre sexagenario y pobre”*, ama alarguna izateagatik edo beste anaia soldaduskan edukitzeagatik. Ez zen hainbeste gizonen beharrik.

Beraz, bizitzak aurrera egin zuen eta errepresaliatuek urte luzeak izango zituzten aurretik. Baserri batean, Saizarren hain zuzen ere, akordeoiaz lagundutako dantzaldiak egiteko baimena ukatu egin zuten; oso urrun zegoenez, *“no podríamos vigilarlos”*⁵⁰ argudiatuz. Eusebio Garmendia bikarioak, ordea, Gurutze Santuaren elizako ataria burdin-hesiz ixteko baimena lortu zuen batere arazorik gabe.

Testuinguru honetan gertatu zen liburu honek ardatz duen errepresioa, irabazleei omenaldiak eta galtzaileei egurra. Hauteskunderik ez eta goitik inposatutako alkate eta zinegotziak. Gosea eta beharra. Kartzela eta erbestea. Ezkutuan negar egiteko garaiak. Urte luzeak izan ziren, ilunak eta isilpekoak. Batzuen historia kontatu zuten. Besteena kontatzeko tenorea iritsi dela uste dugu.



Patricio Lopetegui eta bere udal taldea

⁴⁹ Lezoko Udaleko akta liburua 1938/11/22 ⁵⁰ Lezoko Udaleko akta liburua 1941/04/09

[3]

TRAGEDIA ETA TRISKANTZA EGUNAK HERRIAN

HERRI TTIKIA SUFRIKARIO HANDIA

Lezok garai hartan zenbat biztanle zuen zehatz-mehatz jakitea ezinezkoa gertatu zaigun arren, kontsultatutako liburuetan⁵¹ eta datuetan⁵² bederen, 1930ean 2.062 biztanle zirela ageri da, eta 1940an berriz, 2.143 bazirela diote aipatu iturriek. Beraz, 1936-1940 arteko urteetan 2.100 bat laguneko herria izango zela pentsa dezakegu.

LEZOKO 1930KO ZENTSOA	LEZOKO 1940KO ZENTSOA
Varones presentes 1.022	Varones de derecho: 1.068
Hembras presentes 1.001	Hembras de derecho: 1.075
Varones ausentes 3	-
Hembras ausentes 8	-
Transeúntes varones 18	-
Transeúntes hembras 21	-
Población total de hecho 2.062	-
Población total de derecho 2.034	Población total de derecho 2.143

Iturria: INE

⁵¹ Etxezurieta Sarasola, Karlos: Lezo herriaren ikuspegi sozio-ekonomiko-historikoa. Lezo, 1983. (Argitaragabea) ⁵² Instituto Nacional de Estadística (INE)

Halako herri ttiki batentzat, 25 herritar bortxaz desagerraraziak izatea; fusilatuak, erailak eta akabatuak izatea, ikaragarritzko sarraskia eta triskantza izan behar zuen inolako zalantzarik gabe.

ONDORIO LAZGARRIAK

Bistan da 1936ko gerrak ondorio ikaragarria izan zuela gure herrian, eta gertaera haien inguruko isiltasun giroa are handiagoa izan da ondoko 70 urte honetan, hura bizitu eta, izuaren izuz, gogora ekarri nahi izan ez dutenentzat.

Guda guztietan gutxienez bi alde hartzen dute parte. Alde guztietan izan ohi dira bajak, batzuetan zaurituak, bestetan hildakoak. Nahiz eta gehienetan, erasoan ondorioz, borrokaren lehen lerroan erresistentzia egiten dihardutenak gertatu galtzaile edo kaltetu, zenbaitetan herritar xumeak, errugabeak, halabeharrez une zehatz horretan bertan suertatu direnak izaten dira bizia galtzen dutenak edo zauri larriekin gertatzen direnak. Gure herrian ere izan ziren horrelako egoeratan eraildako haur, gaztetxo eta helduak, geroxeago ikusiko dugun bezala.

Gerra piztu zuen matxinada, hasi, uztailaren 18an hasi zen. Handik egun gutxi batzuetara, uztailaren 23an, Nafarroatik zetozen erreketek Altzibarren sartu eta Oiartzun inguruko mendietan ibili ondoren, hilaren 27an agertu ziren erreketek lehen aldikoz Lezoko eremuetan -Erriondo bailarak Oiartzunekin eta Errenteriarekin muga egiten duen aiekatik barrena-, Alfonso Beorlegui y Canet koronela buru zutela, Donostiarako bidea aurkitu eta prestatu nahian.

Erreketek ezin izan zituzten, antza, Oiartzungo mendiak nolnahi zeharkatu eta, Aiako Harritik Oiartzuna jaisteko usuen erabilienak Altzibar eta Pikoketako bideak zirenez, orduan ikasiko zuten, ziurrenik, Pikoketaren berri, eta leku hori erabili ere erabiliko zuten geroxeago, abuztuaren 11n, herritarrak fusilatzeke. Bailarako jende ugari fusilatu zuten bertan.

Oiartzundik honakoan, Errenterian zebiltzan milizianoek egin zieten aurre erreketeei, eta, orduan, bonbaz eta armaz eraso eginez erantzun zuten -Elena Garmendia Pikabeak zioenez, 1936ko abuztuaren 17an, Errenteriako Agustinetako etxe bateko ganbaran ezkutaturik zeudela, bonben, gorpuen eta tiro hotsen artean bete zituen sekula ahaztuko ez zituen bere 17 urteak. Tiroek, haien buruen gainetik pasatzean, pakun! pakun! hotsa egiten omen zuten-.

Erreketeen “avanzadilla”k nonahi zebiltzan eta, egoera hartatik alde egin nahirik, herritar ugari eman zion ihesari. Haietako batean, Errenteriako paper fabrikaren

atzealde horretatik Erriondo bailarara, Miura ingurura zihoazela, Etxetxo base-
rriko etxeoandre María Oyarzabal Lecuona eta haren hiru seme erreketean
bidean gertatu ziren eta tiroz akabatu zituzten lauak. Basakeria, ordea, ez zen
horrekin bukatu, gerora ere bonbaz josiko baitzuten Lezoko herria, herritarren
artein egun berean hiru heriotza eraginez. Egund seinalatuak izango ziren,
dudarik gabe, 1936ko uztailaren 27 eta abuztuaren 26 haiek Lezoko herrian.

Baina tragedia, tragedia izaki eta, beste egund beltz asko jarraitu zitzaizkien,
zoritarrez, bi egund haiei. Horien arteko beste egund seinalatu bat, esate baterako,
irailaren 9a izan zen, honela aipatzen du egund hura **1936 Gerra Zibila Gipuzkoan**
IV. liburukia (177. orr.) liburuak:

"Jaizkibel mendian aldiz, miliziar talde batek ez zuen bere posizioa utzi nahi. Material eta gizonei dagokien ez egoera askoz ere egoera txarragoan egonik ere, ez zuten lur muturrik ere utzi nahi borrokatu gabe. Ez zen inongo batailarik izan ordea, martimulo faxistak birrintzen baitzuen bidean aurkitzen zuen gutzia.

Irailaren 9an, Jaizkibel militarren esku zegoen ofizialki baina, hala ere, miliziar komunista talde txiki batek borrokan jarraitzen zuen, biharamunean, Lezo inguruan, hiru lagun galduz: Celedonio Pérez Serna, Agustín Urbistondo Rekarte eta Antonio Vicente Zapirain.

Lezo herrixka nola hartu zuten ikusgarria izan zen. Gerrako makinaria zirrara-garriak Donostiarantz jo zuen bazterrak begiratu gabe. Garaipenean mozkor-turik, matxinatuek ez zuten beraien tiro eta biba horientzako oztoporik aurkitu. Handikiro ospatutako bestaldi hau Jose Maria Larreta Intxaurrendieta 8 urteko haurrak ordaindu zuen, bala galdu batek jota hil zen eta."

Beraz, egund berean, guztira, 3 lagun erail eta laugarrena hilzorian -egund gutxira hil zen- utzi zuten faxistek gure herrian.

Lezo 1936ko irailaren 13an geratu zen erreketean mende. Ezaguna da herrian goizeko meza bukatu eta bikarioa buru zuela herritar talde bat faxistei ongi etorria egitera Gaintzurizketa aldera joan zeneko pasadizo⁵³.

⁵³ Urkizu Sarasua, Patri: Zoazte hemendik! Susa. Iruñea, 1995 Agirretxe Mitxelena, Joxe Luix: "Irundik Donostiarako gerra-bidean, Lezo" Orratz! 800. 2003ko abendua

GERRA BUKAEZINA

Amaierarik gabeko gerra izan zen gerra ondorena. 1939ko apirilaren lean Francisco Franco jeneralak gerra bukatutzat eman bazuen ere, bere mendeku-espirituak urte luzez jarraitu zuen bizirik eta oraindik ere, era batera edo bestera, gure artean jarraitzen du.

1936ko uztailearen 18ko matxinada faxista zibilen arteko hiru urteko gerraren iturburu izan bazen ere⁵⁴, arestian aipatu gisa, Francok ezarritako diktadurak urte luzez iraun zuen, Francoren mirabe izaten jarraitu baitzuten bizirik geratu ziren gerlariak eta erregimenaren aurkakoak 1950 arte edo. Izan ere, urteak igaro arren, gerran ibilitako gerlari asko eta erregimenaren ustez susmagarri ziren beste asko, Franco Donostiara etortzen zen uda bakoitzean, eta bititak irauten zuen bitartean, preso eramaten zituzten gertueneko kartzeletara. Gehienetan, Donostiako Ondarretako kartzela izaten zen horretarako erabiltzen zena.

TRABAJADORE EDO FRANKISMOAREN ESKLABUAK

Aipamen berezia merezi dute, halaber, *trabajadore*⁵⁵ edo langile batailoiek. Benetako esklabotza baldintzetan lan eginarazten zieten, eta, hauen izerdiari esker eginak dira, besteak beste, Lezotik Hondarribiko Guadalupeko gotorlekura doan Jaizkibelgo errepidea, Arkaleko bidea, Irundik Pagogañarako bidea eta Aritxulegiko errepidea, zigorpeko lanaz eginak alegia. Euskal Herriko eraikuntza lanetan ere presoen izerdiaz baliatu ziren beraz eraikin eta eraikuntza-lan erraldoiak egiteko tenorean. Hala, lan-esku merkeagorik ez zezaketen aurki. Euskal herritar ezezagunez gainera, Espainiako Estatuko eta beste atzerrietako borrokalaria ugariz osaturiko lau batailo egon omen ziren gure herrian bertan, eta ezagunen artean, berriz, Marcelino Camacho⁵⁶ espainiar sindikalista ezaguna aipatu behar dugu, besteak beste. Baina hauen artean ere izan ziren bajak, heriotzak zirela medio, gorxeago ikusiko dugun bezala.

Zer nolako basakeriak jasan behar izan zituzten kontatzen hasita, zeresanik izango lukete garaiko erregimenaren eta indar frankisten aurkako izan eta egun bizirik dirauten lekukoek. Ilea motz-motz egin ondotik, errizino olioarekin igurtzi eta kalean barrena ibiltzera behartuak izan zirenek, esate baterako... Honi guztiari hildakoen senide izatearen sufrimendua erantsiz, barrena husteko premia izango zuen eta du makina batek, baina beldurraren beldurrez, askok, oraindik ere nahia-go dute kontu horiek isilean gorde.

⁵⁴ Euskal Herrian urtebete iraun zuen gerra egoerak. ⁵⁵ Izen honekin dira batez ere ezagunak Lezon frankismoaren esklabo gisa behartutako lanean aritu ziren presoak ⁵⁶ Urte luzetan Espainiako Comisiones Obreras (CCOO) sindikatuaren idazkari nagusia izana

EMAKUMEEN PARTE-HARTZEA

Jakin badakigu bailarako herrietan emakumeak ere aritu zirela faxisten aurka borrokan; frentean, soldadu gisa, eta zigortutakoak ere izan zirela, batzuk heriotza-zigorra eta besteak berriz, kartzelaratuak. Baina hala ere, oso gutxi dakigu gure herriko emakumeei buruz, beste mota bateko borroka batean aritu izan balira bezala. Gehienak, EAJ/PNV alderdi politikokoak ziren, batzuk emakume taldeak antolatzen, hau da, EAB (Emakume Abertzale Batza) deiturikoan aritu ziren, beste batzuk aldiz, Margaritas⁵⁷ deituriko taldean, eta ale batzuk, azkenik, errepublika-noekin borrokan edota haiei laguntzen.

Margaritas izenaz ezagunak ziren emakumeen eginkizuna zaurituen arretara mugatzen bazen, EABko emakumeen eginkizuna askoz ere zabalagoa izan zen; alderdiaren aldeko propaganda lanetan aritzea, euskal kulturaren transmisio lanetan, dantzak irakatsi eta dantza taldeak sortzea... Eta antzerkiarekin ere gauza bera, antzerki emanaldiak egiten zituzten -aurrena igandetan herrian eta gero herriz herri ibiltzen ziren-, ikastolak sortu, gudariei lagundu... Hitz gutxitan esateko, abertzaletasunaren eta Euskal Herriaren aldeko ekimenetako ezinbesteko partaide aktibo ziren.



Beraz, gogora ekarri nahi ditugu garai hartan herri ekintzetan partaide izan ziren neska eta emakume herritarrak ere. Ez ditugu ahaztu nahi euskaraz aritzeagatik, pospolin dantzak erakusteagatik, antzerkigintzan aritzeagatik, edota, euskal kul-

⁵⁷ Gizarte Nazionalaren mobilizazioaren eragile zen emakume taldea. Erretaguardiaren gizarte mobilizazioa, koadramendua, familiaren tutoritza lanak Mugimenduak zioenez, "emakumeari zegokion lanak" egiteaz arduratzen ziren. Hala ere, kasu askotan propaganda lanak egiten zituzten eta frentean bertan soldaduei laguntza eman ere bai.

turaren irakasle izateagatik, edo dena delako ekimen klasean herria maitatzen irakasteagatik zigortuak izan ziren emakume haiek guztiak: Gezalatarrak, Rosa Berasarte, Manoli Korta, Frantxixka Azkue, Norberta Albisu, Maria Egibar,... Azken bi hauek, esate baterako, kartzelara bidaliak -Bilboko kartzelara bata eta Iruñekora bestea- eta han heriotza-zigorrera kondenatuak izan ziren.

Horrezaz gain, familia asko eta asko -eta familia diogunean ere emakumeei buruz ari gara nagusiki, jakina, hauek baitziren familiaren ardatz- gudari, borrokalari, soldadu eta trabajadoreen aterpe eta babes izan ziren. Haiei mesede eginez, arropak garbituz, janariak eginez, etxeetan hartuz eta babestuz lagundu zituzten emakumeek.

Adibide gisa, eta sortutako harreman horri esker, soldaduekin eta kanpotik etorritako *trabajadore* deituriko gizaseme zigortuekin ezkondu ziren herritarrak ezagutu ditugu. María Olasagasti Nieto (1909-1997) adibidez, Ramón Adolfo Guerrero Cadavieco (1918-1995) asturiarrarekin; edota Mercedes Narvarte Garmendia (1923-2007), lezoarra hau ere, Manuel Domingo Puigvert (1919-2002) katalanarekin ezkondu eta Manolo eta Xabierren guraso zirenak, Mayi Arriaga Garmendia (1922-1981) lezoarra 1947ko apirilaren 26an Gordexolako (Bizkaia) Juan Manuel Castresana Berazarekin (1920) ezkondu eta 2 alabaren (Begoña eta Arantxa) gurasoak eta abar.

GERRAONDOKO ZIGORRAK ETA MENDEKU GIROA

Pixkanaka-pixkanaka, urteek aurrera egin ahala, agintari frankistak zigorrak zertxobait arinduz joan ziren eta gerraren hasieran bat-bateko heriotza-zigorra erabiltzen zuten bezala -jendea edozein aitzakia jarri eta epaiketarik gabe hiltzen zuten-, gerora, heriotza-zigorrak, kartzela zigor bilakatuko zituzten. Esan beharrik ez dago kartzelak jendez mukuru zeudela. Bururaino eraman ez ziren heriotza-zigorrera kondenatutako herritarrak ere aipatu nahi ditugu, eskuartean ditugun datuen arabera: Juanito Berasarte, Hilari Retenaga, Norberta Albisu, Elixabete Gezala eta nola ez EABko idazkari izan zen Maria Egibar Sein anderea besteak beste.

Egoera hartan, bistan da, herritar asko ihes egin beharrean gertatu zen, eta lezoar ugari ditugu, Kataluniara, Espainia aldera, Frantziara edota Belgikara joandakoak. Batzuetan familia osoak eta bestetan, berriz, familiako kide bat edo beste.

Denak ez ziren berehalakoan itzuli; batzuk denbora gutxiren buruan eta besteak aldiz, Europa aldera, edo Frantziara jo zutenak kasu, 1940 inguruan naziek Frantzia hartu zutenean sortu zitzaizkien arazo eta oztopoak zirela medio, nola edo hala,

etxerako bidea egiten hasi ziren. Etxeratu zirenean, LRP legearen argitan eta *Tribunal Regional de Responsabilidades Políticas* izeneko Tribunalaren irizpideen arabera, batzuk zigortu egin zituzten ihesi joateagatik. Miren Guezalaren kasua aipa genezake adibidez: "*Desterrada de Lezo, por un periodo de 15 años, fuera de las Provincias Vascongadas a 250 Kms. de las mismas y multa de 1.000 ptas. e inhabilitada en su profesión*"⁵⁸. Beste batzuetan isunak zirela medio, edota bestetan berriz, bestelako edozein zigor motarekin -herrira itzultzean lanik gabe utzita edota lehengo lantegira itzultzean, soldata murriztuta lan egin beharra, gutxiago kobratuz, alegia. María López "Cordero"ren kasua bereziki deigarria da zigor modu hauez ari garelarik. Berari legez zegokion soldata erreklamatu zuelako kartzelan sartu zuten urtebeterako-edo-. Mutilen kasuan soldaduskako urteak luzatu ere egiten zizkieten... Eta beste hamaika zigor modu. Hala jokatu zuten, zernahi mugimendu zigortu eta jendearengan izua sortuz, beldurraren beldurrez, hitz egitea bera ere delitutzat hartzeraino askotan.

Lezoko herria, beste edozein herri bezala, ideologia desberdinetako jendez osatua zegoen. Joera nagusiak hauek ziren jendetsuenetik hasita; EAJ/PNV, Errepublikanoak eta Karlistak, azken hauek Francoren alde jarri ziren eta hauen jarraitzaile ziren herritarrek ere altxamenduaren aldekoekin bat egin zuten. Azken hauen ideien aldekoak zirenen artean izen batzuk aipatzearren, José Miguel Salaverria Azcorreta (1875-1937), Juan José (1870-1937) eta Benito (1871-1937) Inchaurrandieta Isasa anaiak aipa genitzake, hirurak 1937ko urtarrilaren 4an Bilbon fusilatua, baina beste bandokoak ez bezala, "*Caballero de España*"⁵⁹ dominaz saritutako merituen jabe egin eta errekonozituak izan zirenak, goiko elizako eskuinaldeko atarian urtetan egon zen plakan ongi irakur zitekeen gisa -haien ondorengo eta senitartekoez hainbat pribilejio eta onura izan zituzten haien zerbitzuen ordainetan-. Beraz, hain herri ttikia izanik, izugarriak ziren auzokideen arteko liskar eta ezinikusiak. Eta agintariak, apaizak eta edozein auzokide izan zitekeen bata bestearen salatari. Salatari edo salatzaile izateagatik-edo larrutik ordaindu zuenik ere bada; Santos Urraca Álvarez (1897-1941) esaterako. Zinegotzi frankista izandakoa eta erreketek amorratua, Cantabriako Nojan sortu eta Lezoko Donibane kaleko 6an bizi zena. Burezurra txikituta akabatu zuen norbaitek tren geltokiaren inguruan. Bestalde, inolako motiborik gabe, edo besterik gabe, abertzale zirelako agian -hori delitua zen orduan-, Nicolás Garmendia Picabea eta Pedro José Lecuona Garmendia kartzelan sartu zituzten koadrilako lagun bategi salatuta. Beraz, zernahi izan zitekeen auzokidea edota hurkoa salatzeke arrazoi, askotan inbiriagatik eta politikarekin zerikusirik ez zuten kontuengatik; lurrak, etxeak, eta abar zirela medio, esate baterako. Agintarien aurrean salaketa faltsua egin, izenak eman eta, hala, zigorrak ezartzen zizkieten salatutakoei.

⁵⁸ Miren Guezalaren lekukotzatik hartutako pasartea ⁵⁹ Francoren erregimenak gudan Por Dios y por España bizia eman zutenei ematen zien domina edo tituluak

Miren Guezala irakasleak honela dio bere lekukotzan:

“STV/ELAK indar dezente zuen gure herrian. Gure anaia Luix bertako idazkari izandakoa zen eta zigortu ere egin zuten. Jaizkibelgo trabajadoreetan egon zen eta buruko ile guztiak zero-ra ebaki eta mezetara joateko kalean formatuak jaisten zirenean, ama leihotik begira negarrez egoten zen hura ikustean,...”

Carlos Micolalde Jáuregui (Antzuola, 1892-Lezo, 1978) eta honen antzera beste hainbat gizon heldu ere, behartuta, instrukzioa egiten ibiltzen omen ziren kaleetan barrena.

Apaizez mintzatzerakoan, aipagarria iruditu zaigu Miren Guezalak esan ziguna, herritarren artean ere ezaguna zen "Kaskarrilo" esaten zioten apaizaren kasua esate ba-terako: Don Luis Inchaurrendieta Arreche (1904-1947) herriko semea. Apaiztu ondotik Getariara apaiz joan eta bertako elizako aldarean erori eta golpearren ondorioz hil zena. Elias Salaverria pintorearen etxean bizitu zen -lehengusu baitziren-. Apaiz hau Juan Jose Inchaurrendietaren semea zen eta aitaren ideologia berekoa, karlista alegia, eta hau ere ez omen zen atzean geratu herriko abertzaleen aurka egiteko garaian. Miren Guezalak honela dio:

“Guk hemendik alde egin genuenean ihesi, gure etxeko mahaiak eta mueble guztiak Don Luis -Kaskarrilo- horrek hartu eta eraman zituen, dena kendu zigun. Eta gure pianoa Falangera eraman zuten -Batzokia zegoen egoitzara, falangistek hartu zutelako-. Eta Miguel Salaverria, albaitaria, jarri zen falangekoen buru eta honekin ere ibili ginen eztabaidan pianoa ez zigulako entregatu nahi, eta azkenean Donostiara jo genuen gauzak itzultzeko ardura zuen militar bategana eta hark gutun bat idatzi zion Miguel Salaverriari halako egunerako itzultzeko pianoa eta hala entregatu zuen, baina txiki-txiki egina zegoen eta pusketan-pusketan jaitsi behar izan genuen. Gure aita salatu ere salatu zuen Don Luis honek”

“Beste kasua, berriz, bonba egunekoa da, gerra denboran hemen bonbak bota eta bota eta horietako batek Felix Arriaga, Esperantxa Sein eta Carmen Ginto Echenique haurra hil zituen, izugarritzko sarraskia gertatu zen. Hauek kanposantuan lurperatu eta Don Luis hau jendearekin hizketan heldu zela bueltakoan, bonba bota zutenen alde hasi zen hizketan eta jendea, berriz, aurka jarri zitzaion. Gure kontra hizketan...”

“Ezin da horrela mintzatu apaiz batez baina oso, oso gaizki portatu zen gurekin, abertzaleekin. Azkenean barkamena eskatzera behartu zuten,... eta, en fin! Hobe ahanzte!!”

Errepublikan aldarrikatu zenetik, eta lehenagotik ere egosten ari zen gorroto politikoa, nolabait esatearren, bestelako inbiri eta gorrotoekin nahastu zen salda edo ore hilgarria eginez. Berrogei urtetik gora iraun zuen beldur eta mesfidantza aroa hasi zen herrian. Itxura eta errealtate ofiziala, bat zen, garaileen Espainia berria, eta azpikoa beste bat, sufrimendu isila eta bizimodua aurrera atera beharra.



Centro Republicano zegoeneko etxea Donibane kalean

Viva Cristo Rey J.H.S. Viva España Católica

Lero e 22-1-70

Al Sr. Frunc Guerele
Lero-

Acabo de recibir la nota:

Con demasiadas exigencias: Bien que saber que dichos meses, muchísimo más, debían de haber estado requisados desde el primer día, por ser de personas responsables que "actuaron" contra el Movimiento Católico, y responsables como el que más, de haber sufrido por secuestración, cárcel y martirio personas inocentes de Lero.

Dichos Meses además proceden de la escuela, todo lo católico que se quiere, pero separatista.

Nuestros padres, fueron llevados por malos motivos a la cárcel y a los 67 años sufrieron horrores o martirio.

Estoy aquí con grandes deudas, y todo por hacer cuanto puede por la Juventud de Lero, y no puedo pagar tanto ni mucho menos, los meses, que a ~~estape~~ Lero, a no ser por nosotros, hubieran estado tal vez deshechos.

Pueden llevar a donde quieran. Allí queda el Tribunal de Responsabilidades que en su día aclarará la cuestión. Nada más. Luis Inchaurregui



FRANKISMOAREN BIKTIMAK

HERRIAN GERTATUTAKO ERAILTZEAK

Herrian gertatutako erailtzeak kronologikoki ordenatu ditugu eta ez alfabetikoki beste guztiak aurkituko dituzuen moduan. Egoki iruditu zaigu gerra-kronologia gisa azaltzea, duen balio historikoagatik batez ere.

1936KO UZTAILAK 27 (ETXETXO BASERRIKO AMA, 3 SEMEREKIN)

OYARZABAL LECUONA *María* - 48 urteko andre errenteriarra, Francisco Usabiagarekin esposatua eta Lezoko "Etxetxo" baserrian bizi zena. Miura baserrira babes bila zihoala, bere hiru semerekin batera, tiroz eraila, eta gero, Mauser fusilek muturrean zuten baionetaz pasea.

USABIAGA OYARZABAL *Domingo* - Etxetxo baserriko 24 urteko gazte lezoarra, ezkongabea eta eraildako hiru semeetan zaharrena. Su-armaz eraila eta baionetaz pasea.

USABIAGA OYARZABAL *Crisóstomo Enrique* - Etxetxo baserriko 20 urteko gazte lezoarra, ezkongabea eta eraildako senideetan bigarrena. Su-armaz eraila eta baionetaz pasea.

USABIAGA OYARZABAL Sebastián - Etxetxo baserriko 17 urteko gazte lezoarra, ezkongabea eta semeetan gazteena. Hau ere, besteak bezala, su-armaz eraila eta baionetaz pasea.

1936KO ABUZTUAK 26

ARRIAGA ZAPIRAIN Félix - 53 urteko lezoarra. Lanbidez kalegarbitzailea. Manuela Garmendiarekin esposatua eta, hil zenean, lau seme-alabaren aita: Patricio, Inés, Vicenta eta Maddi. Donibane kaleko “Centro Republicano”ren aurrean⁶⁰ lanean ari zela bonbaz eraila, lanerako erabiltzen zuen behor eta guzti.

SEIN GARMENDIA Esperanza - 21 urteko gazte lezoarra. Sebastián Sein eta Inés Garmendiaren alaba. Hau ere kale garbitzailearekin batera bonbaz akabatua, abuztuaren 26an Donibane kaleko “Centro Republicano”ren aurrean gertaturiko bonbardaketa zela medio.

GINTO ECHENIQUE Cármen - 2 urteko haurra, Donibane kalean eroritako bonba berak eragindako zauriak zirela medio hila.

1936KO IRAILAK 4

LARREA ICHASO Alfonso - Gaintxurizketan eraildako bilbotarra. CNTko Miliziak taldeko milizianoa.

1936KO IRAILAK 9

PÉREZ SERNA Celedonio - Jaizkibelen eraildako pasaitarra. PSOE/UGTko kidea eta Pablo Iglesias konpainiako milizianoa.

VICENTE ZAPIRAIN Antonio - Jaizkibelen eraildako pasaitarra. JS/UGTko kidea eta Pablo Iglesias konpainiako milizianoa.

1936KO IRAILAK 10

URBISTONDO RECARTE Agustín - Jaizkibelen eraildako tolosarra. Errusia batailoiko milizianoa.

⁶⁰ Egun, Donibane kaleko 12. zenbakia duen eraikina dagoen horretan zegoen “Centro Republicano” izeneko errepublikazaleen egoitza. Egoitza haren aurrealdean erori zen hegazkin batek botatako lehergailua

HERNÁNDEZ RANERO Constantino - 1896ko apirilaren 12an Bizkaiko Gueñesen jaioa eta Tolosan bizi zena. Errusia batailoiko milizianoa. Jaizkibelen eraila.

1936KO IRAILAK 15

LARRETA INCHAURRANDIETA José María - 8 urteko mutikoa. Joaquín eta Ángelaren semea. Faxistek, herrian sartu eta herria hartu zutela ospatzeko, egin-dako tiroetako batek jo zuen Donibane kalean. Egun batzuk egoera larrian egin ondotik hil zen. “Gerra-armen zauriz hila” dio bere heriotza-agirian.

1936KO URRIAK 17

ELOSÚA LIZARAZU Marcelino - 1918ko uztailaren 20an Errekalde baserrian jaioa. José María eta Aquilinarene semea. 18 urte zituela Gaintxurizketan eraila.

1937KO IRAILAK 6

ELOSÚA LIZARAZU José Francisco - 1913ko martxoaren 17an Errekalde baserrian jaioa, José María eta Aquilinarene semea. Larrañaga batailoiko milizianoa. 24 urte zituela Gaintxurizketan eraila.

1940KO OTSAILAK 26

MARTÍNEZ POSADA Angel Fidel - 25 urteko gijondarra (Asturias), María Gonzálezekin ezkondua eta Bilbon bizi zena. 2. Langile-batailoiko mekanikaria. Fusil jaurtigaiez eraila.

1940KO MAIATZAK 3

CORRAL ALCALÁ Carlos - Jaéngo Cazorlan jaiotako 25 urteko gizaseme gaztea. Ezkondua. 2. Langile-batailoaren kanpamenduan fusil jaurtigaiez eraila.

1946KO IRAILAK 3

GUTIÉRREZ GARCÍA Adolfo - Kantabriako Pendesen jaiotako 22 urteko gaztea. Okina. Herriko destakamendu militarrean jasandako arma-zaurien ondorioz zendua.



HERRITIK KANPO ERAILDAKO LEZOARRAK

ALDAY MICHELENA Juan Bautista - Herriko Torrejil baserrian bizi zen 34 urteko oiartzuarra. 1902an Ugaldetxoko LartxaLarre baserrian sortua. María Portugal Arocenaren senarra eta 3 alabaren aita: Margarita, Josefa eta Milagros. 1936ko urriaren 13an Hernanin fusilatua.

ARIZAGA OYARZABAL José María - Darieta baserrian bizi zen 23 urteko mutil nafarra, ezkongabea. 1938ko martxoaren 28an Zaragozako ospitalean hil zen gerrako zauriak zirela medio.

GARMENDIA URCELAYETA Juan María - Sarasti baserriko semea. 28 urteko mutil ezkongabea. Juan M^a eta Modestaren semea. Frankistek frentera eramán eta zauritua gertatu zen. 1939ko abenduaren 30ean Cerrola-Villanuevan hil zen gerran jasan zituen zaurien eraginez.

GAZTELUMENDI LEGORBURU José - 1937ko abenduaren 8an, 35 urte zituela Hernanin fusilatutako herritarra⁶¹. Ez dugu beste daturik.

INSAUSTI MARTÍNEZ José Manuel - 49 urteko herritarra. Real Compañía Asturiana De Minaseko (Kaputxinoak) langilea. Manoli Ormabururekin ezkondua eta, hil zutenean, sei seme-alabaren aita (José, M^a Carmen, Manuel, Ignacio, M^a Pilar eta Juan M^a) 1936ko urriaren 6an Hernanin fusilatua.

⁶¹ Egaña, Iñaki: 1936 Gerra Zibila Euskal Herrian IV. liburukia

IRAZU LOPETEGUI José Manuel - 1911ko ekainaren 25ean Darieta baserrian jaioa. José Agustín eta Josefa Antoniaren semea. Gerran desagertua, eta familiaren ustetan, agi danez, Artxanda mendian gudari zebilela eraila.

LECUONA GARMENDIA Pedro José - 1917ko otsailaren 21ean Lezon jaioa. José Juan eta Luisaren semea. Ezkongabea. Koadrilako baten salaketaren ondorioz kartzelan egona. Soldaduska egiten ari zela Teruelgo frentera eraman eta han hila 1939ko urtarrilaren 19an.

LECUONA LANDA Juan Domingo - 1897ko abuztuaren 4an Lezon jaioa. José Ignacio eta Franciscaren semea. Pasaiako portuko langilea. 1939ko maiatzaren 31n Donostian fusilatua.

LEGORBURU TOLEDO José Manuel - 1913ko azaroaren 29an Iriartene baserrian jaioa. Marcial eta Josefa Antoniaren semea. Ezkongabea. Behartuta frentera eraman eta Teruelen hila.

LIZARAZU ARAMBURU José León - Patxillabordako 21 urteko mutil gaztea. José Miguel eta Mariáren semea. Ezkongabea. Soldaduskan zela, kanpainan jasotako zauriak zirela medio, 1938ko ekainaren 30ean Castellongo ospitalean zendua.

MAISO MAGAÑA Angel - Erreterian jaiotako herritarra. Francisca eta Juanen semea. UGTko kidea eta Pablo Iglesias konpainiako milizianoa. Bilbon frentean zebilela eraila.

MAYORA GOITIA José Francisco - 28 urteko lezoarra. Telleri-ondo baserrikoa. Lodosan atxilotu eta Iruñean fusilatu zuten 1936ko azaroaren 6an.

NARVARTE GARMENDIA Estanislao - 1915eko apirilaren 30ean Lezon jaioa. Francisco eta Ramonaren semea. UGTko kidea eta Pablo Iglesias konpainiako milizianoa. 22 urte zituela, 1937ko maiatzaren 15ean Bizkargiko frentean eraila.

PÉREZ ARRIETA Santos - Errepublikazalea izateagatik Donostiako Ondarretako kartzelan zigorturik zegoela, 1938ko abuztuaren 8an, bertan eraila. Lezoko Udaleko “Gerra zibilean hildakoen familiak jaso beharreko pentsioen eskaerak” txostenetik jaso. Alaba, Avelina Pérez Azcárate, herritarra.

ZABALETA AYESTARÁN Martín - 1914ko abuztuaren 6an Bonotxo baserrian sortua. Victoriano eta Juana Mariáren semea. Frentera eramana eta bertan hila. Beste daturik ez dugu.



Joxe Intxaurrendieta gudaria "La Roserie" ospitalean gerrako zaurietatik sendatzen

ZAURIAK ETA ZIGOR GOGORRAK JASANDAKO LEZOARRAK

Aguirre Zaizar José Manuel - 1900eko otsailaren 17an Urrulloko baserrian jaioa eta 1945eko urtarrilaren 27an Rosa Zabaleta Ayestaránekin ezkondua. Kartzelaratua -arrazoia ez dakigu-. 1967ko maiatzaren 11n bere etxean zendua.

Aguirre Zaizar Vicente - 1902ko azaroaren 15ean Urrulloko baserrian jaioa. Ezkongabea. Atzerriratua eta gerran zauritu eta besoa moztutakoa⁶². "La Rosarie" ospitalean egon zen. 1962ko abenduaren 30ean hil zen.

Aguirrezabal Trincado Miguel - Donostiako Ondarretako kartzelan preso egon ondoren epaitu gabea⁶³ -preso egoteko arrazoia ez dakigu-. Lezoarra omen zen, baina ez dago hori ziurtatzen duen agiririk. Ez dugu datu gehiago.

Alberdi Unamuno Martín - 1904ko azaroaren 11n Lezon jaio eta Getariara ezkondua. Atentatu saiakera bat jasan zuen, huts egin zuena hala ere. "Atentado frustrado contra un joven nacionalista" idatzi omen zuten garai hartako egunkarietan -Miren Gezalak kontatuta dakigu hau-. Erbesteratua -apaiz jantzita egin omen zuen ihes- eta herrira etortzea debekatua zuen. Miren Amonarrizekin ezkondua eta 3 alabaren (Angelita, Arantza eta Bibiana) aita. 1984ko abenduaren 26an hil zen Gipuzkoako Getarian.

Albisu Urdampilleta Norberta - 1910eko irailaren 22an Oiartzunen jaioa. 1940ko urtarrilaren 10ean Julio Eguibar Seinekin ezkondu eta 5 seme-alabaren (Bonifacio, Ana Mari, Aranzazu +, Jose M^a eta Iciar) ama. Heriotza zigorrera kondenatu zuten baina ez zen burura eraman. Bilboko kartzelan zigortuta preso egona. 1988ko apirilaren 28an Bordatxo Txiki baserrian zendu zen.

Aldabe Uralde Juan - Lezoko Zerupetarren familiakoa. Mundaka inguruan frentean zauritua. Ez dugu datu gehiago eskuratu.

Alonso Ceballos Ángela Martina - 1936ko abenduan senarra fusilatu zioten Cáceresko Garciaz herrian⁶⁴. Ez dugu beste daturik.

Altuna Antonia - Zigortutako herriko maistra erbesteratua. Ez dugu beste daturik.

Alunda Urrutia Benito - 1917ko urtarrilaren 12an Nafarroako Zubietan jaiotako herritarra. Isabel Arana Dadierekin ezkondua eta hiru seme-alabaren (Antonio,

⁶² Sabino Arana Fundazioko Abertzaletasunaren Artxiboa ⁶³ Sabino Arana Fundazioko Abertzaletasunaren Artxiboa⁶⁴ Lezoko Udal Agiritgia: "Gerra zibilean hildakoen familiak jaso beharreko pentsioen eskaerak"

Guadalupe eta Manuela) aita. Gurseko (Frantzia) kontzentrazio-esparrura zigortuta bidalia⁶⁵. 1980ko irailaren 27an hil zen Lezon.

Antolín Fernández Ramón Roberto - 1920ko urriaren 22an Kantabriako Suancesen jaiotako herritarra. Ramón eta Agripinaren semea. Aiako Harrian langile batailoietan ibilia. María Pérezekin ezkondua. Ez zuten seme-alabarik izan. Egun, Astigarragako zaharren egoitzan bizi da.

Areitio Arberas Eustaquio⁶⁶ - 1921eko abenduaren 14an Durangon jaio eta hiru urte zituela Lezora etorria. Santoñan preso hartu eta Laredon, Miranda de Ebron eta Burgosen preso egona. Burgosen trabajadore egon zen zigortuta. Restituta Hualderekin ezkondu eta 4 seme-alabaren aita: Jose Luis, Kristina, Joan Kruz eta Luis Fernando. 2007ko azaroaren 2an Lezon zendua.

Arrastua Ayestarán Juan José - 1908ko martxoaren 12an Juanmartindegi base-rrian jaioa. José María eta Juana Josefaren semea. Ezkongabea. Gerrako zauriz Jaizkibelen elbarritua. Bilboko eta Asturiaseko kartzelatan egona eta Oiartzungo Goñik isunaren truke askatua. 1981eko uztailaren 6an hil zen Juanotene baserrian.

Arriaga Goenaga Patricio - 1907ko abuztuaren 9an Lezon jaioa. Félix eta Doloresen semea. Ondarretako kartzelan preso egona. Ana Ugalderekin Erreenteria ezkondua.

Arrieta Legorburu José M^a - 1907ko apirilaren 22an Lezon jaioa. Jose Miguel eta Sebastianaren semea. Atzerriratu eta 1971ko urtarrilaren 10ean Hendaian zendua⁶⁷.

Azcue Sistiaga María Encarnación - 1904ko abuztuaren 23an Lezon jaioa. Juan José eta Anselmaren alaba. 1927ko otsailaren 26an José Carmelo Picabea Bengoechearekin ezkondu eta 3 seme-alabaren (José †, Arantzazu † eta Edurne) ama. Hiru hilabetez gutxienez Ondarretan preso egona. Madrilen hil zen, egun bizi diren ahaideek ez dakite ziur zein urtetan.

Berasarte Galarraga Francisco - 1898ko azaroaren 29an Lezon jaioa. Kartzelaratu. Oiartzungo Francisca Arambururekin ezkondua. 1973ko urtarri-laren 20an hil zen bere etxean.

Berasarte Galarraga Juan Domingo - 1906ko abuztuaren 3an Lezon jaioa eta 1947ko maiatzaren 12an Marcelina Zurutuza Zalacáinekin ezkondua. 1936an, gerra hasi zenean, Bilbora egin zuen ihes eta Euzko Jaurlaritza sortu berriak

⁶⁵ Sabino Arana Fundazioko Abertzaletasunaren Artxiboa ⁶⁶ Liburuaren azken atalean bere lekukotza aurkituko duzue ⁶⁷ Sabino Arana Fundazioko Abertzaletasunaren Artxiboa

Ertzaintza sortzeko deia egin zuenean, boluntario aurkeztu zen. CAMPSaren instalakuntzen zaintza lanetan ari zela, preso hartu zuten faxistek. Murgiako "Padres Paules" konbentuan eta segidan Carmeliten konbentuan egon zen preso. Handik 18 hilabetera, Gasteizko Seminaria eraman zuten eta azkenik, epaiketa egiteko bezperatan, Gasteizko Kartzela Probintzialera. 1941eko maiatzaren 28an Gerra Kontseilua egin zioten eta heriotza-zigorra ezarri zioten. Zigor hori 30 urteko kartzelaldiaz aldatu zioten eta azkenik 5 urteko zigorrera jaitsi zioten. Ordurako lau urte kartzelan eginak zituenez, hurrengo egunean aske geratu zen astero Erretereriako Guardia Zibiletan aurkezteko baldintzapean. 1987ko maiatzaren 17an hil zen.

Beristain Garmendia Pedro - 1914ko otsailaren 22an Azkoitian jaiotako herritarra. 1944ko urriaren 12an Paulina Ayerza Mendizabalekin ezkondu eta 3 semearen (Angel, Javier eta José Luis) aita. Atxilotu eta erbesteratua. 1964ko abenduaren 10ean hil zen Lezon.

Castresana Beraza Juan Manuel - 1920an Gordexolan (Bizkaia) jaioa. Lezora zigorturik trabajadore ekarria. 1947ko apirilaren 26an Mayi Arriaga Garmendiarekin ezkondu eta 2 alabaren (Begoña eta Arantxa) aita. Egun, Gordexolan bizi da.

Ceberio Jaca Genaro - 1905eko irailaren 19an Etxarri Aranatzen (Nafarroa) jaiotako herritarra. Haurra zela Tolosara joana. 1943ko maiatzaren 12an Manuela Corta Sarasola lezoarrarekin ezkondua eta 3 seme-alabaren (José Antonio, Arantza eta M^a Carmen+) aita. Bilboko "Cinturón de hierro" famatuan hartu zuten preso. Geroztik, hainbat lekutan egon zen, aurrena trabajadore; Sopelan eta Somorrostron, eta gero preso; San Pedro de Cardeñan (Burgos), Palencian eta Gasteizko "El Carmelo"n. 1940an atera zen kartzelatik. 1989ko maiatzaren 22an hil zen Lezon.

Cordero Corral Vicente - 1914an Erreterian jaioa. 1941ean Toribia Azpiroz Indacochearekin ezkondua. Sei seme-alabaren (Itziar, Juan Mari, Bittori, Margari, Josefina eta Mikel) aita. Teruelgo kartzelan preso egona. 1989ko ekainaren 26an Lezon zendua.

Corta Sarasola Antonio - 1917ko apirilaren 22an Lezon jaioa. 1943ko urriaren 16an María Arana Bengoechearekin (Miravalles 1917- Lezo 2005) Arrigorriagan ezkondua. Bi semearen aita (Joxe Mari eta Anjel). Trabajadore Sopelan eta Somorrostron egona. San Pedro de Cardeñan (Burgos) eta Palencian preso egona. 1975eko abuztuaren 31n hil zen Lezon.

De la Fuente Rodríguez Nicolasa - 1894ko abenduaren 24an Leongo Cerezal herrian sortutako herritarra. Román Espina Tristaneekin ezkondu eta 5 seme

alabaren (M^a Luisa, Francisco, M^a Pilar, M^a Carmen eta Piedad Araceli) ama. Bere seme-alabekin batera Donostia, Bilbo eta Ortuellara ihesi joana, Luisita Echegarayrekin batera. Itzuli zenean, -Pili Espina, alabak, dioenez- kanpoan egin-dako denborari zegokion etxeko alokairua ordaintzeko zuela eta, Luis Aranjuelok ordaintzeko eskatu zion eta sosik ez zuelako etxetik kanpora bidali zuten, eta orduan, Pasamonteseneko etxean jarri ziren bizitzen alokairu merkeago bat ordainduz. 1959ko urtarrilaren 20an hil zen Lezon.

De la Fuente Santiago Mateo – 1894ko irailaren 21ean Palencian jaioa. Policarpo eta Mónicaen semea. Matilde Canorekin ezkondua. Jaizkibelgo Guadalupeko gotorlekuan preso egona. Datu gehiago ez dugu.

Díaz Asúa Carolina - 1900eko martxoaren 9an Santanderko Ríocinen jaiotako herritarra. 1922ko urtarrilaren 21ean Eugenio García Motarekin ezkondu eta 3 seme-alabaren (José María, Regino eta María Teresa) ama. Frantziara erbesteratua izan zen seme-alabekin batera. 1957ko martxoaren 17an, 57 urte zituela, Lezoko bere etxean zendua.

Domingo Puigvert Manuel - 1919an Lleidako Seros-en jaioa. Zigortuta Jaizkibelera trabajadore ekarria. 1941eko otsailaren 3an Mercedes Narvarte Garmendiarekin ezkondu eta 2 semeren (Manolo eta Xabier) aita. 2002ko ekainaren 5ean hil zen Bartzelonan.

Echegaray Narvarte Juana - 1930ean Erreterian jaiotako herritarra. José Antonio eta M^a Luisaren alaba. Bere senideekin batera 1937ko maiatzaren 23an Britainia Handira "Habana" itsasontzian atzerriratu. 1957an Nicolás Unanuerekin ezkondua eta 5 seme-alabaren (Ramón Cruz, Francisco Javier, M^a Rosa, Jose Antonio eta Aitor) ama.

Echegaray Narvarte María Luisa - 1915ean Erreterian jaiotako herritarra. José Antonio eta María Luisaren alaba. Hiru hilabetez Ondarretako kartzelan preso egona. 1945eko azaroaren 22an Fermin Crespo Ledesmarekin ezkondu eta seme baten (José Antonio) ama. Egun, Erreterian bizi da.

Echegaray Narvarte María Rosa - 1927an Erreterian jaiotako herritarra. José Antonio eta María Luisaren alaba. Bere senideekin batera, 1937ko maiatzaren 23an, "Habana" itsasontzian, Britainia Handira atzerriratu. Ezkongabea eta 1956ko azaroaren 11n Lezon zendua.

Echegaray Narvarte Ramón - 1932ko azaroaren 12an Lezon jaioa. José Antonio eta María Luisaren semea. Ezkongabea. Amarekin batera atzerriratu. 1955eko ekainaren 13an hil zen Lezon.

Eguibar Sein María Magdalena - 1900eko uztailaren 21ean Lezon jaioa. Placido eta Hilariaren alaba. Ezkongabea. Errenteriako Manuela Jiménez eta Oartzungo Valentina Goñirekin batera Iruñeko kartzelan heriotza-zigorrera kondenatua, gero isuna ezarri zioten heriotza-zigorraren orde. 1977ko ekainaren 2an Bordatxo Txiki baserrian zendu zen.

Elosúa Lizarazu Regino - 1921eko azaroaren 21ean Lezoko Errekalde Zar baserrian jaioa. José María eta Mariaren semea. Atzerriratu⁶⁸.

Esnal Irazusta Juan José - 1904ko irailaren 29an Lezon jaioa. Francisco eta Concepciónen semea. Frentera behartuta eraman, han elbarritu eta gero atzerriratu. 1980ko azaroaren 1ean Baionan zendua⁶⁹.

Espina Toquero Pablo - 1908an Palenciako Baltanasen jaiotako herritarra. Román eta Teresaren semea. Bilbon atxilotu eta Santoñan eta Burgosen langile batailoietan ibilia. Askatu eta hilabete batzuetara hil zen Lezon 32 urte zituela, 1940ko martxoaren 13an. Arreba Pilik dioenez, zauriz lehertua etxeratu zen eta hiltzorian zela, "Me han dado más ostias que a Cristo" errepikatzen omen zuen.

Fernández Gallo Ricardo - Gurseko (Frantzia) kontzentrazio-esparrura zigortuta bidalitako 41 urteko herriko maisua⁷⁰. Datu gehiago ez dugu.

Fernández Osés Victor - 1904ko apirilaren 14an Arronizen (Nafarroa) jaiotako herritarra. Luis eta Petraren semea. 1932ko otsailean Donostiako San Inazio elizan Irene Ochoa Urrarekin ezkondu eta lau seme-alabaren (José Luis, Ana M^a, Victor + eta Jesús Mari) aita. Frentean ibili ondotik, Gijóndik (Asturias) Sables de Oloronera (Frantzia) alde egin zuen "Josefa Mari" itsasontzian, eta handik Kataluniara joan zen gero. Frentean tiro batek jo zuen besoan eta han zegoen Bilboko familia batek zaindu zuen. Gerra bukatzera zihoala preso hartu zuten eta Port Bou-tik barrera kontzentrazio esparru bihurtuta zegoen Argeles Sur Mer (Frantzia) herriko hondartzara eraman zuten. Kontzentrazio esparru honetatik Gurs-era eraman zuten. Gurs-etik Saboia Garaiko ikatz mehatze batera eraman zuten lanera. Osasun egoera kaxkarra zela medio, handik nekazaritza etxalde batera eraman zuten lanera -arbiak eta gurina besterik jaten ez zuten lekua-. 1942an itzuli zen herrira. Lezon hil zen 1981eko irailaren 7an.

Figueira Rodiño Edelmiro - Pontevedran jaiotako herritarra. Josefa Ayerdi Monjerekin ezkondu eta bi seme-alabaren (Norberto eta M^a Cármen) aita. Pontevedran gerran elbarritua -datu gehiago ez dugu-. 1962ko apirilaren 29an Lezon hila.

⁶⁸ Sabino Arana Fundazioko Abertzaletasunaren Artxiboa ⁶⁹ Sabino Arana Fundazioko Abertzaletasunaren Artxiboa ⁷⁰ Sabino Arana Fundazioko Abertzaletasunaren Artxiboa

García De la Fuente Maximiliano - 1921eko urriaren 3an Palentziako Orbón-en jaioa. 1946ko abuztuaren 17an Rosa García Lizarragarekin ezkondu eta lau seme-alabaren (Alberto, Rosa M^a, M^a Carmen eta Raquel) aita. Bilboko frentean atxilotu eta Donostiako Ondarretako kartzelan preso egona. 1978ko maiatzaren 26an Lezon hila.

García Díaz Regino - 1926ko urtarrilaren 18an Lezon jaioa. Eugenio eta Carolinaren semea. 1950ean M^a Luisa Antolín Fernándezekin ezkondu eta bi seme-alabaren (Milagros eta Roberto) aita. Santanderera, Bilbora eta Ribadesellara aurrena eta gero ikatz-itsasontzi batean Bordelera ihes egin eta handik Romans-era joana. Han denboraldi bat igaro ondotik, Montelimar-en (Frantzia) atzerriratua egona. Azkenik, Bartzelonara joan ziren eta handik etxera itzuli ziren.

García García María Esther - 1925eko maiatzaren 11n Lezon jaioa. Severianoren eta Ángelaren alaba. Haurra zela, Errusiara (SESB) -haurrak eramateko antolatutako ebakuazioan- eramana bere beste bi ahizpa zaharragoekin (Cármen eta Isabel). 1954ko maiatzaren 11n Errenteriarra (Gipuzkoa) ezkondua. Ez dugu beste daturik.

García Lizarraga Manuel - 1919an Tolosan jaiotako herritarra. Alberto eta Restitutaren semea. Atzerriratua. 1948ko urriaren 7an Margarita Ayerza Sarasolarekin ezkondu eta bi seme-alabaren (Juan Manuel + eta Izaskunen) aita. 2008an hila.

García Lizarraga Rosa⁷¹ - 1925ean Tolosan jaiotako herritarra. 1946ko abuztuaren 17an Maximiliano García De la Fuenterekin ezkondu eta lau seme-alabaren (Alberto, Rosa, M^a Carmen eta Raquel) ama. Frantziara eta Kataluniara atzerriratua.

García Moreno Alberto - 1892an Errioxako San Asension jaioa eta Restituta Lizarragarekin ezkondua. Rosa eta Manoloren aita. Zigortuta kartzelan egona. 1946ko ekainaren 10ean Lezon hila.

García Mota Eugenio - 1898an Tolosan jaiotako herritarra. Carolina Díaz Asúarekin ezkondu eta hiru seme-alabaren (José M^a, Regino eta Teresa) aita. Errepublikazalea. Santoñako, Bilboko Eskolapioetako eta Ondarretako kartzelatan lau urtez preso egona. 1982ko maiatzaren 20an, 84 urte zituela Lezon zendua.

García Mota Isidora - 1901ean Donostian jaiotako herritarra. 1922ko azaroaren 16an Lorenzo Ruiz Cerverarekin ezkondua eta 4 seme-alabaren (Vicente, Antonio, Esther eta José Ignacio) ama. Seme-alabekin batera Frantziara ihesi joana. 1983ko irailaren 29an Lezon zendua.

⁷¹ Liburuaren azken atalean bere lekukotza aurkituko duzue

Garmendia Picabea Nicolás - 1916ko irailaren 20an Lezon jaioa. Margarita Azcuerekin ezkondu eta bi alabaren (Belen eta M^a Antonia) aita. Gerran bala bat sartu zioten gorputzean eta urte luzez gorputzean geldirik izan zuen arren, 54 urte zituela mugitu eta haren ondorioz hil zen. Ondarretako kartzelan zigortuta preso egona koadrilako lagun baten salaketaren ondorioz. 1971ko martxoaren 11n hil zen Erreterian.

Gaztañaga Esnaola José Ramón - 1907ko martxoaren 25ean Beasainen jaiotako herritarra. Juan Ignacio eta Franciscaren semea. Gordexola batailoiko gudaria. Bilbo, San Pedro de Cardaña (Burgos), Ávila eta Guadalajarako karteletan preso egona. Enriqueta Quintana Sagachagarekin ezkondua eta 4 seme-alabaren (Felicitas, M^a Milagros, José Antonio eta José Angel) aita. 1969ko urtarrilaren 12an hil zen Lezon.

Gaztelumendi Legorburu José María - 1907ko otsailaren 1ean Lezon jaioa. Jose Manuel eta Juana Josefaren semea. Heriotza-zigorreka kondenatua. 1964ko urriaren 6an zendu zen Erreterian. Ez dugu beste daturik.

Gaztelumendi Legorburu Juan José - 1889ko uztailaren 22an Lezon jaioa. Madrilen eta Katalunian barrena ibili ondotik, Gurseko (Frantzia) kontzentrazio-esparrura zigortuta bidalia⁷². Ez dugu beste daturik.

Gómez Santamaría Hermenegildo - 33 urteko herritarra. Gurseko (Frantzia) kontzentrazio-esparrura zigortuta bidalia⁷³. Ez dugu beste daturik.

Guerrero Cadavieco Ramón Adolfo - 1918ko irailaren 9an Gijonen (Asturias) jaiotako herritarra. Jaizkibelera zigortuta trabajadore ekarria. Ondarretako kartzelan ere egona. 1941eko otsailaren 12an Maria Olasagasti Nietorekin ezkondu zen. Ez zuten seme-alabarik izan. 1995eko urriaren 5ean hil zen.

Guezala Garmendia Florencio - 1882ko urtarrilaren 8an Lezon jaioa. 1903ko uztailaren 6an Bárbara Sagarzazu Legorbururekin ezkondua. Bederatzi seme-alabaren (Irene, Regino, Luis, Luke, Miren, Elisabete, Koldobike Polentzi eta Sabin) aita. Atzerriratua izan zen. 1955eko apirilaren 29an hil zen Alai Etxen.

Guezala Sagarzazu Irene Francisca - 1904ko apirilaren 5ean Lezon jaioa. 1943ko irailaren 18an Calixto Pedro Bienvenido Goyenechea Sánchez-Pastorrekin ezkondua. EABko kidea. Atzerriratua. 1974ko apirilaren 18an Donostian zendua.

⁷² Sabino Arana Fundazioko Abertzaletasunaren Artxiboa Egaña, Iñaki: 1936 Gerra Zibila Euskal Herrian VIII. liburukia ⁷³ Sabino Arana Fundazioko Abertzaletasunaren Artxiboa

Guezala Sagarzazu Regino Pastor- 1907ko abuztuaren 5ean Lezon jaioa. Erbesteratua. Guadalupe Aranorekin ezkondu eta 3 seme-alabaren (Romana, Javier eta Josune) aita. 1988ko abenduaren 19an Donostian zendua.

Guezala Sagarzazu José Luis Antonino (Luis)- 1909ko urriaren 31n Lezon jaioa. Trabajadore batailoietan 3 urtez zigortuta egona. Jaizkibelgo errepidea egiten aritzeaz gain, beste 3 urtez kartzelan egona -Aske utzi zutenean, hain desitxuratua egon behar zuen, etxera joan zenean, amak ere ez zuen ezagutu, eta atea ireki zionean, ama oihuka hasi omen zitzaion: lapurra! Lapurra! Benetako lapurra zelakoan. Horrelaxe kontatu digu bere alabak-. Josefa Legorburu Manterolarekin ezkondua eta 3 seme-alabaren (Maite, Koldo eta José Mari) aita. 1981eko abuztuaren 2an Oiartzunen zendua.

Guezala Sagarzazu Lucía Estefanía (Luke)- 1910eko abenduaren 13an Lezon jaioa. Erbesteratua izan zen. Gerra ondorengo herriko ikastolaren sortzaileetakoa. Ezkongabea. 2000ko uztailaren 29an Alai Etxen zendua.

Guezala Sagarzazu María Patrocinio Josefa (Miren)⁷⁴ - 1912ko azaroaren 12an Lezon jaioa. Erbesteratua izan zen. Herriko lehenengo ikastolaren sortzaile eta irakaslea. Desterrura zigortua. Ezkongabea. 2003ko apirilaren 15ean Oiartzunen zendua.

Guezala Sagarzazu Miren Elisabete Inese - 1915eko urtarrilaren 21ean Lezon jaioa. Erbesteratua eta Ondarretako kartzelan 3 urtez kartzelan egona eta heriotza-zigorrrera kondenatua. Ezkongabea. 1998ko martxoaren 14an Alai Etxen zendua.

Guezala Sagarzazu Sorne Garbiñe Koldobike - 1917ko abenduaren 7an Lezon jaioa. Erbesteratua izan zen. Ezkongabea. 2002ko urriaren 17an Alai Etxen zendua.

Guezala Sagarzazu Florencio Cecilio Gregorio (Polentzi) - 1919ko azaroaren 20an Lezon jaioa. Erbesteratua izan zen. 1960ko ekainaren 25ean Anne M. Bonnax-ekin Parisen ezkondua eta 2 semeren (Pierre eta Jean Marie) aita. 2008ko otsailaren 22an Paben (Frantzia) zendua.

Guezala Sagarzazu Sabin Iñaki (Xabin) - 1922ko martxoaren 24an Lezon jaioa. Donibane Lohizunera erbesteratua izan zen ebakuazio antolatuan. Pepi Ganzarainekin ezkondua eta 2 semeren (Xabin eta Jon) aita. 1963ko urtarrilaren 27an Miarritzen ezbeharrez zendua.

González Rivas Elvira - Haurrak atzerrira eramateko antolatutako ebakuazioan

⁷⁴ Liburuaren azken atalean bere lekukotza aurkituko duzue

Baudour-era (Belgika) eramana⁷⁵. Ez dugu beste inolako daturik.

Herrera Gorriti Teresa - 1923ko maiatzaren 25ean Lezon jaioa. Fermin Arrayagorekin ezkondu eta 3 seme-alabaren (Maite, Juan José eta María Isabel) ama. Frantzia eta Kataluniara atzerriratua. 1997ko abenduaren 5ean Lezon zendua.

Igarzabal Victoria - Zigortuta atzerriratutako herriko maistra. Ez dugu datu gehiagorik.

Inchaurrandieta Echenique José - 1912ko apirilaren 22an Lezon jaioa eta Ignacia Arbelaz Auzarekin ezkondua. Bi seme-alabaren (Xabier eta Amaia) aita. Gudan zauritu, elbarritu eta atzerriratua⁷⁶. “La Rosarie” ospitalean egon zen. 1993ko apirilaren 20an hil zen Lezon.

Inchaurrandieta Lizarazu Fernando - 1913ko maiatzaren 30ean Lezon jaioa. Manuel Inchaurrandieta Isasa eta Agustina Lizarazu Larbururen semea. 1956ko uztailaren 6an Pepita Salaberriarekin ezkondua. Belgikara atzerriratua. Bi seme-alabaren (Mari José eta Juan Manuel) aita. 1980ko ekainaren 11n bere etxean zendua.

Insausti Ormaburu José - 1920ko uztailaren 7an Lezon jaioa. José Manuel eta Manolinen semea. Oso gazterik frentera behartuta eramana. Gero atzerriratua eta 1987ko apirilaren 10ean Frantziako Lillen zendua⁷⁷.

Iparraguirre Mancisidor Fabián⁷⁸ - 1917ko urtarrilaren 20an Pasai Donibanen jaioa. 1948eko urriaren 1ean Juanita Herrera lezoarrarekin ezkondua. Hiru seme-alabaren (Joaquín, Inmaculada eta M^a Asun) aita. Laredon tropa faxista italiarrek preso hartu eta, zigortuta, hainbat lekutan trabajadore ibilia; Zaragoza, Biscarrués, Sariñena eta Almancillas. Trabajadore ibili ondotik, Bilboko Escolapioetan preso egona. Gero Francoren armadak soldaduskara deitu eta trabajadore aritu zen berriz ere Andaluzian. Egun, Lezoko Kale Nagusian bizi da.

Isasa Echeverría Ignacio - 1907ko martxoaren 10ean Lezon jaioa. Ertzain motorizatua. Jaizkibelen, zigortuta, trabajadore ibili ondotik, 1944an Juana Lopetegui Salaverriarekin ezkondu eta 3 semeren (Iñaki, Juan Mauricio eta Patxi Xabier) aita. 1989ko martxoaren 9an hil zen Ibai-ondo etxean.

Labordeta Santos Josefa - 1906an Nafarroako Iruritan jaiotako Lezoko herritarra. Cayetano eta Carmenen alaba. 1936an Carlos Narvarte Retegui oiartzuarrearekin ezkondu eta 5 seme-alabaren (María-Belén, Miguel Ramón, Jesús

⁷⁵ Iñaki Egañaren artxibotik hartutako informazioa ⁷⁶ Sabino Arana Fundazioko Abertzaletasunaren Artxiboa ⁷⁷ Sabino Arana Fundazioko Abertzaletasunaren Artxiboa ⁷⁸ Liburuaren azken atalean bere lekukotza aurkituko duzue

Antonio, Cecilia eta Juan Carlos) ama. Herritar baten salaketa zela medio hiru hilabetez Ondarretan preso egona.

Labordeta Santos Juan - 1914an Nafarroako Iruritan jaiotako Lezoko herritarra. Lola Vergara Morentinekin ezkondua eta hiru seme-alabaren (M^a Sol, Juan Mari eta Jorge) aita. Bilboko Escolapioetan preso egona. 1986ko abuztuaren 16an hil zen Lezon.

Larrea Lopetegui José Antonio - 1920ko uztailaren 15ean Lezon jaioa. 1954ko azaroaren 27an Luisa Eustaquia Arruti Legorbururekin ezkondua eta seme baten (José Antonio) aita. 1936ko abenduaren 8an Iruñera behartuta eramana eta handik Chinchillara (Albacete), 13 hilabete pasa zituen gerran -Etxera gaixorik larri ekarri zuten, ahotik odola zeriola. Amak goseari egotzi zion egoera hura eta taloa eta esnea jaten eman eta ospitalera eraman zuten. Osatu zenean, soldaduskara eraman zuten eta handik etorrira, burua galdu zuen. Burua galduta zegoela, gerrako kontuak errosarioa bezala esaten zituela dio bere arreba Ritak-. Gerran, fronte berean, bere beste bi anaiekin gertatu zen kasualitatez, Blasekin eta Nicolásekin. 1980ko ekainaren 10ean Lezon hila.

Las Heras Zamorano María - 1892ko irailaren 8an Tuteran sortua. Vicente Cordero Arambururekin ezkondu eta bost alabaren (Tomasa, Teresa, Antonia, M^a Rosa eta Carmen) ama. Ama-alaba guztiak atzerriratu egin ziren. 1936ko uztailan Zarauztik Bilbora, eta gero, "La Habana" itsas ontzi famatuan Frantziako Tours aldera eta Belgikako mugara joanak. Hiru urteren bueltan, 1939an, etorri ziren berriro Lezora.

Lecuona Sagardía Juan Ignacio - 1916an Erreterian jaiotako herritarra. Gerran balaz zauritu eta Zaragozako ospitalean hanka moztutakoa. 1943ko abuztuaren 19an Juliana Lizarazu Arambururekin ezkondua. Ez dugu datu gehiago.

Lizarraga Bengoechea Restituta - 1896ko ekainaren 10ean Irunen jaiotako herritarra. Alberto Garcíarekin ezkondu eta bi seme-alabaren (Rosa eta Manolo) ama. Alaba Rosarekin batera, Frantzia eta Kataluniara atzerriratu. 1978ko ekainaren 1ean hil zen Lezon.

López Castillejo María Trinidad - 1904ko maiatzaren 29an Palenciako Vertabillo del Cerrato-n jaioa. 1926ko apirilaren 21ean José Cordero Arambururekin ezkondua. Zazpi seme-alabaren (Tomasa, M^a Angeles, Luciano, Ignacio, M^a Coro, Milagros, Maribel) ama. Seme-alabekin batera Santanderrera eta Frantziako Talencera atzerriratu. Urtebetez kartzelan preso egona. 1998ko azaroaren 19an Lezon zendua.⁷⁹

⁷⁹ Egaña, Iñaki: 1936 Gerra Zibila Euskal Herrian VIII. liburukia

Magaña Marín Francisca - 1890ean Errioxako Huercanosen jaiotako herritarra. Juan Maiso Nágerarekin ezkondua eta bost seme-alabaren (Serena†, M^a Purificación, Angel†,- Luis eta Antonia) ama. Bere seme-alabekin eta alaba zaharrenaren bi haurrekin (M^a Ángeles eta Tomas Cordero Maiso) batera, Bilbora lehenik eta Frantziako Bordelera gero, atzerriratua. Gerra bukatu zenean, Lezora itzuli eta 1960ko otsailaren 29an bere etxean zendua.

Mecolalde Jaúregui Carlos - 1892ko azaroaren 4an Antzuolan jaiotako herritarra. Jaizkibelen trabadore aritzera zigortua. Maria Garbizu Salaverriarekin ezkondu eta 4 seme-alabaren (Elena, Manuel, María eta Nicolás) aita. 1978ko abenduaren 28an hil zen Alai Etxen.

Montes Susperregui Manuel - 1896ko apirilaren 25ean Irunen jaiotako herritarra. Dominica Ugartemendia Aramendirekin ezkondu eta 4 seme-alabaren (Dolores, Asunción, Ramón eta Jesús M^a) aita. Familia osoa erbesteratua izan zen, batzuk Frantziara eta besteak Errusiara. 1965eko ekainaren 24an zendu zen Lezoko bere etxean.

Pagola Iriarte Claudia - Bartzelonara erbesteratutako⁸⁰ herritarra. Ez dugu datu gehiago.

Pérez Oyarzabal Remigio - 1922ko otsailaren 24an Lezoko Errekalden jaioa. Sixto eta Mariaren semea. Atzerriratua eta 2002ko abenduaren 31n Frantziako Toulousen zendua⁸¹. Ez dugu datu gehiago.

Puga González Aniceto - 1917ko abuztuaren 30ean Salamancako Vilvestren jaiotako herritarra. Amelia Barrasa Sáenz De La Torrerekin ezkondu eta bi alabaren (Amelia eta M^a Coro) aita. Hiru urte trabadore batailoietan (Santoña, Laredo, Sigüenza eta Toledo) zigortuta egon ondotik etxeratua. 2003ko uztailaren 30ean hil zen Lezon.

Ramos González Florentina - 1902ko martxoaren 2an Valladolideko Alaejos-en jaioa. Patricio Martín Lópezekin ezkondu eta 4 seme-alabaren (Benita, Lucía, Concepción eta José Antonio) ama. Seme-alabekin batera Pasai Donibaneko PYSBen “Plus Ultra” itsasontzian sartu eta Bilbora eramana - Bilbon, ACHA Lezoko lantegiko nagusien etxean egon omen ziren- eta gero Portugaletetik atera eta Frantzian barna ibiliak. 1971ko ekainaren 21ean hil zen Lezon.

Rebollo Herrero Apolinar - Herritar atzerriratua⁸². Ez dugu beste daturik.

⁸⁰ Egaña, Iñaki: 1936 Gerra Zibila Euskal Herrian VIII. liburukia ⁸¹ Sabino Arana Fundazioko Abertzaletasunaren Artxiboa ⁸² Sabino Arana Fundazioko Abertzaletasunaren Artxiboa

Retenaga Bengoa Guillermo - 1907 uztailaren 1ean Donostian jaioa eta 1934ko azaroren 5ean Francisca Azcue Sistiagarekin ezkondua. Alaba baten (Gurutze) aita. Kartzelaratua. 1988ko azaroaren 5ean hil zen Lezon.

Retenaga Bengoa Hilario - 1912an Gasteizen (Araba) jaioa. Tomasa Cordero Las Herasekin ezkonduetako herritarra. Bi alabaren aita (Izaskun + eta M^a Carmen). Heriotza-zigorrera kondenatua. 1990eko martxoaren 5ean hil zen.

Rodríguez Pérez Jesús - 1916an Gipuzkoako Getarian sortua eta errenteriarra bihotzez. Zigortuta trabajadore ekarria. 1942ko ekainaren 1ean Lezoko Arantzazu Bengoechea Olaizolarekin ezkondu eta bost seme-alabaren (José Miguel, Aurora, Francisco Javier, Begoña eta Mari Cármen) aita. 1998ko urtarrilaren 8an Pasai Donibanen zendua.

Saizar Toledo José - 1909ko urtarrilaren 19an jaio zen Aritz-bakar baserrian. Zigortuta trabajadore ibili ondotik Maria Caballerorekin Altzara ezkondua. 1968ko martxoaren 28an hil zen bere etxean.

Salaverría Inchaurrendieta Zenón - 1892ko uztailaren 9an Lezon jaioa. 1921eko urtarrilaren 4an Aquilina Isasa Irastorzarekin ezkondua. Ez zuten seme-alabarik izan. Atzerriratua. 1968ko maiatzaren 21ean hil zen Lezon.

Salaverría Legorburu Prudencio - 1916ko irailaren 8an Lezon jaioa. José Mari eta Mariaren semea. Ezkongabea. Gerra komisaldegiko kidea. Marinela. Brameko (Frantzia) kontzentrazio-esparrura zigortuta bidalia⁸³. Frantzian hil zen.

Salaverría Urquía Elías - 1919ko irailaren 19an Madrilén jaioa. Elías -pintorea eta Joaquínaren semea. Ondarretako kartzelan preso egona eta Argentinara atzerriratua. Teresa Ibarгойen Oxaranekin ezkondua eta seme baten (Joaquín) aita. 1993ko abenduaren 5ean hil zen Donostian.

Santos Pérez Cármen - 1876ko azaroaren 20an Salamancako Fregenadan jaioa. Cayetano Labordeta Rodríguezekin ezkondu eta 6 seme-alabaren (Félix, Josefa, Juan, Flora, Feliciano eta Cármen) ama. Bere alabekin Frantziara ihesi joana. 1961eko abuztuaren 14an Lezon zendua.

Sistiaga Garmendia Atanasia - 1918ko ekainaren 21ean Lezon jaioa. Antonio eta Ignaciaren alaba. Atzerriratua⁸⁵. Beste daturik ez dugu.

⁸³ Sabino Arana Fundazioko Abertzaletasunaren Artxiboa ⁸⁴ Egaña, Iñaki: 1936 Gerra Zibila Euskal Herrian VIII. liburukia. Gerrako Protagonistak ⁸⁵ Sabino Arana Fundazioko Abertzaletasunaren Artxiboa

Taberna Urtizberea Domingo - 1911ko urriaren 11n Lezon jaioa. Errefuxiatutako lezoar marinela. Datu gehiagorik ez dugu.

Tolosa Uriarte Ignacio M^a - 1895eko martxoaren 31n Altzan jaioa. 1930eko martxoaren lean Teresa Cordero Arambururekin ezkondua. Santoñan preso egona. Ez zuten seme-alabarik izan. 1964ko urtarrilaren 22an hil zen.

Trecu Salaverría Estefanía - Madrildik Kataluniara erbesteratua⁸⁶ antolatutako ebakuazio batean. Ez dugu beste daturik.

Trujillo José - Lezoarra. Frantziara atzerriratu⁸⁷. Ez dugu beste daturik.

Unzain Furundarena Agustín - 1913ko urriaren 30ean Lezon jaio eta Vicenta Zapiain Iraolarekin ezkondua. Hiru alabaren aita (Anttoni, Begoña eta Maixabel). Kartzelan egona. 1972ko maiatzaren 5ean hil zen.

Urquizu Marichalar Patricio - 1906ko maiatzaren 10ean Lezon jaioa. Joaquín eta M^a Luisaren semea. 1930eko maiatzaren 15ean M^a Luisa Sarasua Leundarekin ezkondua eta bost seme-alabaren (Mari Cruz, Joseba, Iñaki, Joaquín eta Patricio) aita. Lau urtez atzerriratu egon zen. Gero herrira etorri zenean, eta Franco Donostiara etortzen zen aldiro udaletxeko kalabozoetara joan behar izaten zuen lo egitera. 1983ko uztailaren 28an hil zen.

Urquizu Michelena José Cruz - 1914ko abuztuaren 22an Peliar baserrian sortua. José Joaquín eta Teresaren semea. 1947an Teresa Urroz Tellechearekin ezkondu eta 3 seme-alabaren (Maria Luisa, Juan Mari, Mari Carmen) aita. Teruelgo frentera behartuta eramana -bera eta bere kideko baserriar gazte batzuk frentera eramana izateko beldurrez Jaizkibelen ahuntz-zulo batean gordeta egon ziren ardi zaharra janz. Gero, handik Pasai Donibanera jaitsi omen ziren itsasontziz ihes egiteko asmotan, baina hantxe harrapatu eta Teruelgo frentera eraman zituzten. Batailoi diferenteetara, ordea. Berekin Urrulloko Luis Zabaleta egon omen zen fronte beretan, Mari Cármen alabak kontatu digunez. Frentetik ekarri eta gero trabajadore Jaizkibelen egona, pinuak aldatzen eta bestelako lanak egiten. Frentetik katarro sendaezinarekin etorri zela kontatu digu, halaber, Mari Cármenek. 2006ko otsailaren 20an hil zen Peliarren.

Urquizu Michelena Gregorio - 1911ko ekainaren 8an Peliarren sortua. José Joaquín eta Teresaren semea. 1960ko urriaren 12an Josefa Lecuona Sagardiarekin ezkondua. Behartuta frentera eramana. 2002ko uztailaren 9an Lezon hila.

⁸⁶ Egaña, Iñaki: 1936 Gerra Zibila Euskal Herrian VIII. liburukia

⁸⁷ Sabino Arana Fundazioko Abertzaletasunaren Artxiboa

Vergara Morentin M^a Dolores - 1915eko urriaren 22an Nafarroako Lodosan jaioa. 1936ko abuztuaren 5ean Iruñean kartzelaratu eta heriotza-zigorrera kondenatua. Juan Labordeta Santosekin ezkondua eta 3 seme-alabaren (M^a Soledad, Juan M^a eta Jorge) ama. 2004ko ekainaren 1ean Lezon zendua⁸⁸.

Dena den, aipatu beharra dugu tragediaren erdian umorea sekula ez zutela galdu eta bizitzen ari ziren egoerari aurre egiten jakin zuten, nork bere dohaiak aterez. Hona hemen, adibide gisa, Lola Vergara herritarrak kartzelaratu zutenean egin-dako jota:

*“El día 5 de agosto
en el año treintaseis
nos han llevau a la cárcel
y aún no sabemos porqué.
Esta cárcel de Pamplona
es una gran prisión
donde se mueren los presos
por la falta de atención.”*

Villarrubia Pinto Isaac - 1919ko apirilaren 3an Palenciako Hérmedes de Cerraton jaioa. Melchor eta Asunciónen semea. Santoñako kartzelan 3 urtez preso egona. Handik atera zenean, soldadu joan eta lau urtez “Batallón de Ingenieros N^o 1” delakoan egona. Zazpi urteren buruan itzuli zen etxera. 1956ko abenduaren 7an M^a Teresa Munarriz Corderorekin ezkondu eta bi mutilen (Juan Jesús eta Isaac) aita. 1988ko ekainaren 8an hil zen Lezon.

Villarrubia Pinto Felicísimo - 1920an Palenciako Hérmedes de Cerraton jaioa. Melchor eta Asunciónen semea. Julia Palacios Pérezekin ezkondu eta 2 seme-alabaren (María Jesús eta Melchor Ignacio) aita. Batailoi disziplinarioan egona. 1999ko azaroaren 16an zendua.

Zabaleta Larrea Luis - 1914ko maiatzaren 5ean Urrulloko baserrian jaioa. José Blas eta Manuelaren semea. Behartuta Teruelgo frentera eramana. 1944ko ekainaren 14an Juana Salaverría Azarolarekin ezkondua. 1981eko urriaren 19an hil zen Lezon. Ez dugu datu gehiago.

Zapirain Dambolenea Anastasio - 1897ko abenduaren 19an Lezon jaioa. Francisco eta Romanaren semea. 1940ko urriaren 17an M^a Pilar Lecuona Echavegurenekin ezkondua eta 3 seme-alabaren (M^a Aránzazu, José Antonio eta

⁸⁸ Batzuen artean: Navarra 1936

Ramón Ignacio) aita. Gerra piztu zenean, Bilbora ihes egin eta Frantzian erbesteatua. Denbora batera Bilbora itzuli zen eta frankistek preso eraman zuten Santanderrera. Hango zezen-plazan zegoela, ezagun baten bidez ateratzea lortu zuen eta Elgoibarrera joan zen. Elgoibarren polizia bat galdeketa egiten aritu zitzaion nongoa zen atera nahian. Lezokoa zela jakin zuenean, hemengo alkate Tiburcio Ascasibarri informea eskatu zion polizia hark. Ascasibarrek informe ona egin zion eta herrira itzuli zen. Errenterian lanean hasi zenean, ordea, atxilotu egin zuten eta Ondarretako kartzelan urtebete pasa egin zuen. Gerora, Franco Donostiara etortzen zen aldiro, gaua pasatzera joan behar izaten zuen udaletxeko ziegara beste askorekin batera. 1971ko urtarrilaren 27an hil zen Lezon.

Zurutuza Albizu Salustiano - Bilboko Larrinaga kartzelan preso egon ondotik, epaitu gabe, libre utzitako 35 urteko lezoarra⁸⁹. Ez dago bestelako daturik.



⁸⁹ Batzuen artean: Navarra 1936



2007ko irailaren 23an Lezoko biktimei eginiko omenaldia

[5]

GUDARI ETA MILIZIANOAK

Beraz, altxamenduaren aurkakoez osatzen zituzten taldeetako batzuk PNV-EA]ko (Partido Nacionalista Vasco), ANV-EAEko (Acción Nacionalista Vasca) -hauek oso gutxi ziren Lezo- eta STVko (Solidaridad de Trabajadores Vascos) kideek osatuak ziren, gudariak izenez ezagutzen zirenak, alegia, eta besteak berriz, milizianoak, Errepublikaren defendatzaile sutsuak. Gure herrian ere denetarik izaki herritarren artean eta jaso ditugun izenak eta haiei buruz ikasi ditugunak aipatuko ditugu. Nahita ere, denak ez ditugula aipatuko badakigun arren, balio bezate lerrook aipatu gabe geratzen direnak ere oroitzeko eta ohoratzeko. Horiek ere gerrara joan beharrekin edo parte hartu beharrekin edota herrian egoera penagarrian bizi beharrekin zigortuak izan zirelako.

GERRAN BATAILOIETAN ETA "FRENTE POPULARREAN" IBILITAKO HERRITARRAK

Aguirre Zaizar Vicente - EA]ko kidea. Saseta batailoiko gudaria⁹⁰.

Alberdi Unamuno Martín - EA]ko kide aktiboa. Oso abertzalea omen zen.

⁹⁰ Sabino Arana Fundazioko Abertzaletasunaren Artxiboa

Albisu Urdampilleta Norberta - EABko (Emakume Abertzale Batza) kidea.

Aldabe Uralde Juan - Saseta batailoiko kapitaina. EAJko kidea.

Alunda Urrutia Benito - Bakunin batailoiko milizianoa. Ez dugu datu gehiago⁹¹.

Areitio Arberas Eustaquio - Itxarkundia batailoiko gudaria.

Areitio Arberas Teodoro - 1916ko urtarrilaren 17an Eibarren jaio eta Lezoko Saizar baserrian bizi zena. Eugenia Berastegui Maizarekin ezkondua eta alaba baten (M^a Guadalupe) aita. Larrañaga batailoiko milizianoa. 1961eko irailaren 3an hil zen Lezon.

Arrastua Ayestarán Juan José - EAJko gudaria.

Arregui Iturzaeta José Buenaventura - 1913ko apirilaren 6an jaiotako zarauztarra. Loiola batailoiko gudaria. 1950eko apirilaren 20an Trinidad Garmendia Guezalarekin ezkondua eta 3 seme-alabaren (Olatz, Jaione eta Claudio) aita. 1976ko urtarrilaren 25ean hil zen Lezon.

Arrese Ruiz Miguel - 1911n Antzuolan jaio eta Lezon bizi zena. Catalina Lamarianorekin ezkondu eta hiru seme-alabaren (Piedad, José Miguel eta Elisabet) aita. Itxarkundia batailoiko gudaria. EAJko kidea. 1990eko urriaren 1ean Lezon zendua.

Arriaga Goenaga Patricio - EAJko gudaria.

Ascasibar Pagola Trinidad - 1918ko maiatzaren 27an Lezon jaioa. Tiburcio eta Alejandraren semea. Bermeon sartuta, Itxarkundia batailoiko Irrintzi konpainian gudari ibilia. Lehenik, Juana Mancisidorrekin ezkondua eta 3 seme-alabaren (Félix+, M^a Lourdes eta Benjamín) aita, eta bigarrenez, Pepita Berridirekin ezkondua. 1995eko martxoaren 18an hil zen Lezon.

Azcue Sistiaga María Encarnación - EABko kidea.

Francisco Berasarte Galarraga - EAJko kidea.

Berasarte Galarraga Juan Domingo - Itxarkundiako gudaria. EAJko kidea.

Berasarte Galarraga Rosa - 1904ko abuztuaren 20an Lezon jaioa. José Simón eta

⁹¹ Sabino Arana Fundazioko Abertzaletasunaren Artxiboa

Josefaren alaba. EAJ eta EABko kidea. Ezkongabea. 1997ko uztailaren 18an hil zen Alai Etxen.

Cordero Corral Vicente - EAJko kidea.

Corta Sarasola Antonio - 1917ko apirilaren 22an Lezon jaioa eta María Arana Bengoechearekin ezkondua. Bi semeren aita (José Mari eta Angel). EAJko kidea. 1975eko abuztuaren 31n hil zen Lezon.

De la Fuente Cano Anastasio - 1923ko apirilaren 15ean Hernanin jaioa. Mateo eta Matildereren semea. Milizianoa. Ezkongabea. Lezoko Vista Alegre etxean hil zen 1967ko irailaren 19an.

De la Fuente Santiago Mateo - MAOC-Guipúzcoa taldeko milizianoa.

Díaz Asúa Carolina - Pasaiako UGTko lehendakaria altxamendu faxista hasi zen garaian.

Eguibar Sein Lorenza - 1903ko otsailaren 11n Lezon jaioa. Placido eta Hilariaren alaba. Ezkongabea. EAJko eta EABko (Emakume Abertzale Batza) kidea. 1999ko abuztuaren 31n hil zen Lezon.

Eguibar Sein María Magdalena - EAJko kidea eta EABko (Emakume Abertzale Batza) idazkaria.

Espina Toquero Pablo - EAE-ANVko gudaria.

Fernández Osés Victor - PSOEko kidea eta Larrañaga batailoiko milizianoa. Gipuzkoa, Bizkaia, Cantabrian eta Asturieseko fronteetan ibilia. Gero Kataluniara ihes egin eta han "Batallón Alpino"n ibili zen Benasquen.

Garbizu Trecu José Ignacio - 1914ko ekainaren 9an Altamira baserrian jaioa. Pablo Iglesias batailoikoa. PSOEko kidea. 1975eko maiatzaren 17an Donostian hila.

García Moreno Alberto - Milizianoa.

García De la Fuente Maximiliano - Milizianoa.

Garmendia Picabea Nicolás - Loiola batailoiko gudaria. EAJko kidea.

Gaztañaga Esnaola José Ramón - Gordexola batailoiko gudaria.

Gaztelumendi Legorburu Juan José - San Andrés Zultatzaileak taldeko milizianoa⁹² Datu gehiago ez dugu.

Guezala Garmendia Florencio - Zenón Salaverriarekin batera EAJren Batzokiaren sortzailea Lezon. Alkate ohia.

Guezala Sagarzazu Irene Francisca - EABko kidea.

Guezala Sagarzazu José Luis Antonino (Luis) - ELA/STVko kidea.

Guezala Sagarzazu Lucía Estefanía (Luke) - EABko kidea.

Guezala Sagarzazu María Patrocinio Josefa (Miren) - EABko kidea.

Guezala Sagarzazu Miren Elisabete Inese - EABko kidea.

Goya Iburguren José María - 1924ko apirilaren 28an Saizar baserrian jaioa. Nicolás eta M^a Clararen semea. UGT sindikatuko kidea. Pablo Iglesias konpainiako milizianoa.

Inchaurrandieta Echenique José - Saseta batailoiko gudaria⁹³.

Iparraguirre Mancisidor Fabián - San Andrés Zultatzaileak taldeko soldadua aurrena eta Amaiur Batailoiko Jaizkibel konpainiako gudaria gero. Laredon preso hartu zuten arte Amaiurrekin ibili zen frentean.

Labordeta Santos Juan - Errepublikazalea. Gerra Polizia-Etxeko Disziplinarioen batailoikoa.

Landa Leunda Juan José - 1913ko ekainaren 1ean Lezon jaioa. José Martin eta Antonia Josefaren semea. PSOE/UGTko kidea eta Pablo Iglesias konpainiako milizianoa.

Larrea Arreche José Manuel - 1887ko uztailaren 16an Lezon jaioa. Errepublikazalea. Gerra Polizia-Etxeko milizianoa.

Lopetegui Lizarazu Patricio - 1894ko otsailaren 15ean Lezon jaioa eta 1920ko urriaren 23an María Manterola Yarzabalekin ezkondua. Hamar seme-alabaren (Victoria, Manuel, José Ignacio, José M^a, María, Joaquina, Ignacia, Koldobika, Emiliano eta Patricia) aita. EAJko alkate ohia. 1944ko urtarrilaren 6an bere etxean zendua.

⁹² Sabino Arana Fundazioko Abertzaletasunaren Artxiboa ⁹³ Sabino Arana Fundazioko Abertzaletasunaren Artxiboa

Loyarte Zubiri Cornelio - 1907an Nafarroako Goizuetan jaiotako herritarra eta Astigarragako Frente Popularrak zeukan erretenean ibilitako herritarra. 1945eko apirilaren 5ean Ines Garmendia Sistiagarekin ezkondu eta bi alabaren (M^a Begoña eta M^a Jesús) aita. 1977ko urriaren 31n Lezon zendua.

Mendizabal Lasa Juan María - 1913an Tolosan jaioa. 1942ko maiatzaren 16an Micaela Ibarra Mutuberriarekin ezkondua eta lau seme-alabaren (Agustín, M^a Carmen, Juan M^a eta Marcial) aita. Itxarkundia batailoiko gudaria.

Montes Susperregui Manuel - Milizianoa.

Narvarte Garmendia Patrocinio - 1907ko azaroaren 24an Lezon jaioa. Francisco eta Ramonaren semea. JS/UGTko kide eta Pablo Iglesias konpainiako milizianoa. 1941eko martxoaren 21ean "Aserraderos de Lezo" lantegian eraila⁹⁴.

Pagola Salaverría Margarita - 1890eko uztailaren 20an Lezon jaioa. Martín eta Paulinaren alaba. Gerra garaian haurrak Frantziara pasatzen laguntzen ibili omen zen⁹⁵. Gero bera ere bertan gelditu zen. Ez dugu datu gehiago.

Pérez Couceiro Celedonio - JS/UGTko kide eta Pablo Iglesias konpainiako miliziano herritarra. Beste daturik ez dugu.

Picabea Sagarzazu Fermín - 1908ko uztailaren 6an Lezon jaioa. Itxarkundia batailoiko gudaria. Placida Michelenarekin ezkondua eta bi alabaren (María Victoria eta María Isabel) aita. 1974ko irailaren 30ean Donostian zendua.

Picabea Sagarzazu Ignacio - 1894ko urriaren 6an Lezon jaioa. 1918ko urtarri-laren 16an Pepita Arbelaiz Auzarekin ezkondua eta zortzi seme-alabaren aita (Félix, Agustín, M^a Isabel, M^a Cármen, Robustiano, M^a Ángeles, Maite eta Edurne). EAJko kidea eta zinegotzi ohia. 1952ko azaroaren 22an hil zen.

Pozo Esparza Benito - Clara Zetkin taldeko miliziano herritarra. Beste daturik ez dugu.

Querejeta Sagarzazu Martín - 1913ko azaroaren 11n Lezon jaioa. José Ignacio eta Josefa Ignacia (Joxepinaxi)ren semea. Juanita Garmendia Salaberriarekin ezkondua. Alaba baten (Arantxa) aita. EAJko kide aktiboa.

Rebollo Herrero Apolinar - Ibilgailu blindatuetako milizianoa⁹⁶. Ez dugu beste daturik.

⁹⁴ Ez dugu arrazoia zein eta egilea nor izan zen jakiterik lortu. Ez dirudi kontu politikoengatik erail zutenik. Horregatik ez dugu gudaren ondorioz hildakoen artean sartu ⁹⁵ Familiako Iturriak ⁹⁶ Sabino Arana Fundazioko Abertzetasunaren Artxiboa

Retenaga Bengoa Guillermo - EAJko kide aktiboa.

Retenaga Bengoa Hilario - Itxarkundia batailoiko gudaria. EAJko kidea.

Riesco Irisarri José - 1894ko maiatzaren 16an Madrilen jaioa eta Prudencia Irisarriarekin ezkondua. Seme baten (José Antonio) aita. Gerra Polizia-Etxeko milizianoa. 1962ko ekainaren 13an hil zen Lezon.

Rodriguez Pérez Jesús - Itxarkundia batailoiko gudaria.

Saizar Toledo José - Gudaria. Datu gehiago ez dugu.

Salaverría Inchaurrendieta Zenón - EAJko kidea. Florencio Guezalarekin batera EAJren Batzokiaren sortzailea Lezon.

Salaverría Lizarazu Bonifacio Narciso - 1914ko urriaren 8an Lezon jaioa. Anastasio eta Pilarren semea. Saseta batailoiko gudaria⁹⁷. 1941eko irailaren 3an Agueda Salaverría Elizalderekin ezkondua eta bi semeren (Javier eta Adrián) aita. 1945eko abuztuaren 27an hil zen Lezon.

Salaverría Zufiria Miguel - 1912ko urriaren 8an Lezon jaio eta María J. Lizarazu Salaverríarekin ezkondua. Hiru alabaren aita (María Purificación, Juana Mari eta Aranzazu). Itxarkundia batailoiko gudaria. 1969ko abenduaren 24an hil zen.

Sein Legorburu Juan M^a - 1918an Pasai Donibanen jaioa. 1948ko otsailaren 7an Amalia Cordero Corralekin ezkondua. Sei seme-alabaren (Juan M^a, Gurutze, Inmaculada, Begoña, Aitor eta Alazne) aita. Milizia Abertzaleak taldeko gudaria eta EAJko kidea.

Susperregui Ugalde Angel - 1916ko ekainaren 13an Errenterian jaioa. 1940ko abuztuaren 3an María Josefa Urcelayeta Lizarazurekin ezkondua. ELA/STVko gudaria. 2000ko maiatzaren 2an hil zen Saizar baserrian.

Unzain Furundarena Agustín - Itxarkundia batailoiko gudaria.

Urquizu Marichalar Patricio - EAJko kide aktiboa.

Urquizu Michelena José Joaquín - 1916ko ekainaren 17an Peliar baserrian jaioa. Saseta batailoiko gudaria⁹⁸. Concepción Rodriguez Rodriguezekin ezkondua eta eta

⁹⁷ Egaña, Iñaki: 1936 Gerra Zibila Euskal Herrian VIII. liburukia. Gerrako Protagonistak ⁹⁸ Egaña, Iñaki: 1936 Gerra Zibila Euskal Herrian VIII. liburukia: Gerrako Protagonistak

bi seme-alabaren (José Antonio eta Mari Cármen) aita. 1948ko apirilaren 12an bere etxean zendua.


Veintemillas Hita Cecilio - Lezoarra. Deogracias eta Gorgoniaren semea. UGT-12 taldeko milizianoa⁹⁹.

Veintemillas Hita Joaquín - Lezon jaioa. Deogracias eta Gorgoniaren semea. MAOC-Guipúzcoa batailoiko milizianoa. UGTko kidea.



Gudari taldea, tartean Joxe Intxaurrendieta herritarra

⁹⁹ Egaña, Iñaki: 1936 Gerra Zibila Euskal Herrian VIII. liburukia: Gerrako Protagonistak



[6]

LEKUKOTZA GRAFIKOAK



Rosita eta Juanita Etxegarai eta Jose Martiarena erbestean



OYARZABAL LECUONA María



**USABIAGA OYARZABAL Crisóstomo
Enrique**



USABIAGA OYARZABAL Domingo



USABIAGA OYARZABAL Sebastián



AGUIRRE ZAIZAR José Manuel



AGUIRRE ZAIZAR Vicente



ALBERDI UNAMUNO Martín



ALBISU URDANPILETA Norberta



ALDAY MICHELENA Juan Bautista



ALUNDA URRUTIA Benito



ANTOLIN FERNANDEZ Ramón Roberto



ARETIO ARBERAS Eustaquio



ARRESE RUIZ Miguel



ARRIAGA GOENAGA Patricio



ARRIAGA ZAPIRAIN Félix



ASKASIBAR PAGOLA Trini



AZCUE SISTIAGA Maria Encarnación



BERASARTE GALARRAGA Francisco



BERASARTE GALARRAGA Juan Domingo



BERASARTE GALARRAGA Rosa



BERISTAIN GARMENDIA Pedro



CEBERIO JACA Genaro



CORTA SARASOLA Antonio



DIAZ ASUA Carolina



DOMINGO PUIGVERT Manuel



EGUIBAR SEIN Lorenza



EGUIBAR SEIN María Magdalena



FERNANDEZ OSES Victor



GARBIZU TRECUCU J. Ignacio



GARCIA DE LA FUENTE Maximiliano



GARCIA DIAZ Regino



GARCIA LIZARRAGA Manuel



GARCIA LIZARRAGA Rosa



GARCIA MORENO Alberto



GARCIA MOTA Eugenio



GARCIA MOTA Isidora



GARMENDIA PIKABEA Nicolás



GAZTAÑAGA ESNAOLA José Ramón



GUERRERO CADAVIECO Ramón Adolfo



GUEZALA SAGARZAZU Elisabete



GUEZALA GARMENDIA Florencio



GUEZALA SAGARZAZU Irene



GUEZALA SAGARZAZU Koldobike



GUEZALA SAGARZAZU Luis



GUEZALA SAGARZAZU Luke



GUEZALA SAGARZAZU Miren



GUEZALA SAGARZAZU Polentzi



GUEZALA SAGARZAZU Regino



GUEZALA SAGARZAZU Xabin



HERRERA GORRITI Tere



INCHAURRENDIETA ECHENIQUE José



INCHAURRENDIETA LIZARAZU Fernando



INSAUSTI MARTINEZ José Manuel



INSAUSTI ORMABURU José



IPARRAGUIRRE MANCISIDOR Fabián



IRAZU LOPETEGUI José Manuel



ISASA ECHEVERRIA Ignacio




LABORDETA SANTOS Juan



LARREA LOPETEGUI José Antonio



LECUONA GARMENDIA Pedro José



LECUONA SAGARDIA Juan Ignacio



LIZARRAGA BENGOCHEA Restituta



LOPEZ CASTILLEJO María Trinidad



LOYARTE ZUBIRI Cornelio



MONTES SUSPERREGUI Manuel



NARVARTE GARMENDIA Estanislao



PUGA GONZALEZ Aniceto



QUEREJETA SAGARZAZU Martín



RETENAGA BENGOA Guillermo



RETENAGA BENGOA Hilario



RODRIGUEZ PEREZ Jesús



SALAVERRIA LEGORBURU Prudencio



SALAVERRIA LIZARAZU Bonifacio Narciso



SALAVERRIA URQUIA Elías



SALAVERRIA ZUFIRIA Miguel



SANTOS PEREZ Carmen



SEIN Juan Mari



UNZAIN FURUNDARENA Agustín



URQUIZU MARICHALAR Patricio




URQUIZU MICHELENA Gregorio



URQUIZU MICHELENA Jose Cruz



VERGARA MORENTIN M^a Dolores



VILLARRUBIA PINTO Felicísimo



VILLARRUBIA PINTO Isaác



FALANGE ESPAÑOLA TRADICIONALISTA
Y DE LAS J. O. N. S.

SERVICIO NACIONAL
de
FORMACION e INVESTIGACION
DELEGACION PROVINCIAL
DE GUIPUZCOA

GARANTIA A FAVOR DE

D. Pablo Romanos Oro natural de Navarra
Arreola provincia de Guipuzcoa
vecino de Reuteña provincia de Guipuzcoa
de 58 años de edad; estado casado profesión fontanero
domiciliado en Reuteña.

Camarada Juan Lopez Retenaga de 52 años de edad; estado casado
n.º 2 piso 1.º
profesión Empleado domicilio habitual en Reuteña
Marta Echeverria n.º 1 y accidentalmente en el
el n.º el edificio Militante de Falange

y Camarada Francisco Afarraga Oro de 46 años de edad; estado casado
n.º 346912 de la provincia de Guipuzcoa que exhibe
profesión Comerciante domicilio habitual en Reuteña
calle Santa Maria n.º 4-1.º y accidentalmente en el
calle el n.º el edificio Militante de Falange

España Tradicionalista y de las J. O. N. S. con carnet n.º 46992 la provincia de Guipuzcoa que exhibe
DECLARAN conocer al informado Pablo Romanos Oro
que se encuentra actualmente en Port Bou

Saben y les consta que pertenecía con anterioridad al 18 de Julio de 1936 al partido de la M. J. O.
y que su actuación social antes de dicha fecha fue pasiva
No ha tenido intervención en el movimiento rojo-revolucionario y su actuación política social durante el Glorioso
Movimiento ha sido la siguiente: activo como militante siempre sin que se
sepa cometer ningún acto febril

Se extiende esta certificación al objeto de regresar a España

OBSERVACIONES: Previamente enterados de la responsabilidad que contraemos al efectuar este aval,
lo aceptamos plenamente, respetando conjunta y solidariamente.
Y para que conste lo firmamos en Reuteña a 6 de Julio de 1942

J. Lopez Retenaga (Firmas de los avalantes) Francisco Afarraga

London 9/12
Queridos padres
para deciros que
me voy a Ecos.
al colegio de sponge
para a Dios.
los dias a unos pe
bonitos el dia
o campo que
atas y brasecia
mas mas bon
auto bus al
ito nos dice
tuanita esta
guaga con
bien selen
nglati y pa
y tuanita
o se algo
rearios muy
suertio para





Saludo a Franco: ¡Arrriba España!

En la obscura caverna del dolor ^{del dolor}

En la obscura caverna del dolor,
 de los hombres que perdieron sus hogares,
 sus blasfemar, sus sus renegar,
 soy sólo con mi dolor,
 nadie importa lo que he sido en el pasado,
 si fui pobre si fui honrado, si hubo sedas en mi cuerpo,
 o nadie importa lo que soy ni donde voy,
 y si alguno se me acerca, y me pregunta como tengo
 mirar los trabajos que delectan mi sobria. De hoy
 con esos trabajos se dan por vencidos quien soy,
 pero no importa para mí que lo he vivido,
 yo se todo lo que he sido, lo que nunca más seré.
 Si pensara algunos veces lo que fui,



no tendría ni las ganas de vivir
pero yo se que hay que vivir
y vivir sin protestar

El estribillo

En la obscura caverna del dolor
de los hombres.....

Fin

Con todo amor a mi querida
Mary, y a mamá.

Vuestro siempre

Ramon

[7]

LEKUKOTZAK



MIREN GUEZALA SAGARZAZU (LEZO 1912-2003)

Irakaslea eta ikastolako andereñoa. Kultur sustatzaile nekaezina urte zailetan: dantza eta antzerkia sustatu zituen euskarazko irakaskuntzaz gain.

“Guerra Santa¹⁰⁰” etorri zenean, Oiartzundik sartu ziren Lezora eta gu kanpora joan beharrean aurkitu ginen, gure familia oso zigortua izan baitzen. Lehendabizi Donostiara joan ginen. Etxeko atea itxi, giltza hartu eta denbora gutxirako omen zenez, arropa gutxi batzuk besterik ez genituen hartu. Donostian egun batzuk pasa eta handik Plazentziara eta gero handik Bilbo aldera, eta hemendik Santurtzira jo genuen. Santurtzin etxe huts batean sartu ginen. Han ere bonbardaketa bertan genuen eta Bilbo ere oso kastigatu zuten eta bizi ere egin behar genuenez, pentsatu genuen: hemen ere ez da posible bada! Eta orduan beste andereño bat eta biok hango Jaurlaritzara joan ginen gure buruak irakasle-postuetan eskaintzera. Eta han esan ziguten behar gintuztela eta berehala eman zidaten Mundakako irakasle postua.

Mundakan lau andereño geunden; bat katalana, bestea bizkaitarra, beste bat nafarra eta ni gipuzkoarra, eta bakoitzak gela bana genuen. Katalanak euskaraz ez zekienez, edaraz ematen zuen eskola, gainontzekoak dena euskaraz.

Eta han Saseta batailoia zegoen. Menditik jaisten zirenean Mundakara joaten ziren. Jose Antonio Agirrerren anaia zen komandantea eta bestea, Juanito Aldabe kapitaina -guk honi Juanito "Patata" deitzen genion Lezon, Lezon bizi baitzen, Zerupetarren familiakoa zen-.

Gure ostatu berberera etortzen ziren eta maistrak goian egoten ginenez, sototik gora deika aritzen zitazkigun: andereño Pilare!, andereño Mirentxu!, hemen da txokolateroa! -Agirretarrek txokolate fabrika baitzuten, eta jaitsi eta txokolateak ematen zizkigun komandante honek-.

Gure ostatuko etxeoandreak eta bere familiak zuen Batzokiko taberna, eta gauean gudariak eta gainontzekoak, denak han elkartzen ginen, eta gu laguntzera joaten ginen.

Behin, Aldabe kapitaina zauritu zutela eta honen izena besterik ez nuen entzuten, Aldabe gora eta Aldabe behera, halako batean, atea zabal-zabal eginda, non ekartzen duten Juanito Patata kamilan. Eta ni ikusitakoan, musuka zioen:

-Ai Mirentxu! Ezin dudalako, bestela salto egingo nuke!

Haren poza! Hura poza hartu zuena! Hori ikusitakoan besteek galdetzen zidaten:

¹⁰⁰ 1936ko gerraz ari da

-¿Os conocéis, o qué?

-Claro que sí, somos del mismo pueblo, solamente que allá le conocíamos como Juanito Patata!.

Gero bonbardaketak hasi ziren eta Durango jo-eta txikitu zuten eta eskolarik gabe gelditu ziren haurrak nahita ere ezin joan, eskola denak txikituak zeudelako eta hura pasatakoan, eta handik egun batzuetara Gernikako bonbardaketa gertatu zen. Ondoren, gerrak luze irauteko itxura zuenez, Jaurlaritzak erabaki zuen andereñoekin hitz egitea eta ume haiekin guzkiekin joateko prest ote geundekeen galdetzea. Eta nik baietz! Eta Xabin gurea nirekin eraman nuen, zuena baino urtebete gutxiago zuela esanez.

Barku errusiar batean joan ginen eta "Almirante Cervera" barkua ere inguruan zebilen. Barkuan betaurrekoak hautsi nituen eta Iñaki Azpiazu apaizari esker, biharamunerako berriak ekarri zizkidaten dohainik.

Horrela, Iparraldera joan ginen eta kolonietan jarri ginen. Bakoitzari ume talde bana eman ziguten. Haur euskaldunak andereño batekin eta gainontzekoak beste andereñoekin. Nik euskaldunak nituen.

Izugarrizko lana hartu nuen kolonia hartan. Seiehun ume baziren eta denei "Gimnasia Rítmica" - del Padre Olazaran de Estella- irakatsi nien, eta nola gainera!

Eskola eman eta meriendatzeko garaian jolasten ibili ordez, haur guztiak hartu eta taldeka-taldeka, txikienetatik hasi eta handietaraino, lehendabizi taldeka eta denak batera azkeneko.

Kolonia hori Donibane Garaziko gaztelu batean kokatua zegoen, Nafarroako mugan Arnegi eta Luzaide ondoan. Frantziako gerra denboran frantsesak alemaniarren kontra egiteko erabili zuteneko "fuerte" edo gotorlekua zen, San Marko eta San Cristobal eta horien antzeko gotorlekua. Gu bertara iritsi ginenean, zintzilikako zubia, kalabozoak, ziegak eta zulo guztiak oraindik bertan zeuden. "La Citadelle" izena zuen.

Jende asko joaten zen kolonia horretara; Jesús M^a Leizaola; Jose Antonio Agirre; Baionako Obispoa; Dax-ekoa,... Askotan joaten ziren.

Horregatik kolonia hura itxi zenean, eta handik hona etortzerakoan, adierazi ziguten deus ez esateko non egon ginen eta are gutxiago kolonia horretan egon ginetik.

Behin hurrei kantak irakasten eta kantari ari nintzaiela: "La, la, la, atso zaharraren atorra zaharra, beria balu ezer ez...," Leizaola agertu zen eta gustatu eta komunetara joateko kanpoaldeko eskaileretan eseri eta letra kopiatzen aritu nintzaiola ere oso gogoan daukat.



Eta gainera urtean zeharreko lan txosten-erakustaldia egin behar izaten genuen, eta halako batean Leizaolak deitu ninduen ume baten bitartez eta joan nintzaionean esan zidan: Zorionak, zorionak eta zorionak! Nik beste inork ez zuelako egin euskaraz txosten osoa. Poz handia hartu nuen.

Eta eskolatik atera eta gero Batzokira joaten nintzen pospolin dantzak irakastera. Lan handia egiten nuen. Ikurrin dantza ere oso polita da -Aita Labordak Kurasaaleko behealdean zuen areto handi batean ikasi nuen nik, igande arratsaldetan joaten nintzen ikastera- eta Donibane Garazira joandakoan, hangoei erakutsi nien. Eta behin Baionako festetan esan zuten euskal dantzak zekizkitenak presentatzeko eta nik nire taldea prestatu eta aurkeztu nuen, ondoren Frantziako beste herrietatik ere deika ibili zitzaizkidan joateko eskatuz”.

“Gero euskaldunak eta erdaldunak banandu egin gintuzten eta, Armendaritzen (Iparraldeko herri ttiki bat da Armendaritze) kokatu zuten kolonia. Eta kolonia honetako zuzendari Abelino Barriola zen, Donostiako Barriola zapatadenda ospetsuko nagusia, haren semea da Iñaki Barriola medikua.

Eta Abelino honek gure aita asko ezagutzen zuenez, eskatu zion ea Sarara joango nintzen hango haurrei Ikurrin dantza irakastera, hamabost egunerako besterik ez bazen ere, joateko eskatu zidan, eta nik baietz! Eta hala, Sarara joan nintzenean, Hotel de la Poste izeneko ostatuan egon nintzen, ederki jan, ederki edan, paseatu eta arratsaldetan haurrak eskolatik ateratzen zirenean, Sarako Izarraren egoitzara joan eta, Jauregi izeneko mutiko bat eta biok ikurrin dantza irakasten aritzen ginen. Horrela hamabost egun pasa nituen “de aupa”.

Oso mutil jatorra zen Jauregi hau eta honek irakasten zien:

*"Larrundik jautsita hemen gera
Noranahi barreiatzen alegera
Beti (de)zagun irri ta farra
Gora Sarako Izarra (iufi!)."*

"Garai hartakoak dira Eresoinka taldea eta "Haurtxo txikia sehaskan dago" kanta ere. Sarako Izarra elkarte honetan amerikar mutil zahar bat eta beste ingeles bat zorutzen egoten ziren kanta horrekin, eta Eresoinkakoek kanta hau entsaiatzen zutenean, beti hantxe izaten ziren.

Sarako herri honetan jende askorekin egin nuen topo, Elbira Zipitria, Tolosako Labayen alkate zenarekin, Errenteriako organistarekin,... eta abar, eta abar. Denak ihesi joanak ziren.

Elbira Zipitria lehendik ere oso ezaguna nuen, zeren karrera bukatu nuenean, euskal gramatika eta ikasi nuen eta Elbira Zipitria izan genuen andereño, bikaina zen hizketan, asko zekien eta berarengana joaten nintzen ikastera, Mujika obispoaren -oso abertzalea zen hau!- bi arrebeekin batera, Katalina eta Demetriarekin. "Asociación Vasca de Maestros"en egoitzan, irakasle asko elkartzen ginen.

Sarako alkate famatua zen Lerembourg-en alabari espresuki dantzan erakustera joaten zen Elbira Sarara eta denak Labayendarren etxean elkartzen ginen."

"Horrela bada, Saran hamabost egun pasa ondoren eta jada gerra bukatzen hasia zenez, eta gauzak bere tokian jartzen ari zirenez, gurasoek haurrak beraiekin nahi zituztela eta, koloniak husten hasi ziren, pixkanaka-pixkanaka, ni azkenekoekin gelditu nintzen arte.

Eta azkenekoekin etorri nintzen hona eta frontera pasatzerakoan paper bat eman zidaten esanez: Paper honekin presenta zaitetz bihar Hondarribiko Komandantzian.

*Hondarribira joan nintzen eta zer izango eta Gobernu Zibilera presentatzeko. Gobernu Zibilera joan nintzen eta galdeketa egin ondoren esan zidaten: *Esté Ud. en casa que le mandaremos el resultado de todo ésto.**

Beraiek esan bezala, egun batzuk pasa nituen etxetik atera gabe eta azkenean iritsi zen erantzuna:

"Desterrada de Lezo, a 150 Kms. de las Provincias Vascongadas, por quince años, multa de 1.000 ptas. e inhabilitada en su profesión."

Zertatik bizi behar ote nuen ba? Koldobike nire ahizpa Salamancan zebilen pilotan jolasten eta aita ere haren etxean zegoen ezkutatua eta Koldobikek esan zidan beregana joateko, eta hala, Salamancara joan nintzen bere etxera eta aitarekin batera han egon ginen pixka batean.

Baina berehala, Koldobikek berak eskatu zuen Bartzelonarako destinua eta hara bidali zuten, aita berarekin eramanez.

Orduan nik ere baimena eskatu nuen Bartzelonarako eta ukatu egin zidaten:

“Denegado! Porque Barcelona también se considera una región separatista”



Hori erantzundakoan pentsatzen jarri nintzen nora joan, eta Madrila! Han Irene ahizpa zaharrena zegoen, Donostian josten ibilitako maixtrak zuen tailerrean lanean. Oso jostun ona zen eta han lan egingo nuela, berak ordainduko zidala eta. Neskamea ere bazuten beraiek eta nire eginkizuna josten laguntzea izango zela, beste bospasei jostunekin batera.

Oso bezero onak zituzten eta haien artean bazen neska bat nirekin amistade handia egin zuena, Donostian bizitakoa omen zen eta oso gustura egoten zen nirekin hemengo gauzez hitz egiten. Halako batean esan zidan bere etxera joateko eta horrela hasi nintzen joaten eta gurasoak ezagutu eta bere bi neskameak ere bai, bata sukaldaria eta dontzeila bestea. Eta hantxe egon nintzen hona etorri arte.

Baina hona etorri aurretik izugarrizko borroka egin behar izan nuen indultoa lortzeko, beti ukatu egiten baitzidaten inolako arrazoirik gabe.

Ate asko jo behar izan ditut, baina azkenean, ni bizi nintzen etxekoen laguntzaz eta Lezotik eta neramatzan abalekin Donostiako alkate izandako eta orduan

Gorteetako Idazkaria zen Antonio Pagoagarengana joan ginen, eta honek bere esku zegoen guztia egin ondoren bi hilabeterako baimena eman zidaten, ahizparen ezkontzaren aitzakiaz. Ondoren, berriro Madrila itzuli eta gero urtero eta urtean behin etxera etortzeko hilabete baimena ematen zidaten.

Azkenik, "Permiso indefinido por una enfermedad casi incurable, para que esté con su familia en los últimos momentos de su vida".

Eta gaur arte. Inork ez du deus esan eta, gaur arte"

POLENTZI GUEZALA SAGARZAZU (LEZO 1919-PABE 2008)

1919ko azaroaren 20an Kale Nagusian jaioa. Familiarekin batera erbesteratuta egona.

"Lezotik ihes egin eta, trenean, aurrena Plazentziara (Soraluze) joan ginen, Luperen ama hangoa baitzen eta haren etxera -Anaia Regino ordurako han zen, Miren eta Xabin, berriz, Frantzian (Donibane Lohitzunen). Zorte handia izan zuten...-. Handik Bilbora eta Bilbotik Santurtzira. Han bederatzi hilabete egin genituen. Hango familia batekin adiskidetasun handia egin genuen, beheko pisukoekin... Gu beti musikarekin ari baikinen eta haiek ere oso gustuko zuten...

Gernikako bonbardaketako egia bat kontatuko dizuet... Familia osoa Bizkaian geunden hemendik ihesi hara joanak... Nire anaia Luis Gernikan zen bonbardaketaren uean batzokian pianoa jotzen, eta badakizu zein kanta jotzen ari zen? "Mi capullito de alhelí, por eso yo te canto a ti, lararararaaaaa!" Umorea jartzearren. Ni, aita eta amarekin eta gainerako senideekin Peñotako tunelean ezkutatuta nengoen, bonbardaketen beldurrez. Hala, Luisek, pianoa jotzen ari zela, faxistek alkauete gisa bidalitako lehenengo hegazkina ikusi zuen eta susmo txarra eginda mendi aldera ihes egin zuen aurreneko bonba erori baino lehentxeago. Batzokiaren gainera bota zuten lehenengoa... Menditik bueltan han inguruan zeuden nobio bikoteak-eta hilda eta jendea kiskalita ikusi zuen, haragi errearen usaina zegoen bazter guztietan... Guk ere Peñotatik atera ginenean, aita, ama... Izugarrizko paisaia ikusi genuen... Zer zen hura! Ez dut inoiz ahaztuko! Santoñara ihes egitekotan geunden, orduan, Ireneri Luis hila zela esan zioten eta hori egia zen aztertzen ari zela, anaiarekin egin zuen topo. Hura poza! Santurtziko kaiatik abiatu ginen Santoñarantz arrantzontzi batean, pena dut izenaz ez gogoratzea. Almirante Cervera gerrako barku faxista inguruan zebilen dagoeneko eta kainoikadaka hasi zitzaigun, ama gottika barkoan, bestea tiroka... eta gaua zenez, harkaitz handi baten atzean ezkutatu zen arrantzontzia eta hala libratu ginen.

Santoñan errekiatutako billa batean egon ginen handik ihes egin eta berriz herrira etorri behar izan genuen arte. Izeba Urbanak gorde zizkigun altzariak baina erreketeeek gauza asko kendu zizkiguten... Manilako mantoiak eta balio handiko gauza asko. Udalak gure etxea salgai jarri zuen, nahi zutena egiten zuten... Eta Pagolak erosi zuen. Familiari dena kendu zioten. Pentsa ezazu, handik urte askoren buruan Pasai Donibaneko emakume bat, Barbara, etorri zen berak errenta kobratzen zuen etxea gurea zela esanez. Berak errenta urte askotan kobratu zuen... Errenta guztia barkatu genion, ez baitzuen ordaintzerik izango eta etxea saldu egin zuen Lukek.

“Unión Republicana”koek “Centro Republicano” izeneko egoitza zuten hemen, San Juan kalean. Gogoratzen dut bonbak bota zituztenekoa... Hegazkinak zebiltzan eta bonba bat baino gehiago bota zituzten. Gu, Irene eta denak Atzekoatean ginen eta handik korrika Martizkone aldera abiatu ginen Fernandoren etxe ondora eta handik abioiei begira egon ginen, jendeak esaten zuen ongi zekitela nora bota behar zituzten... Hura tragedia izugarria izan zen... Arriaga arrunt gizon ona zen. Esperantxa gaixoa ere... Dena ikusten genuen handik eta ezer egiterik ez... Haiek karraxiak familiakoek! Ez zen gutxiagorako! Hori ezin da ahaztu... Barkatu bai baina, ahaztu ez...”



FABIÁN IPARRAGUIRRE MANCISIDOR (PASAI DONIBANE 1917)

San Andrés Batailoian zulatzaile lanetan aritua. Amaiur Batailoiarekin frentean gudari ibilia eta gero trabajadore gisa hainbat lekutan zigortuta lanean aritua.


“San Juanen jaio nintzen 1917ko urtarrilaren 20an, San Sebastian egunean. 19 urte nituen gerra hasi zenean. Gerra hasi eta hilabeteren buruan-edo, bandoa jo zuten San Juanen Jaizkibeldik barrena moroak zetozela esanez. Izugarritzko eskandaloa sortu zen herrian, denak PYSBEko itsasontzietan sartu ziren etxeak-eta dena utzi eta Bilbora joateko. Baina ez zetozen. Gainera, egun hartan Jaizkibelen izana nintzen eta, han ez zegoen ezer. Herriko gazteen artean, lagunen artean, goardiak antolatu genituen ehizeko eskopetekin-eta. Astebete pasatxo eman genuen goardiak egiten. Azkenerako agertu ziren erreketek Jaizkibelen barrena eta orduan bapore txikian Getariara egin genuen ihes. Camararen almazenean baporea irin zakuz bete eta han abiatu ginen. Hurrengo egunean Getariatik Bermeora joan ginen eta handik autobusez Bilbora, familia han bainuukan. Ni baino bi urte zaharragoa zen anaia gerra hasi eta berehala Loiolan apuntatu eta hura gerran frentean zebilen, ni beranduxeago hasi nintzen. Ama alargundu berria zen eta beste bi anaia eta arreba gazteagoekin etxean geratu nintzen. Bilbon ihesi joanda geundela, kinta deitu zuten eta lagun batek aipatu zidan San Andrés batailoian ondo egongo nintzela. Zapadoreetan lanera sartu nintzen trintxerak-eta egiten, retagoardian... Villaron eta Gorbeia aldeko mendietan. Bestela, frentera igoal eramango ninduten eta nahiago nuen lanera joan... Anaia gazteagoa, kintara ailegatzan ez zela ere, eraman zuten. Kanean ikusten zutena eramaten zuten errepublikaren armadara. San Andrésen nengoela atsedean une batean San Juango lagun batekin egin nuen topo. Hura infanteriako Bolibar batailoian zegoen eta zera esan zidan Amaiur batailoia gu geunden lekutik bost kilometrora zegoela eta ea joango al ginen biok hara. Nik baietz esan nion, baina San Andrés batailoia uzteko Amaiurreko alta eskatu zidaten. Hala ere, lagunak bereak eta nik nere armak utzi eta Amaiurrekoengana joan ginen. Amaiurrekin frentera joan nintzen eta han jarraitu nuen preso erori arte hiru hilabete pasatxo-edo... Sanjuandar asko zen Amaiurren eta horregatik joan ginen gu hara. Itxarkundiak -Errenteriako eta Lezoko asko zeuden bertan- Bermeon zuen koartela eta ikusten genituen batzuetan. Amaiurrek Mundakan zuen koartela. Guk Murua genuen kapitain, Beasaindarra-edo, tenienteak berriz, Apalategi eta Aldai antxotarra. Jaizkibel konpainia zen gurea. Anaia Arturo Kanpion konpainian zegoen. Bilbo estu zegoela, erortzeaz zela, Torrelavegatik harantz bidali gintuzten, handik filtratzen baitziren... Bilboko “Cinturón de Hierrok” ere kale egin zuen eta gu ere zerkatzen ari ziren pixkanaka-pixkanaka. Frentean geundela, Santander aldetik jaso genuen erretiratzeko eta Santoñara joateko abisua. Gure bila barko inglesak (Boby eta Seven Seas Spray) zetozela esan ziguten, Frantziara joan eta handik Kataluniara pasatzeko. Joan egin ginen, eta esan ziguten gainera ezkerreko bidea hartzeko beti, eskuinaldean etsaia zegoela eta haien mende eroriko ginela. Laredora iritsi eta hurrengo egunean Santoñara iritsi ginen oinez. Hara ailegatu eta barkorik ageri

ez, eguna joan eta eguna etorri, ez zen barkorik ageri. Azkenean Bilbotik barrena italiarrak sartu ziren eta Santander aldetik ere itxi zuten... Hantxe harrapatu gintuzten. Ni bapore txiki batean sartu nintzen, ihes egiteko, baina jende asko geunden eta denentzako lekuri ez... Italiarrek ardo barrikak-eta aurkitu zituzten eta izugarritzko eszenak ikusi genituen... Denak mozkortu eta lurrean lotan-eta ibili ziren... Bakean errenditu ginen hiru egunen buruan. Erretiratzen ez baginen, bombardatuko gintuztela egin ziguten mehatxu. Denak formatu eta pasa ahala, armak uzten joan ginen, arma batzuk putzora ere bota zituzten, uretara.

Laredo ondoko futbol zelai batera eraman gintuzten, eta han aire librean lo eta dena eginez hilabete eta gehiago egon ginen. Italiarrak genituen goardian. Jaten-eta ematen ziguten behintzat eta goserik ez genuen pasa. Gero han konpainiak osatu zituzten eta hurrengo egunean bagoietan Zaragozara eraman ninduten, Campo de Mosarrifar, Zaragozatik 8 kilometrora-edo zegoen papelera zahar batera. Italiarrak zeuden han ere goardian. Eremu guztia pareta baten bidez itxita zegoen. Kanpoko aldetik ere zentinelak zeuden. Han afusilatutako jendearen gorpuak ikusten ziren gaizki lurperatu eta buruko ilea ageri zutela... Europatik ihesi etorritako poloniarrek ere bazeuden han preso. Eguna irakurtzen eta ahal zen bezala pasatzen genuen. Bagoia bete eta jendea Zaragozara eramaten zuten lanera, hornikuntza trenak kargatzen eta deskargatzen ibili nintzen han.

Handik gero pikatxoiarekin lan egitera Biscarruésera eraman gintuzten, bideak egiten aritu nintzen han. Guretako bat jarri zuten gure enkargatu. Handik gero Sariñenara. Egunean 8 ordu edo pixka bat gehiago egiten genuen lan. Sariñenan bukatu eta Almancillasera, Leridako ondora. Han alanbradak bildu eta pilotzen aritu nintzen. Frenetetik ekartzen zituzten alanbradak biltzen. Sukaldaria guretako izan ohi zen, trabajadorea, eta perolo haundi bat prestatzen zuten patata eta azarekin -hosto berde eta guzti-, batzuetan haragi gisatua patatekin ere bai... Goardia batzuk gaiztoak ziren eta beste batzuek ondo tratatzen gintuzten, lagundu ez baina ondo tratatu bai. Korreoa errespetatzen zuten, zentsura pasatzen zuten baina korreoa helarazten ziguten. Gure artean elkarrekin ondo etortzen ginen. Kapitain batek zera esaten zuen: "al que trabaja hay que darle de comer". Ihesaldirik eta ez nuen ikusi, gu egondako lekuan ez. Fusilamendurik ere ez nuen ikusi, aparte eramaten zituzten, guk ikusten ez genuen lekura. Trabajadore sartzekoan deklarazioa hartzen zizuten eta haren arabera eta herritik ailegatutako denuntzien arabera izaten ziren antza fusilamenduak.

Almancillasetik Bilbora eraman gintuzten Escolapioetara. Han lanik egin gabe egon ginen preso. Gelak zeuden eta lurrean koltxoi bigun bat besterik ez lo egiteko. Jaikitzean bildu eta garbitu... Bisitak izaten ziren han baina nire familia Frantzian zenez... Bilbotik lagunak eta joaten ziren eta ezagunak ere bagenituen arropa garbitzen zigutenak... Milatik gora lagun geunden han... Anaia, San Juango Corderotarra eta Antxoko Evaristo Urtasun ere bai... Denak elkarrekin ginen. Beheko solairuan ofizial eta zentinelentzako lekua zegoen eta gero presoentzako beste hiru solairu. Ez zen kartzela baina



kartzelaren funtzioa egiten zuen. Urte eta erdira edo, deklarazioa hartu eta etxera bidali ninduten. Etxera etorrita goardia zibiletara astero-astero aurkeztu beharra neukan Herrerara. Etxean hilabete eta gutxi neramala berriz “Caja De Reclutas”etik deia. Nire adinekoak oraindik soldaduskan zeudenez, ni ere soldaduskara bidali ninduten haiek bete zuten denbora bera betetzera. Ordurako gerra bukatua zegoen eta Andaluziara bidali ninduten. Deklarazioa hartu eta han lanean egon nintzen pikatxoiarekin trabajadore. Handik Iruñera ekarri ninduten “al Regimiento América” soldaduskara. Han bi-hiru hilabete neramatzala, San Cristobal gotorlekura eraman ninduten presoak zaintzera hilabetez. Han goian nengoela, San Juango Laurentxi Manzisidorrek ikusi ninduen leihotik. Bera, heriotza-zigorrera kondenatuta, preso zegoen. Haren poza! Puruak eta dena atera zituen. Goardia-lekua, garita, askotan

aldatu nuen Laurentxirekin hitz egin ahal izateko. Garita hura zegoeneko atea San Cristobalگو ihesaldi handian ihes egiteko erabili zutena zen eta inork ez zuen han goardia egin nahi. Laurentxi ni etxera etorri eta gerora indultatu zuten... Oso mutil ona zen. Familia, alemanak Frantzian sartu zirenean etorri zen bueltan. Anaia, hirugarrena, etorri eta detenitu egin zuten kintak harrapatzen zuelako. Trabajađore egon zen Lezon eta Oiartzungo Arkalen. 1943an etorri nintzen ni etxera”

“Frentean zaudenean bonba bat-edo noiz eroriko zaizun zain egoten zara. Trintxeran egon. Lehenengo artilleriarekin hasten ziren, dinbi-danba! Bota eta bota. Segituan era-soa eta erne egon behar zenuen... Hiltzeko, bonbak bertan erori behar zuen...”

“Gerra hasi berritan Jaizkibel atzetik gerrako hiru itsasontzi bonbak botatzen aritu ziren (Irunera, Guadalupeko gotorlekura eta Erlaitz, Pagogaña, Aiako Harriko errepublika-rrren posizioetara, San Markoko gotorlekura eta abar); “España”, “Cervera” eta “Velasco” zirela uste dut. Gu Mixintxolara igo, hemen Lezotik eta ikusten egoten ginen. Gure gainetik pasatzen ziren bonbak... San Markora botatzen zituzten. Fogonazoa ikusi eta makurtu egiten ginen...”

“Hemengo “Centro Republicano”ra bota zuten bonbaz ere gogoratzen naiz. Hura abi-azioak botea izan zen. Lokalizatzen zituzten zentroak eta honelakoak eta han botatzen zuten... Hura zentroagatik bota zuten. Hala ere, itsasontzitik botatakoak ere nonahi erortzen ziren... Hemengo plaian ere erori zen...”

“Ezkonduta gero, Lezon bizi nintzela, eguerdi batean lanetik etxera etorri eta Guardia Zibilak etxea errejistratzen aurkitu nituen... Ez dakit oraingo mugimendu hau hasi berria zen edo... Nire fitxa bazuten eta horregatik izango zen. Bestela, Franco etortzen zenean, ez ninduten Ondarretara eramaten beste batzuk bezala. Behin meza atera genuen hildako gudaerentzako. Pezeta bat edo bi eman eta meza atera genuen San Juanen. Hurrengo egunean lotan nengoela, gaueko ordu bata eta erdietan edo, polizia etorri zen etxera eta udaletxeko kalabozora eraman ninduten. Ni bezala, Martzelino... Edadeko gizona eta... beste bat eta beste bat ere bai... Zenbat elkartu ginen! Gero esan ziguten ea hitz ematen genuen hurrengo goizean polizia-etxera joango ginela. Lezotik Otaxo eraman zuten, baserri batekoa... Deklaratu genuen. Batzuk Ondarretara eraman zituzten San Juandik eta Erreteriatik... Meza ateratzegatik. Gobierno Zibilera eram- gintuzten eta Felipe Cámara, Pasaiaiko alkatea, joan zen guregana. Hark libratu gintuen... Eguberri bezpera zelako-edo indultoa etorri zen...”

“Erreketek Pasaian sartu zirenean, hil berria zen gure aitaren erreminta guztiak eraman zituzten. Aita igeltseroa eta hargina zen. Herriko jendea ibili zen lapurretan, batzuk ustez abertzaleak zirenak gainera. Badakigu nor izan zen... Etxetik ere harrapatu zuten guztia eraman zuten”.

EUSTAQUIO AREITIO ARBERAS (DURANGO 1921- LEZO 2007)

Itxarkundia Batailoian gudari ibilitakoa. Preso hartu ondotik trabajadore gisa lanean ibilitakoa batean eta bestean.

“Durangon (Bizkaia) sortua naiz, 1921eko abenduaren 14an. Hiru urterekin etorri nintzen Lezora, aitak hemen lan egiten zuelako, “Cafeteras” izena zuen lantegian. Familia guztia etorri ginen, eta gerra hasi zenean, Bilbora itzuli ginen, eta ni, Durangon geratu nintzen.

Anaia guztiak ni baino zaharragoak zirenez, denak “frentean” zebiltzan. Bost anaia ginen: Teodoro, Federiko, Pablo, Eduardo¹⁰¹ eta ni, Eustakio. Aita ere Durangoko bonbardaketa fusilatu ziguten. Oraindik gogoan dut nola eraman zituzten Ezkurdia kalean barrena kanposantura eta hango paretaren aurrean nola fusilatu zuten, neronek ikusi nituen fusilatzeak, baina gaztea nintzen.

Durangoko bonbardaketa hasi zenean, 17 urte egiteke nintzela, Durangon geunden atzerriratuak eta nik afizio handia nuen pilotan aritzeko eta orduan frontoian geunden nabaritu genuenean bonbardaketa eta dena utzi eta hanka!. Kale estu batean ezkutatu nintzen beste bi lagunekin batera. Lurrean etzanda egon eta gero, Topoaren geltoki ingurutik, eta Batzoki ondotik plazara iritsi ginenean, izugarrizko sarraskia ikusi genuen, zer zen hura!, odola, gorpuak, haragi puskak,... Beste ezer ez zen ikusten. Nire aita ere orduan akabatu zuten (Hau kontatzean, emozionatu egin da).

Eta 17 urte egitear nintzela eta, izena eman nuen “boluntario” gisa gerrara joateko, Itxarkundia batailoian, baina ez geunden batailoian bertan, gu zulatzaileen¹⁰² taldean geunden, injinerutan. Horrela eman nuen izena Durangon, Monzon komandantearen agindupean.

Durangotik abiatu ginen “frentera” trintxerak edo lubakiak egitera. Lehenik Elorriora eraman gintuzten, gero Elgetara, Kanpazar inguruko mendi horietan lubakiak egiten aritu ginen. Ondoren Otxandiora eraman gintuzten eta Otxandion sei hilabete edo, egin genituen eta halako batean, Gasteiza doan bidea moztu zutenean, beste berri bat egin behar izan genuen, eta Villarrealgo baserri edo “granjara” joan eta bertan geratu ginen. Handik joaten ginen mendietara; Anbotora, Elgetara, Sollubera, Gorbeia Gurutzera,... Leku guztietan lubakiak egiten, eta handik Otxandiora itzuli ginen eta gero jada, erretirada edota atzera egiteko deia jaso genuen.

Otxandiotik Santanderra joan ginen eta Santanderren errepide guztiak moztuak

¹⁰¹ Larrañaga batailoiko milizianoa. Durangon 1936ko irailaren 13an fusilatua. Faxistek Lezo hartu zuten egun berean hain zuzen ere ¹⁰² Zapadoreak

geneuzkan. Hori ikusirik, Santoñara joateko esan ziguten, Santoñan itsasontziak zain baikeneuzkan guretzat prestatuak. Eta Santoñan denbora luzez egon ginen, baina abertzaleen buruek eta italiarrek akordio bat¹⁰³ adostu eta sinatu ondoren, preso hartu gintuzten. Eta arma guztiak Santoñan entregatu eta gero, zazpi kilometroko bidean oinez itzuli ginen Laredora. Hona iritsitakoan futbol zelaian sartu gintuzten baina denontzat lekurik ez zegoenez, kontserba fabrikak ziren pabilioitan sartu gintuzten azkenean. Ez naiz akordatzan zenbat denbora eman genuen hemen.

Handik Burgoseko San Pedro de Cardeñara eraman gintuzten. Merkantzia bagoietan sartu eta lasto eta zerrikeriaz betetako bagoietan joan ginen. Bagoietan zuloak egin genituen komun bezala erabili ahal izateko. Gero hortik Mirandara eta Mirandako kontzentrazio-esparruetan lekurik ez zela eta, berriro Burgosera, San Pedro de Cardeñara bidali gintuzten. Oraindik oso ondo oroitzen naiz bertako tren geltokiaz.

Burgosko geltokian jaitsi eta oinez egin genituen San Pedro de Cardeñara dauden zortzi kilometroak. Hemen denak batera sartu gintuzten pabilioi batean eta hantxe egon ginen geldidirek. Goizero patiora kanporatzen gintuztenean, “Cara al Sol” kantatu, “Arriba España” eta “Viva Franco” oihu egin eta ala! errepideak egitera abiatzen ginen. Errepide bat besterik ez zegoen San Pedro de Cardeñan eta guk beste bat egin genuen eta horrelaxe aritzen ginen lanean, errepideak egin eta egin.

Eta hantxe preso egon ginen denbora hartan oso gaizki eta gutxi jaten genuen; zorrik beteak; arropako josturetan zorriak besterik ez genituen ur beraz betetako galdaretan sartzen genuen arropa eta horrela akabatzen genituen zorriak. Eta horrela egon ginen etxera bidali gintuzten arte.

Bien bitartean ama Lezora etorria zen eta bakar- bakarrik zegoen eta anaia guztiak preso eta ni gazteena nintzenez nire askatasuna lortzeko Lezoko Epaitegira joaten omen zen laguntza eske eta orduko epailea zen Atanasiok antzarak ferratzera bidaltzen omen zuen epaitegitik.

Azkenean hiru urteren buruan edo, Durangoko ezagunen bat zela medio, askatu egin ninduten eta Lezora etorri eta gero ere, astero-astero Errenteriako Guardia Zibiletara joan behar izaten nuen.

Baina zigorrak gero ere jarraitu zuen, ez baitziguten inon lanik ematen. Gaur egun plazan Arrutitarren denda dagoen horretan zegoen kokatua Sindikatua eta bertako buru Luis Aranjuelo Andonegui zen eta ezinezkoa zitzaigun lanik lortzea gure kontrakoa zelako.

¹⁰³ Santoñako Hitzarmena (1937/08/24)



Azkenean, Trintxerpera joaten hasi nintzen eta itsasontzietako galdarak konpontzen hasi nintzen lanean, diru pixka bat ateratzeko.

Gerra denboran eta gerora ere beti zigorpean bizi ginen. Arratsaldeko 7etan Angelusaren kanpaiek jotzen zutenean, adibidez, gazteok etxera joan behar izaten genuen. Behin batean, karelean eserita geundela Estanis Salaberria -Txato- eta biok, Jose Izeta serenoa etorri eta esan zigun: -Zoazte etxera! Etxera!

Eta guk erantzun egin genion:

-Zergatik? Eserita gaude eta ez dugu inor molestutzen!

Bada, erantzun egin geniolako, udaletxeko kalabozoan sartu gintuen biharamun goiza arte, eta bost duroko isuna jarri ziguten, baina ordaintzeko dirurik ez genuenez, astean duro bat eman ez kitatu genuen zorra.

Oso egoera gogorra izan zen gerra ondorengo hemen”.

ROSA GARCÍA LIZARRAGA (TOLOSA 1925)

Haurra zela familia osoarekin ihesi atzerrian ibilia.

“Yo soy natural de Tolosa, hija de Alberto Garcia y de Restituta Lizarraga de Irún. Vinimos de Tolosa a Lezo hacia el año 1930. El padre ya andaba por aquí de antes y le gustó esto y nos trajo a toda la familia, pero yo volví a marchar a Tolosa a casa de mi abuela, porque mis tías trabajaban y me quedé al cuidado de ella.”

“La historia de la guerra que vivimos empieza el 19 de febrero de 1936 que ganaron las izquierdas, es decir el Frente Popular. Y sin tiempo a organizarse todavía, el 18 de julio ya es cuando estalló la guerra. Al principio pensábamos que iba a ser para cuatro días.

Me acuerdo que salió la tía a la calle y nos dijo, “no sé que pasa en la calle, dicen que han asaltado las armerías y se han llevado todas las escopetas y están esperando órdenes; además que en Navarra se han sublevado y...” Y aquel día se quedaron sin ir a trabajar y al cabo de unos días ya nos vinimos de nuevo a Lezo.

Cuando llegamos a Lezo nos encontramos con que la gente ya estaba haciendo guardia para ver quien salía o quien entraba al pueblo y entre ellos coincidió que estaba mi padre y dijo: Dejarles pasar que es mi familia que viene de Tolosa. Y aquí estuvimos poco tiempo porque ya en agosto nos marchamos.

Nosotros vivíamos en Etxe txiki de la calle Donibane, en la casa pequeña que está frente a la farmacia y cuando cayó la bomba en esa calle sentí los pedacitos que caían en el lucero del tejado y pensé que era el barco -“Canarias,” o “España” - que bombardeaba casi todas las tardes San Marcos- y bajé corriendo y pregunté: Ama ¿qué ha pasado, si todavía es temprano? Y es cuando veo dentro de casa sentado en una silla y todo ensangrentado a un carabinero. ¡Qué susto me pegué! Y en la cocina otro con las piernas desechas, recostado contra el armario. Vinieron a por éste porque creían que solo había uno y preguntaron, ¿no hay más? Y mi madre les contestó que no, porque no pensaba que hubiera nadie más. Siempre decía que ella no vio entrar a más que uno. Se conoce que con el alboroto que había en la calle, con los muertos y heridos y con el nerviosismo,... pues no vio, pero se los llevaron a los dos.

La bomba cayó frente al Centro Republicano el cual estaba ubicado en el edificio conocido luego como la casa del ruso y actualmente, Ciclos Erreka, pues exactamente al lado o junto al portal, el día 26 de agosto y mató a Félix Arriaga, Esperantxa -así la llamábamos- Sein y a la niña Carmen Ginto Etxenike, además del burro que solía acompañar a Félix, porque este era barrendero. Esperantxa era sobrina de Félix y se conoce que salió a darle la basura al tío y éste que era muy simpático, quedaron a hablar y estando allí les pilló la bomba de lleno. Y la niña era hija de un chofer del auto-

bús que había en Lezo -por cierto, que tenía una bocina terrible!- y vivían en Jauregialde y estaría por allí y también la mató.

Me acuerdo como le pusieron a Esperantxa en el Bar Oriotarra sobre una mesa para que la viera toda la gente. Era una chica muy guapa y me acuerdo cómo le quedó toda la cara llena de agujeritos chiquitines, chiquitines! ¡Aquello fue la capilla ardiente para la pobre!

A continuación ya nos marchamos de aquí a Zarautz y con nosotros también se vino Tere Herrera (1923-2003) que también era una niña y allí estuvimos en un hotel -porque cuando hacía falta requisaban hoteles, cines o lo que fuere-. Estuvimos durante ocho días y de allí fuimos a Bilbao.

En Bilbao nos pusieron una villa o chalet que se llamaba “La Reneja”. Estuvimos nueve meses allí y al principio nos daban carne, mucha patata, mucha comida, pero según iba pasando el tiempo, cada vez había más refugiados y menos comida; sólo teníamos garbanzos para comer y garbanzos para cenar, leche para desayunar y un trozo de pan no nos faltaba. Para mantener a tanta gente y además gratis pues ya era bastante.

Y hasta que un día vinieron unos camiones y empezaron a vaciar el cargamento que traían; cajas y cajas. Llenaron la casa que era muy grande hasta el techo de cajas. Eran cajas con obuses. Y los hombres se pusieron a preparar el material para el frente, metiendo los cartuchos y balas en las cartucheras.

Y mi padre cuando vio aquello se asustó y se quería marchar de allí, porque el enemigo ya sabía que por la zona había material de guerra pero no sabían dónde concretamente.

Mi padre solía estar haciendo trincheras y cierto día se pasó todo el día sin aparecer por casa y cuando vino le pregunté dónde había estado y me contestó: -¡He encontrado un refugio más bueno! Porque ya no podía estar en casa del miedo que tenía, y solía decir a menudo: ¡Si aciertan, volamos! Y así me dijo: Mañana vais a venir conmigo a ver y si tu madre no quiere venir que no venga. Iremos después de comer. Y así fuimos Tere, mi padre y yo. El refugio consistía el hueco que queda bajo las vías del tren, para que corra el agua, una especie de agujero y debajo hay muchos metros de altura hasta el suelo, pues eso! Y allí estuvimos toda la tarde. Para entonces ya estaban las tropas un poco descarriadas y había también unos soldados con nosotros cuando nos metimos en aquel refugio y a Maitere le dio por reír de lo nerviosa que estaba y ja! ja! ja! Venga reír, y a pesar de que le decíamos: cállate! cállate! ja!, ja!,ja! Hasta que le dijo un soldado: ¡Chavala, cómo no te calles, te voy a dar un tortazo que verás! No se me olvida nunca”.

“Y terminado ya el bombardeo salimos del refugio y yo buscándole a mi padre. Gritaba, ¡Mi padre! ¡Mi padre! Y mi padre apareció todo arañado porque no le había dado tiem-

po a meterse al agujero donde estábamos y se había tirado en las zarzas. Pero mira si volaban bajo los bombarderos y aviones, que veíamos las sombras que producían al ras del suelo.

Y aquella misma noche ya nos marchamos a Santander. En Santander estuvimos en un balneario y allí nos pusieron en barco para evacuarnos a Francia. Los días de viaje que tardamos en llegar a nuestro destino los pasé mareada completamente ¡qué viaje aquel! Así llegamos a Saint Nazaire. Para cuando llegamos teníamos preparadas unas mesas repletas de comida que comparando con la miseria que habíamos dejado aquí, aquello parecía jauja.



Durante el viaje nos llevamos un susto muy grande, todo el mundo llorando, porque se cruzaron con otros barcos y uno de los barcos no nos dejaba pasar y quería que volviéramos aquí y el responsable de las Naciones Unidas le dijo: O nos dejaba pasar o le iba a denunciar. Y nosotros nos apuramos claro, porque cada barco iba a sus cañones y estaban dispuestos a tirar,... Y nosotros que veíamos aquello y en medio de todo,... ¡Que susto!

De Saint Nazaire fuimos durante dos días más en tren, y estuvimos tres meses. Pero nosotros tuvimos mala suerte allí. Llegamos a un hospital de la guerra europea. Pero nada más llegar nos pusieron una alambrada, como en un campo de concentración y gendarmes para todo; al comedor al toque de silbato, a lavar la ropa con gendarmes, las camas pequeñas y de paja, cerraban las puertas y de allí no salía nadie,... En fin, que estábamos en unas condiciones pésimas.

Ante esto, se formó una comisión y denunciaron que aunque allí no hubiera bombas casi preferían vivir entre bombas a vivir en aquellas condiciones. Porque mucha gente preguntaba, ¿qué pasa con los refugiados? ¿Por qué no se les deja salir a la calle? Y contestaban: tienen una epidemia. Y a nosotros en cambio nos decían que había una epidemia en el pueblo y que era mucha la responsabilidad para ellos.

Ese pueblo estaba en la frontera con Suiza. Y una vez pasado un tiempo nos dijeron si queríamos venir a la frontera española para luego venir a casa o si queríamos seguir a la zona roja”.

“Tere Herrera optó por venir a casa que hacía ya mucho tiempo que había salido y que quería volver a Lezo, le hicieron los papeles y se vino, y en cambio mi madre dijo que no, que ella iba a Barcelona y así seguimos con los rojos. Y cuando llegamos a Barcelona pasamos dos días y luego nos llevaron a Tortosa en vagones de ganado. En Tortosa nos esperaba uno de los delegados y nos llevó al Tebre -El Tebre es donde desemboca el río Ebro a la mar y donde está la central de Vandellós-. Allí nos dijeron que ya sabían que estábamos en guerra y que éramos refugiados y que antes que nosotros habían estado otros refugiados madrileños pero que tenían muy mal recuerdo de ellos, porque estos pensaban que iban a veranear y todo lo contrario, allí teníamos que ayudar en todo lo que pudiésemos y que nosotros siendo del Norte, no nos portaríamos como ellos.

Llegamos de noche y nos fueron repartiendo en familias. A mí me tocó una familia que sólo sabía el marido que iba a ir una refugiada porque la mujer no sabía nada y a mi madre le llevaron a otra muy cercana a la mía. La familia que me acogió era una familia de labradores y en cambio la de mi madre era la casa de un veterinario. En esa casa estuve durante nueve meses. Al principio no me querían nada, porque yo veía el desprecio que me hacían. La única sonrisa que veía en aquella casa era cuando venía el marido y siempre me preguntaba: ¿Qué tal Rosa? Y yo le contestaba que bien, y lo demás nada. Pero yo me agarraba a todo lo que había; si había que ir a la huerta con el yayo -así llamaban al abuelo-, pues iba.

Pero aquello también se evacuó porque a una orilla del río estaban los “nacionales” y al otro lado estábamos nosotros, los rojos, y según iban entrando era como si nos empujaran y teníamos que marcharnos. Y al marcharnos todos, aquella familia quería llevarme con ellos a la montaña, porque tenían tierras, casa, etc. Y mi madre les dijo que no.



Y estando allí tuvimos noticias de nuestra familia, supimos que a mi padre le cogieron preso en Laredo, y mi hermano como era un chaval, se había quedado con Martina que era una sobrina de mi padre en Lezo. Y a mi padre le trajeron a la cárcel de Ondarreta en Donostia.

Estuvo dos años y medio preso, y nunca supimos quién le denunció.

Mi hermano estando viviendo con Martina fue llamado para ir a luchar con los “nacionales”. Eramos cuatro en la familia; dos con los rojos -mi madre y yo-, uno en la cárcel y otro luchando con los “nacionales”. A un hermano de mi madre y dos primos de Irún y otro de Beasain a todos los mataron, todos eran voluntarios, unos chicos grandes como castillos. Los primos de Irun eran los hijos del famoso bertsolari Joxe Mari Lopetegi, que estaba casado con una hermana de mi abuela.

La dueña de la casa donde estaba mi madre le dijo: Resti, no se vaya, traiga a la hija aquí y ya iremos todas, porque lo que sea de una será de la otra. Y así nos llevó con ella y estuvimos año y algo. Esta mujer era viuda con cuatro hijos, dos en el sanatorio y los otros dos en el frente y estaba sola. La gente sufrió muchísimo. Esta Sra. nos dio el dinero para pagar el viaje a casa y así una vez terminada la guerra, en mayo, volvimos a casa a Lezo.

Fué una situación muy dura porque había mucha gente mala, las mujeres que pertenecían al grupo de las Margaritas, por ejemplo eran malas como ellas solas!

Anécdotas tenemos muchas, una de ellas es que cuando cayó la bomba en Lezo, mi madre debió de decir! -A por ellos habría que ir! Y cuando volvimos, Anselma Salaberria que pertenecía a ese grupo de Margaritas y que vivía enfrente, le faltó tiempo para decirle: ¿Ahora qué, qué dices?

Y otra de tantas es que, al volver a casa nos encontramos sin nada, la casa vacía y se habían llevado todo y lo poco que dejaron se encontraba en un bajo de las casas de Jauregialde y nos dijeron que podíamos encontrar algo de nuestras cosas y que fuéramos a ver. Así, fuimos, y como responsable del requise aquel estaba Fermín Biurrarena - Txapelgorri- (1901-1978), y le dice mi tía Maria a Fermín:

-¡Esa mesilla es nuestra pero le falta un cajón!

Y le contesta Fermín:

-¿Qué piensas, que después de estar tres años andando por ahí, ibais a tener los muebles con el polvo quitado y todo, ó qué? ¿Por qué no os habéis ido a Rusia en lugar de volver aquí?

Y le responde mi madre; -No sé lo que hubiera pensado, pero si has cogido una cosa, al menos devuélvela entera! Y no nos hemos ido a Rusia porque no nos han llevado, que si no ya estábamos en Rusia! -le contestó mi tía María- .Y así un montón de anécdotas todos los días”.

PILI INSAUSTI ORMABURU (LEZO 1927)

Hernaniko kanposantuan fusilatutako José Manuel Insausti herritarraren alaba.

“Yo nací en Lezo, el 24 de septiembre de 1927 y me casé el 7 de junio de 1952 con Julen Arreche Jáuregui y fuimos padres de un chico -Joxan-.”

“Vivíamos en Altzate, en la villita que era de la Real Compañía Asturiana, porque mi padre era el contable de esa empresa. Y esa casa era del director de la empresa de la fábrica de Pinturas pero él no quiso venir a vivir a esa casa y entonces se la dieron a mi padre y ahí vivíamos, todos junto a la amatxo que era de un caserío de Oiartzun y seis hermanos, Josetxo, M^a Cármen, Manolo, Ignacio, Pili, y Juan Mari, más Felixina, la sirvienta, de 15 años.

Yo del comienzo de la guerra recuerdo muy poco porque era una niña, apenas tenía nueve años y recuerdo que nos decían que el aita estaba desaparecido.

Cuando estalló la guerra nosotros nos marchamos a Donostia a la casa del águila, que era de un cuñado de una tía nuestra y él como estaba fuera nos dejó a nosotros, y a su vez, a nuestra casa de Lezo, vino nuestra lechera Malen del caserío Urrullo con todos sus hijos, y estuvieron ahí hasta que volvimos de Donostia.

Y en cuanto volvimos, aiatxo les llevó a los chicos a pescar en la lancha que teníamos y cuando regresaron a la noche e íbamos a cenar es cuando llamaron a la puerta, y salió mi hermano Manolo, que entonces tenía 13 años, y le preguntaron por José Insausti, a lo que contestó:

-Es mi padre!

-Pues que salga!

Y se lo llevaron.

Sabemos que Aranjuelo, el viejo, al ver a mi padre cuando iba a pescar dijo: –¡Hombre, ese ya está aquí! Y también nos consta que había tres denuncias contra mi padre en el Ayuntamiento de Errenteria. Mis abuelos y mis tíos vieron quienes eran los denunciadores y sabían todos los nombres, pero mi amatxo nunca quiso saber, porque decía que no quería saber lo que habían hecho con su marido, y que no quería que sus hijos tuvieran ningún odio, y que al que había hecho eso Dios algún día le daría lo suyo, lo merecido.

Los que llamaron a la puerta fueron tres; un guardia civil, un requeté y un falangista. Y salió mi padre y le dijeron:

-Tiene que venir con nosotros.

Y mi padre que estaba en camisa, les dijo:

¿Puedo coger la chaqueta?

Y no le dejaron. Se fue sin chaqueta ni nada, tal cual. Esas fueron las últimas palabras que le oímos y le vimos por última vez.

Lo llevaron a Ondarreta. Entonces, mi hermano el mayor Josetxo, fue a casa de mis abuelos y desde allí le llevaba todos los días la comida, hasta que un día le dijeron que el aitatxo no estaba, que había salido en libertad.

Y Josetxo fue a casa de los abuelos y les dijo que el aitatxo no estaba y que había salido en libertad, pero no apareció a casa y no venía y no venía y seguía desaparecido...

Pero ellos supieron enseguida que estaba fusilado, porque mis abuelos tenían varios caseríos en Hernani por parte del abuelo Insausti. Y siendo mi padre muy pequeño, mi abuela debió quedar embarazada enseguida y entonces a mi padre lo llevaron a Hernani a un caserío y le crió la nodriza. Se crió en el caserío Bakero de Hernani, que está situado bajando la cuesta del cementerio.

Y en Hernani los fusilamientos se realizaron junto a la puerta del cementerio, y coincidió que el hermano de leche de mi padre era el ayudante del enterrador y éste vio a mi padre allí muerto y le dijo a su madre: Ama, Pepito -así le llamaban, Pepe o Pepito- está muerto, lo han fusilado! A continuación llamaron a mis abuelos y así es como supieron desde un principio, pero a la amatxo no le dijeron nada porque se puso fatal; tenía que hacer frente ella sola a la nueva situación con seis niños y el mayor de 16 años, y a raíz de eso, ella quedó delgadísima, se puso a trabajar en lo que podía,... Mientras con la esperanza de encontrarlo vivo iba de un lado a otro y a veces le decían que el aitatxo estaba haciendo el puente de Ormaiztegi, pues se iba a Ormaiztegi y allí no estaba..., y así hasta que le dijeron que se hallaba fusilado en Hernani.

Nosotros, todos bien pequeños, íbamos al cementerio de Hernani, y a veces no nos dejaban, y por el monte junto a los Garbizu de Pasaia que también tienen allí a su padre fusilado, así íbamos. Ahí nos hicimos amigos con los Garbizu, que eran del PNV. Hemos ido muchas veces al cementerio, pero yo siempre las flores que he llevado siempre han sido junto a la bandera republicana y lo dejaba allí.



Cuando hicieron el monolito en honor a los fusilados en Hernani, eso lo hizo un alcalde de Herri Batasuna y como mi hermano estaba en el Ayuntamiento de Errenteria, nos avisó que fuésemos y estuvimos en el homenaje que se hizo y yo también fui con mi ramo de flores y mi bandera republicana y lo puse allí.

Y así después de matarle a mi padre, venían a nuestra casa dos hombres de Lezo pero durante muchos días; uno era Pontxio Veintemillas el marido de Micaela y el otro era Santos Urraca "el Manco", y le decían a mi madre:

-Ud. tiene que denunciar a Fernando Lobato y traían ellos el papel para que firmara, - ¡Porque lo querían matar, lo iban a fusilar, claro! Entonces era eso, llevarlo y al fusilamiento, así de fácil!- Y le decían: ¡Sí, sí, Ud. le ha visto disparar con la pistola desde el tejado!

Y mi madre les contestaba, ¡que no! y ¡que no! -¡Si éramos como de la familia! ¡Si nuestra amatxo está enterrada en el panteón de ellos! ¡Nos hemos querido tanto! ¡Por favor!-

Y al ver que mi madre no cedía le decían que le iban a fusilar a ella y le decían que volverían, y se marchaban, y así durante varios días.

Una vez que se marchaban ya no nos movíamos nadie, todos abrazados a la amatxo, todos llorando,... ¡mimaginaos qué era aquello!

Otra vez volvían, y así hasta que les dijo mi madre ya cansada: -Ya no me importa vivir, me han quitado lo más grande que tenía y aquí se quedan mis hijos. Hagan lo que quieran, pero yo no destruiré otra familia como han hecho Uds. con nosotros!

Ya ahí se le debió ablandar un poco el corazón a Veintemillas y le contestó:

-Bueno, si no quiere,...

Querían fusilar a Fernando Lobato pero al no obtener firmas, se lo llevaron al Kursaal, -su hija Karmentxu nació estando su padre preso en el Kursaal-, al antiguo Kursaal donde llevaban a los que no podían fusilar fácilmente como lo hacían al principio cuando entraron los requetés que mataban a diestro y siniestro, sino que luego hacía falta obtener más firmas, más denuncias,... o alguna sentencia de algún juicio, para poder fusilar, por eso no lo mataron.

Mi hermano Josetxo tampoco se libró de la mili por ser hijo de viuda, sino que le enviaron a primera línea del frente para ver si lo mataban, pero por suerte o por desgracia, cogió una enfermedad del tipo de reuma infeccioso y se quedó como paralítico, muy mal, y lo llevaron a un hospital y allí pasó toda la mili.

Lo que hemos sufrido nosotros no lo saben en Lezo, porque nadie se ha preocupado de nosotros.

Pero no solo hemos sufrido con Veintemillas y Urraca "el Manco", sino que luego también había otros que nos hacían la vida imposible, Aranjuelo el viejo..., Tiburcio Ascasibar... Este fue alcalde del pueblo y una de las muchas anécdotas es que mis hermanos ya cuando fueron algo mayores ponían música en el jardín con un gramófono y bailaban... por eso le llamaba al orden a mi amatxo al Ayuntamiento y le decía:

-¿Qué se ha creído Ud, que tiene una casa de putas, o qué?

Hasta que le contestó la amatxo:

-En mi casa no hay ninguna puta. Mis hijos bailan y se divierten delante mío, y en cambio, no pasa lo mismo en su casa que tiene mucho que callar -le puso dos ejemplos referentes a su familia-. Ya no volvió a molestarnos más.

Este hombre ha sido malísimo con nosotros.

Aranjuelo, el padre -de bigote grande-, era malísimo, en cambio con su familia nos hemos llevado muy bien, porque M^a Luisa y Manoli -que era sombrerera-, eran amigas de la amatxo. Por el hecho de que una persona sea mala no tiene porque serlo toda la familia.

En fin, hasta ahora no nos atrevíamos a hablar en público porque había mucho miedo, aunque sí lo hacíamos entre nosotros, en casa."

TOMASA CORDERO LÓPEZ (LEZO 1927)



Haurra zela familia osoarekin ihesi eta atzerrian ibilia. Preso egondako María Trinidad Lópezen alaba.

“Yo nací en Lezo, el 27 de enero del año 1927. Soy hija José y de María. Me casé el 22 de abril de 1953 con Severino Martín Barriuso y tuvimos 6 hijos -Pepe, Jesús M^a, Susana, Maribel, Luis y Francisco Javier-”.

“El año 1936 yo era una niña porque no tenía más que 9 años y aunque no te enteras de muchas cosas, siempre te te quedas con algo. Me acuerdo del exilio y la vuelta a casa”.

“Por ejemplo me acuerdo perfectamente del “Manco”, cómo era de malo y cómo lo mataron.

Se llamaba Santos Urraca Álvarez era santanderino y vivía cerca de nuestra casa en la calle San Juan. Estaba casado y tenía un montón de hijos (9) y una de ellas era monja. La mujer apenas si salía de casa, pero él era requeté, malo, que había que hacer lo que él dijera y sino, ibas a la cárcel.

Nosotros hemos sufrido mucho por culpa de él, y como nosotros, todos los demás del pueblo -los que no opinaban como él, claro está!-.

Mi madre la Sra. María, -que era así como le conocía todo el mundo- era republicana y durante los años que duró la guerra tuvimos que marcharnos a Santander y luego a Francia.

Y cuando volvimos mi madre se puso a trabajar en la Escabechería y el “Manco” -Santos Urraca- estaba de encargado y a la hora de pagar a mi madre, se conoce que no le daba lo que le correspondía. Y mi madre que no tenía un pelo de tonta se fue directamente a hablar con el jefe de la Escabechería, y éste le dijo que tenía toda la razón, y se conoce que éste le llamó al orden al “Manco” y a raíz de eso, un día le detuvieron a mi madre y se la llevaron a la cárcel sin saber el porqué. Mi madre se llevó con ella a la pequeña de la familia que entonces era mi hermana Coro, y a los demás hijos nos repartieron en distintas familias mientras estuvo en la cárcel.

Así pasó un año, hasta que un día le dijeron que si quería saber los motivos del encarcelamiento tendría que enfrentarse al denunciante. Y mi madre les respondió que sí. Y así llegó el día del careo y el denunciante no compareció y es cuando se enteró que el denunciante era su encargado, Santos Urraca “el Manco”. Pero al no realizarse el careo le dejaron libre al año de su encarcelamiento.

Y así con todo el mundo! Era malo como el diablo. Solía andar vestido de requeté y armado con una pistola al cinto y un fusil cruzado de arriba a abajo por la espalda. ¡Y eso que era manco! Pero pobre del miliciano que pasara frente a él, si podía lo maltrataba pero bien maltratado! Mandaba más que cualquiera en el pueblo. Todos le temíamos.

Hasta que un buen día apareció junto a la estación de la Renfe con un golpe en la cabeza. Estaba casi muerto porque lo trajeron a casa y es como murió en casa. Era el año 1941.

Nadie supo quien lo mato. Pero dicen que fue con una barra de hierro con lo que le destrozaron el cráneo.

Acusaron a Agustín Picabea Arbelaiz (1921-1942), porque se conoce que este iba o venía de trabajar y al verlo tirado en el suelo dicen que lo subió a un banco de madera y lo dejó allá. Y tras esa acusación, Agustín enfermó del disgusto y murió”

PEPITA LEGORBURU LECUONA (LEZO 1927)



Itsua Goikoa baserrian sortua. Haurra zela bere etxea "kuartel" bihurtuta ikusi zuen.

“Gerrak Lezo zigortu zuenean, bederatzi urte besterik ez nituen eta gauza askoz konturatzen ez banintzen ere, gure etxea “kuartel” gisa erabili zutela gogoan dut. Ganbaran, belar artean lo egiten zuten soldaduek eta etxeko salan zuten ofizina; hiruzpalau idazmakina bazituzten eta neroni ere idazmakinekin jostatzen ibiltzen nintzen”.

“Goserik ez genuen pasa familian, soldaduek beraiek ematen ziguten nahikoa janari etxekoei”.

“Baina beti bonbak noiz eroriko zain egoten ginen, eta beldurraren beldurrez gurasoek koltxoiak jartzen zituzten leihoetan barrura sar ez zitezen”.

FRANCISCA LECUONA GARMENDIA (LEZO 1919)



1919ko urtarrilaren 22an Lezoko Donibane kalean jaioa eta 1946ko ekainaren 22an José Lino Sistiaga Garmendiarekin ezkondua. Egun, alargunduta, Oiartzunen bizi da.

“Erreketek sartu ziren eguna igandea zen eta, igandetan ohi genuen moduan, Errenteriara joan ginen musika entzutera edo dantzara, Lezon ttun-ttuna besterik ez baitzen. Hamazazpi urte nituen... Han harrapatu genituen zapel gorri horiek, erreketek.

-Han venido los requetés de Navarra... Esan ziguten...

-¿Y por qué?

-¡Ha estallado la guerra! ¡Hay guerra...! Mutil gazte batzuk ziren erreketek eta...

-¿Vosotras de dónde sois?

-De aquí a un kilometro...

-¡Ala, a vuestros pueblos!

-¿Y eso, por qué?

-¿Que descarada eres?

-Si no hacemos mal a nadie... Estamos aquí escuchando la música...

-¡Nada! ¡A vuestros pueblos! Sino mira, con esto.... -fusila erakutsi zigun. Eta Lezora etorri ginen...”

“Aita ere kartzelan sartu zuten...

-¡Hable usted en castellano! -Agindu zioten behin...

-No sé...

Eta horregatik sartu zuten... Aitaren bila goizeko ordu bietan joan ziren etxera. Euskaraz hitz egiten zuelako... Bi hilabete-edo pasa zituen Ondarretan.”

“Anaia hil egin zuten... Oso mutil atsegin eta jatorra zen... Frantzian egon zen ihes egina

eta 38ko kintoa zenez, Bartzelonara edo Iruna joateko destinoa eman zioten aukeran. Hemengoa zenez, Irun hautatu zuen eta Irunen zegoela, Teruelera eramán zuten frentera. Hilabete exkax egin zuen gerran, urtarrilaren 19an hil zuten...”

“Erreketeak etxeetan sartzen ziren eta nahi zuten guztia eramaten zuten. Gero ohartzen zinen, hau eramán dute eta beste hau ere bai...”

PELLO USABIAGA ASTIZ (LEZO 1943)



Lezoko Etxetxo baserrian sortua. José Agustín eta Nicolásaren semea. Aita, José Agustín Usabiaga (1914-1970), Etxetxo baserriko familiari eragindako sarraskitik, lau senideren artetik, bizirik gelditu zen bakarra zen. José Agustín soldaduskan zen orduan -Errepublikaren armadan- eta frentera eramana zen gainera, 22 urte zituen orduan. Pellok aitona zen eta, batez ere, aitaren ahotik ezagututako gertaerak kontatu dizkigu.

“Ba omen ziren egun batzuk erreketean “avanzadilla”k Erreterria inguruan zebiltzala eta Lezorako bidea prestatu nahian ari zirela. Egun hartan (1936ko uztailak 27) ere mugimendu haiek sumatu eta babes bila, familia elkarrekin egoteko-edo, Miura baserriara -Domingok hangoa baitzuen andregai- joatea pentsatu zuten aitona eta amonak, etxean ziren hiru semeak hartuta. Hala behintzat, nik dakidanez, goizean abiatu ziren. Amona eta hiru osabak aurretik joan ziren eta aitona ganadua etxean sartzen gelditu zen atzetik joango zela esanez. Gure etxea Mattejoane eta Gabiria arteko beheko txokoa zegoen. Orain desagertua dago autobia berria egiteko bota baitzuten. Amona eta hiru osabak herri bidean gora Mattejoane eta Miurako bidegurutzera den horretara ailegatu zirenean, orain Gabiria Txiki etxea dagoen tokian-edo, erreketek talde batek tirokatu egin zituen. Erreketeen “avanzadilla” Irundik trenean etorri, Gabierrotan jaitsi eta Agerretik gora Lezo aldera zihoan eta bidean aurreraxeago gurutzatu zitzaizkien nire familiakoak. Erreketeek distantzia batera egin zieten tiro, nor eta zer ziren batere inporta gabe, haiek ikusiko zuten ba ama eta hiru mutikozkor zirela, bat 17 urtekoa

gainera... Aurretik eramaten zuten harrapatzen zuten guztia... Ez zitzaien axola nor hiltzen zuten. Tirokatu eta bertaratu zirenean, mauserrak muturrean izaten zuen baionetaz pasa zituzten lauak. Felix Arriaga kalegarbitzaileak jaso zituen gero hilotzak eta gurdian hartuta eraman zituen kanposantura. Roxario Olaizolak eta beste hainbat mutikozkorrek ikusi zituzten hilotzak gurdi gainean, kanposanturako bidean geldialdi bat egin zuenean¹⁰⁶”.

“Anaia zaharrenak, Domingok, gerriko uhalean ikurrina omen zeraman. Lezon esaten dute ikurrina hartantxe zuela bala edo baioneta zulo bat. Nik hori ez dakit”..

“Beldur haundia zen garai hartan eta inork ez zuen hitzik egin nahi gai honen inguruan. Guk familian ere gutxi hitz egiten genuen gertaera honetaz, eta oso gogorra gertatzen zen hura gogora ekartzea. Inork ez digu barkamenik eskatu eta ez dugu inolako errekonozimendurik, laguntzarik eta ezer izan. Konturatu aitona nola gelditu zen bakar-bakarrak eta inolako laguntzarik gabe eta aitak ere ez zuen ezer jakin handik urtebetera soldaduskatik etorri zen arte”..

JOSÉ MARÍA GARCÍA DÍAZ (LEZO 1922)



Oso gazte zela familiarekin ihesi eta atzerrian ibilitakoa. Familia errepublikazaleko semea.

“Nací en el caserío Altzate, el 17 de abril de 1922. Casado con Emilia Sáez Zubian y padre de cuatro hijas -Amparo, Rosa, M^a Ángeles †, y M^a Ángeles-”.

“Cuando estalló la guerra aquí en Lezo, nosotros vivíamos en Jauregialde, mis padres (Eugenio García y Carolina Díaz) junto con nosotros los hijos -José M^a, Regino y Teresa-, pero cuando nosotros marchamos fué después de que mataran a la madre y tres hijos en Darieta (2007ko uztailaren 27an egin zen elkarrizketa hau, hilketa haren 71. urteurrena betetzen zen egun berean, kasualitatez), y entraron ellos (los requetés). Nos llevó Don Manuel Acha -era el jefe de Aserraderos de Acha- con su coche, porque vino a buscarnos y nos llevó a los “vascongados” (tren). Y justo llegamos a la estación, entrar y meternos en la ventanilla con maletas y todo, fue todo uno, porque ya empezaba a arrancar el tren.

De aquí evacuamos a Bilbao y de Bilbao a Torrelavega (Santander). Y allí el Gobierno

¹⁰⁶ Aspaldian Bartzelonan bizi den Luis Salaberria Elizalderi gorpuei fotografia egiteko enkargatu omen zioten, fotografo lanetan aritzen zelako. Fotografia egin bai baina ez omen zuen inoiz ikusi, entregatzeko esan omen zioten. Pasarte hau berak kontatua da

Vasco nos mandó una carta diciendo que pasáramos en calidad de refugiados a Solares (Cantabria) que sino perdíamos todos los derechos de Euskadi.

Nosotros antes de ir al balneario de Solares solíamos ir a Santander a visitar a nuestras tías que estaban allí de refugiadas en el "Sardinero". Y estando con mis primos en la playa y al ver a los barcos de guerra que se acercaban salimos corriendo de la playa, y en una de estas, la aviación, la aviación "roja" que llamaban ellos... Y empezaron a echar "pildoritas" y en una de estas vimos el acorazado "España" y bumba!!, adioos Paris! Y dicen que fue la aviación quien destruyó el acorazado, pero yo digo que no, porque debajo del agua vimos un remolino que era un submarino que se había metido. Y le sacudió estopa.

Entonces nos mandaron ir a Barcelona en un barco inglés "Strambourgh", y a la altura de Pasajes nos salieron dos barcos españoles de Franco y querían que entráramos en el Puerto de Pasajes pero no entramos porque vinieron dos barcos de guerra ingleses, y de ahí fuimos a Burdeos y de Burdeos a Pontmar, que era un cuartel de soldados marroquíes y luego de allí fuimos otra vez a Romain, otro pueblo de Francia muy bonito, y de ahí a Barcelona -aquí me enteré que mi padre había sido hecho prisionero de los "tor-dos" en Burgos y me presenté de voluntario al ejército de la República, y ahí estuvimos hasta el final de la guerra-.

Pero con nosotros no pudo porque mientras estaba hablando el Capitán -del "Strambourgh"-, el telegrafista estaba llamando a la flota inglesa, a los barcos ingleses que había en la zona. Se pusieron uno a cada lado a atacar. Y ¿has visto tú al Cervera y al Canarias? Pues yo tampoco sé todavía donde están!

Y a raíz del desastre que tuvimos en el Segre, me marché a Francia, solo, y allí estuve hasta el año 1941.

Claro! Pero no podía hacer otra cosa. Estábamos muy bien en Francia. Primeramente estuvimos con mis hermanos y mis padres todos juntos y muy bien, pero luego al trasladarme yo a Barcelona, allí ya perdí el contacto con todos y de todo.

Ya no te voy a contar nada más, porque es fuerte...

Cuando salimos de Lezo, Aranjuelo, el tío ese cerdo, fue a donde Teresa que era la dueña de las casas de Jauregialde y le obligó a que abriera la puerta de nuestra casa, y la dueña le dijo que no. Y Aranjuelo le dijo que si no le obedecía que la "limpiaba." Entonces subió a casa y entró, y todo lo bueno que veía se lo llevó a su casa, el tío cerdo.

Ese ha hecho mucho daño en Lezo -bueno, hizo, porque ya no puede hacer, porque está muerto-.

Aquí había mucho chorizo.

Luego cuando vino mi madre le contó Teresa -la dueña- todo lo que había pasado y es cuando se trasladó mi madre a la Calle Mayor, al número 19 entonces, ahora 11.

Aranjuelo era el jefe supremo de Lezo, y solía estar en la Sindical -donde hoy en día está la tienda de las Arruti, en la plaza-, y ya sabes, tenías que pasar por el aro si querías trabajar. Y cuando vine, fui donde estaba él y dentro estaba Veintemillas -otro sinvergüenza y canalla- y cuando entré, le dice:

-Anda! Mira! Otro rojo que viene aquí!

Y le digo;

¿Qué has dicho? Repítemelo, repítemelo!

No repitió, no. Tuvimos un follón de miedo.

Entonces Aranjuelo le dice a Veintemillas:

-Véte y llama a la Guardia Civil.

Cojo la silla, se la pongo encima y le digo:

-Como des un paso te dejo ahí, y a tí -a Aranjuelo- lo mismo eh! Que ya sé que llevas pistola en el bolsillo de atrás, pero ten mucho cuidado porque como intentes echar mano de ella, ahí te dejo, seco eh! -Yo entonces tenía 19 años y una fuerza enorme, no es como la fuerza de ahora- Y que no se te ocurra llamarme más rojo, ni amarillo ni blanco. Porque has de saber que mi madre a tí te salvó la vida. Porque cuando vinieron los militares a buscarte para pegarte cuatro tiros, mi madre como era la presidenta de la UGT de Pasajes, le llamé yo y salió y te libraron por eso, y te dejaron aquí en casa. ¿Entiendes? ¿Y ahora te portas así? ¡Tú eres un cerdo!

Tuve una pelotera muy fuerte.

Y luego ya al ejército. Me fui al ejército porque éramos de “zona roja” y teníamos que ir.

Y había a quien le metían al campo de concentración también.

Y un día que estaba en el cuartel y me viene Antonio Pikabea y me dice:

-José Mari, me ha dicho tu madre que a tu padre lo han detenido.

Y le digo:

-¿No te ha dicho nada más?

-Pues no.

Pedí permiso, les dije lo que pasaba y me mandaron.

Estaba de alcalde, aquí en Lezo, Luis Aranjuelo. Pero primeramente fui derecho a la Policía a Pasajes y les dije:

-Vengo del cuartel de Loiola y me he enterado que habéis detenido a mi padre y quisiera saber que es lo que ha pasado.

Y me dicen que han tenido una denuncia de Luis Aranjuelo que es alcalde de Lezo.

-Y qué motivos ha alegado?

-Pues que en una motora de su propiedad pasaba gente a Francia.

-¿En una motora? Si nunca hemos tenido nada! Pidan informes en el pueblo!

A continuación vengo a Lezo, pregunto si estaba el alcalde en su despacho y entro sin llamar ni nada y le pregunto, el porqué estaba detenido mi padre.

Me empieza como a disculparse y le digo:

-Creo que la motora te la vas a tragar tú, porque yo sólo te voy a decir una cosa. Yo me voy ahora al cuartel y son las 11:00 de la mañana, y si mi padre no sale para las 14:00 de la tarde, atente a las consecuencias eh! ¿Ya ves lo que llevo puesto aquí no? No me vas a coger porque te dejo seco y la frontera la tengo a dos pasos. ¡Coño que si estaba libre!

¡Con ese tío sinvergüenza lo que hemos pasado!

Otro día subíamos del frontón mi difunto padre y yo, y ya sabes como había unas escaleras y nos juntamos con Don Eusebio, el vicario, y le dice a mi padre:

-¡Hombre, García! ¿Cuándo vas a mandar al chaval a la catequesis?

Y le contesta mi padre:

-Cuando me mandes un criado que me haga las cosas en casa, entonces te lo mandaré.

Pues a raíz de eso, lo denunció y estuvo cuatro años en la cárcel, le denunció Don Eusebio.

Don Eusebio cuando marchó fuera, llamaba todos los días a Cruz Alberdi para saber que tal estaba el Santo Cristo, y por si le habían hecho algo... El falso aquel.

¿Qué te crees tú, estos han sido unos grandes sinvergüenzas, Aranjuelo y todos éstos. Aquí había muchos sinvergüenzas...

Cuando venían los barcos de guerra porque les hacían entrar en Pasajes, solía ir Oliyosanto¹⁰⁷, por si había gente de Lezo, entiendes? ¡Porque era otro facha de miedo!

Aquí ha habido mucho canalla, en Lezo, pero mucho. Y como mandaban ellos, tenías que callarte y cerrar la boca, porque sino, ya sabes lo que te pasaba, como a los de Darieta... ¡Hombre, por favor! Las hemos pasado canutas.

Ha habido mucho falso, mucho traidor. Y ¿para qué? Si no ha servido para nada”

REGINO ISIDORO GARCÍA DÍAZ (LEZO 1926)



Oso gazte zela familiarekin ihesi eta atzerrian ibilitakoa.
Familia errepublikazaleko semea.

“Nací en la calle San Juan N° 12-1°, el 18 de enero de 1926. Casado con María Luisa Antolín Fernández y padre de dos hijos -Milagros y Roberto-”.

“Estas son las memorias de un niño de la guerra. En el año 1936 yo tenía diez años y en plena guerra nos trasladamos a Santander a casa de unos familiares. En ese tiempo, empezaron a evacuar a Bilbao y nosotros, al poco tiempo, nos fuimos a Ribadesella. Allí embarcamos en un buque carbonero inglés con rumbo a Burdeos (Francia), de donde, inmediatamente, nos trasladaron a Romans, un pueblo francés donde pasamos cierto tiempo pero del que nos volvieron a trasladar a otro llamado Montelimar. No soy capaz de recordar cuanto tiempo estuvimos allí, lo que si recuerdo, es que un día nos dijeron que ya no podíamos estar allí. Que nos teníamos que ir a la España de Franco o a la España de Negrín. Nosotros elegimos esta segunda y marchamos a Barcelona.

¹⁰⁷ Eusebio Ercibengoa

Cuando cayó Barcelona, nosotros nos encontrábamos en Blanes, donde nos cogieron con las maletas preparadas, ya que nuestra intención era evacuarnos otra vez a Francia. Pero bombardearon a la noche y tiraron los puentes, con lo cual, ya no pudimos salir. Entonces nos trajeron a San Sebastián en trenes de mercancías y, cuando llegamos, no encontramos nada de lo que dejamos, no teníamos ni donde dormir. Entonces, nos acogió Manolita Ormaburu de Insausti, a cuyo marido habían fusilado, ella nos dio cobijo y comida.

Teníamos el padre preso en la cárcel de Ondarreta, aunque ya había pasado primero por las cárceles de Santoña y Escolapios. En total, pasó cuatro años preso entre las tres cárceles.

Empecé a trabajar, con trece años, en una fábrica de muñecos que había junto a las Industrias Navarras de Lezo, -las hacíamos con resina y serrín- diciendo que tenía catorce. Me pagaban tres pesetas diarias. Luego pasé a trabajar a la galletera PAK-ERS donde cobraba tres con cincuenta pesetas. De allí pasé a trabajar a la fábrica de tableros de MANUEL ACHA de Lezo, donde pasé a cobrar seis con cincuenta pesetas, ahí trabajé durante cinco años, donde siempre fui mejorando el salario, terminando con doce con cincuenta pesetas de salario. Una vez más cambié de trabajo y me fui a trabajar a la PYSBE, donde entré cobrando catorce con cincuenta pesetas y estuve hasta 1972, en que me dieron la invalidez total-absoluta, con una paga mensual de 7.500 pesetas y dos pagas extras. En ese tiempo, me casé el 29 de julio de 1950 con María Luisa Antolín Fernández, una excelente mujer como esposa y como compañera insustituible, tuvimos dos hijos Milagros y Roberto, también excelentes.

En el transcurso de mi enfermedad, recorrí las clínicas de San Ignacio -Ategorrieta-San Sebastián, Clínica Beguiristain, Cruz Roja, Martín Santos, Residencia, El Tórax, Hospital Provincial y facultad de medicina de San Carlos de Madrid donde permanecí tres meses-.

P.D.: Quiero decir, que soy hijo de Eugenio y de Carolina, y después de todo lo pasado, os digo que llevo mucho tiempo enfermo, me han intervenido 21 veces, me falta un riñón, tengo bronquitis asmática crónica, artrosis degenerativa, mal la circulación y una minusvalía del 65% y, por si fuera poco voy a cumplir, el 18 de Enero, 82 años y en la actualidad cobro una pensión irrisoria de 476,69 euros mensual,... pero todavía me quedan fuerzas para gritar ¡GORA EUSKADI!¹⁰⁸".

¹⁰⁸ Reginok berak idatziz helarazitako lekukotza.

MIGUEL SARASOLA ECHEVERRÍA (LEZO 1921-1999)

Herriko lehen intsumisoa.

1938ko abenduko laguntzen zerrendaren arabera armada frankistak mobilizatu-tako soldadu lezoarrak 26 izan ziren.

Baina soldadutzari uko egitearen ekintza eredugarriak ere aipatu nahi genituzke, ziur asko hauxe izango baitzen lehenengo intsumiso lezoarra. Soldaduskara eta ondorioz frentera joateari uko egin zion araudi zahar baten klausula bati helduz.

“Gipuzkoako Lezon jaiotako gazte honek epaitegietara eraman zuen Estatu frankista berbera 1938an, soldadutzatik libre gelditzeko.

Begien bistako arrazoiengatik gazte honek gerrara joan behar zuen frankisten aldera. Migel Sarasolaren auzia 1876ko lege batetik, 1896ko apirilaren 2an arautua, abiatu zen. Lege honen arabera azken gerra zibilean legezko Erregearren eskubideak, norberak edo gurasoak, armaz defendatu zituenak edo bestela esanda, Bigarren Karlistadan alderdi alfonsotarraren alde egin zutenak soldadutzatik libre geratzen ziren.

Eta honela, gazte lezoarrak Gipuzkoako Diputazioak beharrezko agiria luza ziezaion lortu zuen. Agiri honetan, orduko Madrilgo Gacetaren 80. zenbakian argitaratua, Jose Manuel Sarasola Lezoko boluntarioen zerrendan agertzen zen. Agiri honek aurreko urteetan soldadutza ez egiteko bermea emango zion baina 1938an Gerrako Ministerioak iheslaritzat jo zuen, 1941eko zegokion deialdian.

Agiria eskuan, Sarasola gaztea Gipuzkoako agintari frankisten aurrean agertu zen. Ikustarazi zien bere arazoa ez zetzala soldadutzara joateko legea hausten zuela, bete-behar horretatik salbuesten zuen indarrean zegoen lege bati heltzen ziola baizik.

Epaitegi frankisten lehen epaiak aukera hau onartzen zuen, arrazoia gazte gipuzkoar-rari emanez: "Legedi hau ondorengo legediak jaso du (1876ko Legea aipatuz). Honek eskubide-estatu bat mantentzen zuen honela, bere iraute formalta ezbaian inork jartzen ez zuena".

Ordea, auzia Madrilen zegoen Defentsa-Ministerio frankistara iritsi zen. Hemen Sarasolaren ekimena ildo bereko eskaerak errepikatuko zirelako aukera bezala hartu zuten. Orduan aurreko araudiarekiko etena eman zen. Estatuko Buletin Ofizialean argitaratu zen erabakia diktatu zuten: "Ministerio honek erabaki du Migel Sarasola Etxeberria mutilari, 1941eko deialdikoa, soldadutzatik salbuesteko eskaria ez onartzea. Halaber, eta orok jakin dezan, adierazten du 1896ko uztailaren 21eko Legearen (eta, halaber, honekin bat datozen xedapenak) bosgarren artikulua hiru-

garren kasuari buruzko salbuestea indarrean ez dagoela".

Legea indargabetzeko arrazoia zorrotz argudiatu zuten: "Aipatu salbuestearen ematea eskubide errespetagarria izan daiteke behar nazionaleri buruz, Aberria armaz defendatzea karga gisa, diruz ordain zitekeena, ulertzen duen ikusmoldetik. Egun, zorionez, alderantzizkoa gertatzen da. Behar horrek ohorearen maila du. Eta behar hori ez betetzeak, aipatu arrazoia edo izaera bertsuko bat medio, kaltea eragingo luke balizko onuradunen patrimonio moralean. Honela ulertu du gure gazteria heroikoak, eta aurreratu egin zaio askotan deialdiari, eskubide militarren bizimodua denbora baino lehen eskuratuz".¹⁰⁹



¹⁰⁹ Miguel Sarasolari buruzko pasarte hau ez da bete-betean lekukotza bat, baina interesgarri iritzi diogu kasu hau atal honetan jasotzeari. Lekukotza hau 1936 Gerra Zibila Gipuzkoan (IV. liburukia 194 orr.) liburutik jasoa da.

[8]

AZKENA

Garaituak, menperatuak izan ginen euskal herritarrak, baina amorerik eman gabe. Orduko borrokalarien harrotasun hura aldarrikatu nahi dugu, gizon emakume haiek eta bizi izan zituzten gertaerak behin betiko gure memoriara ekarriz. Ahantzura baino mendekotasun handiagorik ez delako, orduko akats berak ez errepikatzeko eta egungo auziaren soluziobideetan lagungarri izan dakigun.

Beraz, 70. urteurreneko buelta honetan, une historiko honetaz baliatuz, orain arte isilik gorde diren bizipenak eta istorioak kontatzeaz gain, ahal izan dugun lekukotza gehien jaso eta gerra eta gerraondoko informazioa biltzen saiatu gara. Ziur gara motz geratu garenaz. Batetik, ez baitago giza-drama hori bete-betean eta bere osoan paperean fidelki idazterik -gu behintzat ez gara horretarako gauza-. Bestetik, motz geratu gara, halaber, lekukotza kopuruan eta biktimak zerrendatzerakoan, haien berririk ez eta asko geratu dira aipatu gabe. Aipatu gabe geratutako horiena ere bada liburu hau. Biktima guztiak, edo hauek baino gehiago behintzat, aipatuko dituen etorkizuneko edizio berriturik izango ahal da! Hala biz.

Honelako berreskurapen eta irain-ordeko lanen bidez, iraganaren lanbro ilun lausoan ahaztutako biktimekiko justiziaz jokatzuz, hauen senideen bitartez zorra kitatzen saiatu behar genuke. Memoriaren soka eteten ari da gai honetan, eta garai hura bizi eta gogoratzen -eta gogoratu nahi- dutenak gero eta gutxiago dira.

Belaunaldi berriei elkartasun baloreak eta historia beste ikuspuntu historiko batetik ere irakatsi behar zaizkielakoan gaude, egungo historia hobeki uler dezagun.

Azken batean, lehenago hasitako errepresioa orduan gorpuztu zen euskaldunon- gan, porrotaren "zauri" gisa familietara eroriz. Beraz, ez da harritzekoa egoera hori jasan zutenak beldur izatea, hitz egiteko beldur, alegia. Gehienetan, herritarrak berak bihurtzen zirelako salatzaile eta salatari, inolako erreparorik gabe. Gerra horrekin, besteak beste, euskal abertzaletasuna ezabatu nahi izan zuten eta oraindik ere ahalegin horretan segitzen dute batzuek.

Borrokalari haien oinordeko gara eta herentzian dagokigu haien ametsak egia bilakatzeko ahalegintzea eta haien egia ozenki ezagutzera ematea.

Orduko protagonista gehienak ez ditugu, tamalez, egun gure artean, baina oroitzen ditugun izenak aipatuz, eta beste hainbat berreskuratu eta aipatuz, bihoakie guztiei gure omenalditxo, gerran eta gerraondoan lehen lerroko borrokan nahiz bizirik irauteko borrokan isuritako odol eta malkoen oroigarri. Eta batez ere, maite ditugulako, horratx!

MENDIGOXALIARENA

I

*Mendi eze, ikurrin eder,
azke nai zattut axian.
¡Amar gasteren lerdena
makilla luzez bidian!*

*Mendi-bitxidior berdiok,
arin or duaz kantari:
"Dana emon biar yako
matte dan azkatasunari."*

*Eta ixil dago arratsa
Euzkadi 'ko lur-ganian.
¡Amar gasteren lerdena
makilla luzez bidian!*

II

*Gastedi orren didarra
bai-dala didar zolija!
Aberri baten samiñez
urduri dabil errija.*

*Azkatasun-goxalderuntz
sugarra dira basuak.
Sugarra basuak eta
zidar argija itxasuak.*

*Or duan ozte-aldrea
aberri-miñez kantari:
"Dana emon biar yako
matte dan azkatasunari."*

III

*Gaste orreik goruntz duaz
abesti eta ikurriñez.
Lañuan baño tiro otsak:
bedartza dager odolez.*

*Ikaraz duaz usuak,
mendija dago ixillean,
¡Amar gasteren lerdena
bixitza-barik lurrean!*

*Eta illuntziko bakian
norbattek darrai kantari:
"Dana emon biar yako
matte dan azkatasunari."*

Esteban Urkiaga "Lauaxeta"

OHARRAK

- *Biktimen, gudarien eta milizianoen izenak zerrendatzeko garaian, agiritegi ofizialetan ageri direneko grafiari eta izenari eutsi diegu.*
- *Lekukotzetan eta gure hitzetan, ordea, herriak ezagutzen dituen bezala eta euskal grafiaz aipatu ditugu.*
- *Lekukotzak jatorrizko hizkuntzan eman ditugu, gaztelaniaz nahiz euskaraz.*
- *Gerra eta gerraondoko protagonisten izen-abizenak eta datuak ematen dituzten bi atal ditu liburuak; Frankismoaren biktimak eta Gudari eta miliziano izandako herritarrak. Biktima izandako inor gudari edo miliziano ere izan bazen, lehenengo aipamenean ematen dira bere datuak eta bigarrenean bere militantzia aipatzen da. Inor biktima izan gabe -gerrara joan beharra nahiko zigor baden arren- miliziano edo gudari izan bazen, aldiz, bigarren atalean aipatzen dira hari buruz eskuratutako datuak.*
- *Gudari eta milizianoak aipatzen diren atalean, batzuk kide aktibo gisa izendatuta ageri dira. Kide aktibo erabili dugu, frentean ibili gabe edo armarik hartu gabe jarduera politikoa izan zuena izendatzeko; dela propaganda banaketan, ezkutuko jarduerak antolatzen, kultur alorrean, prentsan...*
- *Protagonisten argazkiak erakusten dituen atalaren antolaketa era honetara egin dugu: Etxetxo baserriko ama eta hiru semeak jarri ditugu aurrena lehenengo heriotzak izan zirelako eta ama-semeak zirelako. Hortik aurrera alfabetoaren hurrenkerari jarraituz jarri ditugu.*

ITURRI ZUZENAK

- Sabino Arana Fundazioko Abertzaletasunaren Agiritegia
- Lezoko Udal Agiritegia “Gerra Zibilean hildakoen familiak jaso beharreko pentsioen eskaerak”
- Lezoko Erregistro Zibila
- Lezoko Udaleko Akta-liburua
- “La Voz de Guipúzcoa” egunkaria
- “Eguna” egunkaria
- Ahozko eta idatzizko lekukotzak

ITURRI DIGITALAK

- Auñamendi Entziklopedia
- www.elhuyar.org
- www.wikipedia.org
- www.hemeroketa.com

BIBLIOGRAFIA

- AGIRRETXE, J.L. eta ESNAOLA, I., Lezoko euskararen azterketa, Lezoko Udala, Lezo, 2000
- AIZPURU, M., El otoño de 1936 en Gipuzkoa. Los fusilamientos de Hernani, Alberdania, Zarautz, 2007
- BATZUEN ARTEAN, Navarra 1936. De la esperanza al terror, Altabaylla Kultur Taldea, Iruñea, 1990
- CASTILLO, J.M., Irun 1936. Imágenes de una guerra, Luis de Iranzu KT, Irun, 2006
- CHIL, A., Pildain, un obispo para una época, Caja Canarias, Las Palmas, 1986
- CHUECA, J. eta FERNANDEZ, L., Espainiako Gerra Zibila Euskal Herrian, Egunkaria, Andoain, 1997
- EGAÑA, I., 1936. Gerra Zibila Euskal Herrian., Aralar liburuak, Andoain, 2000
- EGAÑA, I., Gerra Zibila Gipuzkoan 1936, Aralar liburuak, Andoain, 2000
- ELHUYAR HIZTEGI ENTZIKLOPEDIKOA., Elhuyar Kultur Elkartea, Usurbil, 1993
- ESNAOLA, I., Lezoko euskararen historia soziala, Lezoko Udala, Lezo, 1999
- ETXEZURIETA, K., Lezoko ikuspegi sozio-ekonomiko-politiko, Argitara gabea, Lezo, 1983
- GARCIA DE CORTAZAR, F, Historia contemporánea del País Vasco, Txertoa, Donostia, 1980
- LEZO ALDIZKARIA, Lezo
- ORRATX! ALDIZKARIA, Lezo
- RODRIGUEZ, J.A., Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República, Kutxa, Donostia, 1994
- URKIZU, P., Zoazte hemendik!, Susa, Iruñea, 1995

ZUEK GABE...

Eskerrak emateko erabili ohi den atal honi ez diogu behar duen garrantzirik ematen. Jende gutxik irakurtzen du, aipatutakoek, aipatutakoen familiakoek eta ez aipatutako batzuek egileari beren izena ahaztu zaiela baieztatzeko eta zer esker txarrekoa den arrazoi osoz esan ahal izateko.

Gure helburua, ordea, atal honetan aipatzen direnak eta ez aipatutako asko liburu honen egiletzat har daitezkeela jakinaraztea da. Izan ere, hainbat pertsonaren laguntzarik gabe, lan honek ez zuen argia ikusiko, edo ez ikusi duen moduan behintzat.

Hasteko Lezoko Udalaren jarrera aipatu nahi dugu, batez ere Kultura zinegotzi Jon Legorbururena. Proiektu hau aurkeztu genion egunetik beregandik laguntza eta animoak baino ez ditugu hartu, edozein ordutan gurekin bilera egiteko prest. Iñaki Egaña historialariak hitzaurrea idazteaz gain, bere artxiboko datuak gure esku jarri zituen eta jatorrizko bertsioari zuzenketa batzuk egin zizkion. Lander Zurutuzak, herriko liburuzainak, balio handiko aholkuak eman dizkigu eta liburutegiko baliabideen erabilera erraztu digu. Marikris Irastorza, udalaren langileak Artxibo Historikoko ateak zabaldu zizkigun, eta eskatutako materiala ekarri digu prestutasun osoz. Iñaki Berrio lagunak omenaldi eguneko argazkiak atera zituen, haietako batzuk libururako erabili ditugu. Eta Leire Oiaga, berriz, beti bezain txukun, maketazioaz arduratu da. Orratz! Kultur Elkartearen argazki artxiboa ere erabili dugu lan hau osatzeko.

Orokorrean bada ere, Lezoko herriaren portaera eskertu nahi dugu. Asko izan dira gugana hurbildu diren herritarrak argazkiren bat, dokumenturen bat, daturen bat edo animoak emateko asmoz. Esker bereziak biziakoaren lekukotzak eskaini dizkigutenentzat, baina hori ia ez da aipatu ere egin behar, izan ere, liburu hau beraientzat egina da.



Lezon, 1936ko gerran eta gerraondoa frankismoaren atzaparkada
sufritu zuten gizon-emakumeei orduan ukatu zitzaien hitza
emateko, eta historia ofizialak nahita ezkutatu dituen euren
izen-abizen eta aurpegiak ezagutzera emateko ahalegin xumea da
lan hau. Balio beza, halaber, egungo lezoarrek eta belaunaldi berriek
euren aurrekoen egitateak ezagutzeko eta, justiziaz, nor bere lekuan
jartzeko



Lezoko Unibertsitateko Udala